# 47/2013 FORU DEKRETUA, abenduaren 17koa, zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen duena.

**AZALPEN OHARRA**

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Foru Dekretua eta onartzen duen erreglamentu osoa jasotzen ditu bertan.

Testuaren bukaeran, reglamentuaren zenbat artikulu aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

Zerga betebehar formaltzat hartzen dira diru izaerarik ez izan arren zerga araudian zergapekoei ezartzen zaizkien betebeharrak, haiek zergaren zordunak izan edo ez, betiere beraiek betetzea zerga jarduketak edo prozedurak egitearekin lotuz, hala jasotzen baitu 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 17. artikuluaren 4. apartatuan.

Bestetik, foru arau berak 29. artikuluaren 2. apartatuan jasotzen du zergapekoek bete beharreko zerga obligazio formalen zerrenda ireki bat.

Zergak eraginkortasunez aplikatuko badira, ezinbestekoa da zerga obligazio formalak betetzea. Izan ere, horrela Zerga Administrazioak lortzen ditu zergak orokortasun, berdintasun eta ekitate printzipioei jarraituz aplikatzeko behar diren tresnak eta informazioa. Informazio hori eskuratu ezean, ezinezkoa litzateke zerga obligazioak betetzen direla kontrolatzea.

2/2005 Foru Arauak jasotako zerga betebehar formalen garapena hainbat arauditan gauzatuta dago, modu osatugabe batean eta, kasu batzuetan, behar bezala eguneratu gabe. Izan ere, garapen horri buruzko xedapen batzuk 2/2005 Foru Arauaren aurretik onartu ziren. Horrela gertatu zen Hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpenari buruzko abenduaren 17ko 94/1996 Foru Dekretuarekin eta Pertsona eta entitate jakin batzuek Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrari buruzko xedapen batzuk garatzen dituen abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuarekin.

Bestetik, zergak aplikatzeko, betebehar formalen erregulazio sistematizatu bat egingo bada, komenigarria da betebehar horien erregelamenduzko garapena testu bakar batean jasotzea, horrela betebeharrak ulertzea eta aplikatzea erraztuko baita.

Foru dekretu honen bidez onartzen den erregelamenduari esker, indarrean dauden xedapenetan onartutako zerga betebehar formal gehienak sistematizatu eta kodetu

egiten dira. Gainera, Gipuzkoako zerga araudian berrikuntza gisa sartuta gelditzen diren beste betebehar batzuk garatzen dira, hala nola, atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko informazio betebeharra.

Era berean, adierazi behar da Erregelamenduan jasota daudela 2013ko urriaren 25eko 828/2013 Errege Dekretuaren bidez lurralde erkidean hirugarrengoekin egindako eragiketei buruzko informazio betebeharren eta zerga erroldεn arloan onartu diren berrikuntzak, betiere Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kutxa irizpidearen araubide bereziaren ezarpenari dagokionez. Kontuan hartuta araubide berezi berri hori 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin ezarria dela, zerga erroldei buruzko xedapenak ere egun horretatik aurrera jarriko dira indarrean.

Horrenbestez, foru dekretu honek Erregelamendua jasotzen du artikulu bakarrean. Horretaz gain, xedapen gehigarri bat, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta amaierako sei xedapenetan.

Erregelamenduak zazpi titulu eta bost xedapen gehigarri ditu.

I. tituluak xedapen orokor bakarra du, erregelamenduaren xedeari buruzkoa. Azken finean, zerga betebehar formal jakin batzuk garatu besterik ez da egiten, hala nola, zentsu betebeharrak, zerga helbideari buruzkoak, identifikazio fiskaleko zenbakiari buruzkoak, erregistro liburu fiskalei buruzkoak eta informazio betebeharrei buruzkoak. Era berean, erregelamendu honen bidez, zerga betebehar formalak egiaztatzeko jarduketak eta prozedurak arautzen dira. Argitu behar da erregelamendu honetan sartutako informazio betebeharretako batzuek Zergen Foru Arau Orokorra ez diren foru arauak dituztela jatorri.

II. tituluan zerga betebehar zentsalak garatzen dira, eta Zentsu betebeharrak eta identifikazio fiskaleko zenbakiari dagozkionak garatzen dituen uztailaren 15eko Foru Dekretuaren edukia jasotzen da, zerga erroldei dagokienez.

III. tituluan zergapekoen zerga helbidearen aldaketaren berri emateko betebeharra garatzen da. Hemendik aurrera, betebehar hori berariazko titulu independentea izango da, nahiz eta orain arte zentsu betebeharren artean egon.

IV. tituluan identifikazio fiskaleko zenbakiari buruzko betebeharrak garatzen dira, eta 64/2008 Foru Dekretuaren edukia jasotzen da.

V. tituluan erregistro liburu fiskalak eraman eta gordetzeko betebeharrak garatzen dira, betiere zerga bakoitzaren berariazko araudian jasotakoa eragotzi gabe.

VI. tituluan zerga izaerako informazio betebeharrak garatzen dira; horietako asko Zergen Foru Arau Orokorra bera dute iturri, nahiz eta zergen foru arauetatik eratorriak diren beste batzuk ere jaso.

Titulu horretan foru dekretu hauen edukia sartuta gelditzen da: 1996ko abenduaren 17ko 94/1996 Foru Dekretua, hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpena arautzen duena, eta 1999ko abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretua, pertsona eta entitate jakin batzuek Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrari buruzko xedapen batzuk garatzen dituena. Horrenbestez,

besteak beste, betebehar hauek jasotzen dira: kontuei, eragiketei eta finantza aktiboei buruz informatzekoa, entitateen eraketari, establezimenduari edo iraungipenari buruz informatzekoa, nekazaritza, abeltzaintza edo baso jarduerak egiteagatik banatzen diren diru laguntzei, kalte-ordainei eta laguntzei buruz informatzekoa eta gizarte aurreikuspeneko sistemen aldeko ekarpenei buruz informatzekoa. Era berean, erregistro liburuetan jasotako eragiketei buruz informatzeko betebeharra, mailegu eta kredituei buruz informatzekoa eta, azkenik, balore, aseguru eta errentei buruz informatzeko betebeharra sartuta daude. Aitzitik, ez daude sartuta berariaz edo bereziki zerga bati edo batzuei eragiten dieten informazio betebeharrak, hala nola, atxikipenei buruz informatzeko betebehar guztiak.

Zergen Foru Arau Orokorra ez diren beste foru arau batzuetan jasotako informazio betebeharren garapenari dagokionez, Erregelamenduan sartzen dira, besteak beste, notarioek kontu hartutako egintza edo kontratuei buruz informatzeko betebeharrak edo ondasun higiezinen eskurapenarekin lotutako finantza eragiketei buruz informatzeko betebeharra.

Informazioa lortzeko banaka egiten diren errekerimenduak zergak aplikatzeko prozedura guztietarako arautzen dira, izaera orokorrez; aurreko araudian, aldiz, bata bestetik bereizita garatuta zeuden Ikuskaritza eta Zerga-bilketa Erregelamenduetan. Horrenbestez, aldaketak sartu behar izan dira bi erregelamenduotan, eta foru dekretu honetako amaierako bigarren eta hirugarren xedapenetan sartuta gelditzen dira. Era berean, Erregelamenduaren edukiaren sistematizazioa dela-eta, komenigarria izan da 117/999 Foru Dekretuan jasotako informazio betebeharretako bat Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendura eramatea; aldaketa hori foru dekretu honetako amaierako lehen xedapenaren bidez egiten da.

Gainera, berrikuntza moduan, atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharrak garatzen dira. Ondasun eta eskubide horiek Zergen Foru Arau Orokorraren hamaikagarren xedapen gehigarria dela medio erregulatuta daude, hain zuzen Zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 1. artikuluaren 19. apartatuaren bidez sartutakoa.

Bereziki nabarmentzekoa da, informazio betebehar berria denez, 2014ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitarteko epean Gipuzkoan lehen aldiz aurkeztu beharko direla atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko aitorpen informatiboak, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak horretarako onartzen dituen ereduetan.

Azkenik, VII. tituluan garatzen dira zerga helbideari buruzko betebehar formalak, zentsu betebeharrei buruzkoak eta beste betebehar formalak egiaztatzeko jarduketak eta prozedurak; haietako gehienak 2008ko uztailaren 15eko 6/2008 Foru Dekretuan garatuta daude, baina indargabetuta gelditzen da foru dekretu honetako xedapen indargabetzailean, 1996ko abenduaren 17ko 94/1996 Foru Dekretuarekin eta 1999ko abenduaren 21eko 177/1999 Foru Dekretuarekin batera.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

## XEDATZEN DUT

## Artikulu bakarra. Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzea.

Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen da, eta foru dekretu honen eranskinean sartzen da.

## XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA. Arauetara igortzea.

Foru dekretu honetako xedapen indargabetzaile bakarrean aipatutako foru dekretuetara egiten diren bidalketa guztiak foru dekretu honetan onartzen den erregelamenduaren artikuluetara eginak direla ulertuko da.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

### Lehena. Informazio betebehar orokorrak.

Foru dekretu honek onartzen duen erregelamenduko VI. tituluan jasotako informazio betebehar orokorrak –2013an eman beharreko informazioari buruzkoak eta 2014. urtearen barruan bete beharrekoak– erregelamendu horrek xedatutakoaren arabera exijituko dira. Dena den, II. kapituluko 1. sekzioan jasotako informazio betebeharra 1996ko abenduaren 17ko 94/1996 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera bete beharko da, betiere xedapen horrek 2013ko abenduaren 31n indarrean duen idazkerari jarraituz.

### Bigarrena. Hainbanaketa bereziaren erregelaren aplikazioa 2013ko ekitaldirako aukeratzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 28. artikuluaren 1.1 apartatuko a) letran eta 61. bis artikuluaren 3. apartatuko a) letran aipatutako hainbanaketa bereziaren erregela 2013ko ekitaldirako aukeratzekotan, 2013ko abenduan egin beharrekoa den zentsu aitorpena aurkeztu beharko da, eta ekitaldi horretarako izango ditu ondorioak.

## XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA.

Indarrik gabe gelditzen dira foru dekretu honetan eta horrek onartzen duen erregelamenduan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki honako hauek:

- 94/1996 Foru Dekretua, abenduaren 17koa, hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpenari buruzkoa.

- 117/1999 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, pertsona eta entitate jakin batzuek Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrari buruzko xedapen batzuk garatzen dituena.

- 64/2008 Foru Dekretua, uztailaren 15ekoa, zentsu betebeharrak eta identifikazio fiskaleko zenbakiari dagozkionak garatzen dituena; dena den, xedapen gehigarri bakarrean xedatutakoak indarrean jarraituko du.

## AMAIERAKO XEDAPENAK

### Lehena. Aldatzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua.

Aldaketak sartzen dira 2007ko abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 95. artikuluan. Horrela, 1. eta 5. apartatuak aldatzen dira, eta beste apartatu bat gehitzen da, 6.a, orain arteko 5. apartatuak zeukan edukiarekin. Hona hemen testuak:

«1. Gizarte Segurantzako organo edo entitate kudeatzaileek eta mutualitateek hainbat informazio eman behar dute, hilero eta urtero, beren afiliatu edo mutualistei buruz. Informazio horretan datu hauek jasotzea eskatu daiteke:

a) Haien izen-deiturak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta afiliazio zenbakia.

b) Kotizazio erregimena, eta altaren denbora tartea.

c) Kotizazioak eta sortutako kuota osoak.»

«5. Erregistro Zibilean jaiotzei, adopzioei eta heriotzei buruz dauden datuak Zerga Administrazioari eman beharko zaizkio, eta horrek informazio hau jasotzea exijitu ahal izango du, ondorio horietarako:

a) Informazioan aipagai den pertsonaren izena, deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Amaren eta, hala badagokio, aitaren izena, deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, jaiotza eta adingabeen adopzioa eta heriotza gertatzen denean.

6. Aurreko apartatuetan aipatutako aitorpen informatiboak Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako moduan eta tokian egingo dira. Era berean, zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarrian edo bitarteko telematikoez aurkezteko behar den prozedura eta baldintzak zehaztu ahal izango ditu foru diputatuak.»

### Bigarrena. Aldatzea Gipuzkoako lurralde historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua.

Aldaketa hauek sartzen dira 2010eko azaroaren 16ko 31/2010 Foru Dekretuak onartutako Gipuzkoako lurralde historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduan:

**Bat.** Honela idatzita gelditzen da 69. artikulua:

«69. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Ikuskapen jarduketen eta prozeduren eremuan, Zergen Foru Arau Orokorrak 90. eta 91. artikuluetan jasotako informazioa emateko obligazioak Zerga betebehar formalak garatzen dituen Erregelamenduan eta kapitulu honetan jasotakoaren arabera beteko dira.

2. Ikuskaritzako langileek lortu ditzakete, ikuskapen jarduketa edo prozedurak egitean, zergapekoaren esku dauden eta, beren iritziz, beste pertsona eta entitate batzuentzat zerga alorreko garrantzi berezikoa izan daitezkeen datu edo aurrekari guztiak. Nolanahi ere, datu horiek emateko obligazioa bete izana egiaztatuko da, hori izaera orokorrez exijigarria denean.

3. Ikuskaritzak Informazioa lortzeko bideratzen dituen jarduketak zuzenean egin daitezke dena delako datuak eskura dituen pertsona edo entitatearen lokaletan, bulegoetan edo helbidean edo, bestela, errekerimendu bidez, zerga garrantzia duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri horiek Zerga Ikuskaritzari bidali edo horretan aurkeztu daitezen.

Zergen Foru Arau Orokorrak 90. eta 91. artikuluetan jasotakoari jarraituz egindako informazio errekerimenduak Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak baimendu behar ditu, jarduketez arduratzen den ikuskaritzako langileek aurretik proposamen arrazoitua eginda, Zerga betebehar formalak garatzen dituen Erregelamenduak 74. eta 75. artikuluetan jasotakoa eragotzi gabe.

4. Informazioa lortzeko jarduketak Zerga Ikuskaritzaren beraren ekimenez edo, lankidetza kasuetan, beste organo administratibo edo jurisdikzional batzuek eskatuta egin daitezke.»

**Bi.** Edukirik gabe uzten dira 70. eta 71. artikuluak.

## Hirugarrena. Aldatzea Gipuzkoako lurralde historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua.

Aldatu egiten da 2006ko abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak onartutako Gipuzkoako lurralde historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduko 7. artikuluaren 2. apartatua:

«2. Zergak biltzeko eginkizuna betetzen duten funtzionarioek 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako lurralde historikoaren Zergen Foru Arau Orokorrak, 90. eta 91. artikuluetan informazioa lortzeko aurreikusitako jarduerak egin ditzakete, betiere artikulu horietan eta Zerga betebehar jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan jasotakoaren arabera.»

## Laugarrena. Aldatzea 1991ko azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituena.

Aldatu egiten dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen duen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuko 6. artikuluaren 1. eta 3. apartatuak, eta honela idatzita gelditzen dira:

«1. Aldaketa aitorpena aurkeztu beharra sortzeko, jardueraren elementu fisiko, ekonomiko nahiz juridikoetan honakook hartuko dira, besteak beste, zergan eragina duten aldakuntzatzat:

a) Tributu elementuetan 100eko 20 baino gehiagoko aldakuntzak, gora nahiz behera.

b) Jardueraren titular den sozietatearen pertsonalitate juridikoaren eraldaketa.

c) Matrikulaturik dagoeneko talde edo epigrafearen barruan beste ohar batera biltzeko erabakia, edo lehendik ez badago, oharren batera biltzekoa.

d) Tarifek kuota mota bat baino gehiago esleiturik dutenean, dela udalekoa, probintziakoa edo estatuko berezia, subjektu pasiboak egiten duen aukera aldaketa.

Aukeraren aldaketak, Instrukzioko 10., 11. eta 12. erregeletan jasoriko ahalmenei dagokienez, hurrengo zergalditik aurrera izango du eragina.»

«3. Aitorpena egitea zegokion zergalditik ez, baina hurrengotik aurrera izango dute eragin aldaketek.

Artikulu honetako 1. apartatuko c) eta d) letretan aipatzen diren kasuetan, baldin eta subjektu pasiboek oharrek edo kuota motak aurreikusitako ahalmenak aldaketa egiten den momentutik bertatik aplikagarri izatea nahi badute, behar diren alta eta baja aitorpenak aurkeztu beharko dituzte, kasu horietan ez direlarik aldaketatzat joko.»

## Bosgarrena. Arauak emateko ahalmena.

Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu honetan eta horren eranskinean jasotako erregelamenduan ezarritakoa garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

## Seigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau eta horri erantsitako erregelamendua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko dira indarrean. Dena den, erregelamendu horretako II. titulua eta VI. tituluaren II. kapituluko 1. sekzioa 2014ko urtarrilean jarriko dira indarrean.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

# ERANSKINA

# ZERGA BETEBEHAR FORMAL JAKIN BATZUK GARATZEN DITUEN ERREGELAMENDUA


**I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK** .......... 11

1. artikulua. Xedea.......... 11

**II. TITULUA ZENTSU BETEBEHARRAK** .......... 11

I. KAPITULUA. APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA ZENTSU BETEBEHARRETAN .......... 11
2. artikulua. Zentsu aitorpenak Gipuzkoan aurkeztera behartutakoak. .......... 11
II. KAPITULUA. ZERGA ALORREKO ERROLDAK .......... 12
3. artikulua. Errolda motak. .......... 12
*1. sekzioa. Zerga alorreko erroldaen osaera.* .......... *13*
4. artikulua. Zergapekoen errolda. .......... 13
5. artikulua. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen errolda. .......... 13
6. artikulua. Batasun barruko operadoreen erregistroa. .......... 14
7. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroa. .......... 15
8. artikulua. Fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroa. .......... 15
9. artikulua. Enpresen aldi baterako batasunen erregistro berezia. .......... 15
*2. sekzioa. Zerga alorreko erroldaen edukia.* .......... *15*
1. azpisekzioa. Zergapekoen erroldaren edukia. .......... 16
10. artikulua. Zergapekoen erroldaren edukia. .......... 16
2. azpisekzioa. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldaren edukia eta beste errolda batzuena. .......... 17
11. artikulua. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldaren edukia. .......... 17
12. artikulua. Espainian egoiliar diren pertsona fisikoei buruz enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan jaso beharreko informazio osagarria. .......... 19
13. artikulua. Espainian egoiliar diren edo eratuta dauden entitateei buruz enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan jaso beharreko informazio osagarria. .......... 19
14. artikulua. Espainian egoitzarik edo establezimendurik ez duten pertsona edo entitateei buruz nahiz bertan ez eratutakoei buruz enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan jaso beharreko informazio osagarria. .......... 19
III. KAPITULUA. ZENTSU AITORPENAK .......... 21
15. artikulua. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan alta eman izanaren aitorpena. .......... 21
16. artikulua. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan aldaketa egin izanaren aitorpena. .......... 24
17. artikulua. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan baja eman izanaren aitorpena. .......... 28
18. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia jasotzen duten entitateen berezitasunak zergapekoen erroldan alta hartzen dutenean eta datuak aldatzen dituztenean. .......... 29
19. artikulua. Aitorpen eredua, eta aurkezpen modua eta tokia. .......... 30
20. artikulua. Beste zentsu aitorpen batzuk baztertzea. .......... 30
IV. KAPITULUA. ERROLDEN KUDEAKETAKO JARDUKETAK .......... 30
21. artikulua. Zentsu aitorpenen kudeaketa. .......... 30
22. artikulua. Erroldetan ageri diren datuak eskuratzea. .......... 31

**III. TITULUA ZERGA HELBIDEAREN ALDAKETARI BURUZKO BETEBEHARRAK** .......... 31

23. artikulua. Zerga helbidearen aldaketa. .......... 31

**IV. TITULUA IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIARI BURUZKO BETEBEHARRAK** 32

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK .......... 32
24. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia izateko betebeharra, eta hura frogatzeko modua. .......... 32
II. KAPITULUA. IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA EMATEA .......... 32
25. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia Ogasun eta Finantza Departamentuak ematea. .......... 32

*1. sekzioa. Identifikazio fiskaleko zenbakia pertsona fisikoei ematea* ... *33*
26. artikulua. Nazionalitate espainiarra duten pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia. ... 33
27. artikulua. Nazionalitatez atzerritarrak diren pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia. ... 34
28. artikulua. Zerga Administrazioak Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoei identifikazio fiskaleko zenbakia emateko arauak. ... 34
*2. sekzioa. Identifikazio fiskaleko zenbakia pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko entitateei ematea* ... *35*
29. artikulua. Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen identifikazio fiskaleko zenbakia. ... 35
30. artikulua. Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzea. ... 36
31. artikulua. Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen identifikazio fiskaleko zenbakia ematea. ... 37
III. KAPITULUA. ENPRESARI EDO PROFESIONALEN IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIAREN BEREZITASUNAK BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ONDORIOETARAKO ... 38
32. artikulua. Enpresari edo profesionalen identifikazio fiskaleko zenbakiaren berezitasunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako. ... 38
IV. KAPITULUA. IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA ERABILTZEA ... 40
33. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia Zerga Administrazioaren aurrean erabiltzea. ... 40
34. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia zerga alorrean garrantzitsuak diren eragiketetan erabiltzea. ... 41
35. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia kreditu entitateekin egiten diren eragiketetan erabiltzea. ... 43

**V. TITULUA ERREGISTRO LIBURU FISKALEI BURUZKO BETEBEHARRAK ... 44**

36. artikulua. Erregistro liburu fiskalak eramateko eta gordetzeko betebeharra. ... 44
36. bis artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak elektronikoki eramatearen aldeko aukera. ... 46
36. ter artikulua. Fakturazio erregistroak elektronikoki bidaltzeko epeak. ... 46

**VI. TITULUA INFORMAZIO BETEBEHARRAK ... 47**

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK ... 48
37. artikulua. Informazio betebeharren konexio puntuak. ... 48
38. artikulua. Informazio betebeharren printzipio nagusiak. ... 48
II. KAPITULUA. AITORPEN INFORMATIBOAK AURKEZTEKO BETEBEHARRA ... 49
*1. sekzioa. Hirugarrengoekin egindako eragiketei buruz informatzeko betebeharra.* ... *49*
39. artikulua. Hirugarrengoekin egindako eragiketei buruz informatzera behartutakoak. ... 49
40. artikulua. Hirugarrengoekin egindako eragiketei buruz informatzeko betebeharretik salbuetsitako pertsonak edo entitateak. ... 50
41. artikulua. Hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpenaren edukia. ... 51
42. artikulua. Hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpena betetzea. ... 54
43. artikulua. Hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpeneko denbora egozpenaren irizpideak. ... 57
*2. sekzioa. Erregistro liburuetan jasotako eragiketei buruz informatzeko betebeharra.* ... *58*
44. artikulua. (edukirik gabe) ... 58
*3. sekzioa. Kontuei, eragiketei eta aktibo finatzarioei buruz informatzeko betebeharra.* ... *58*
45. artikulua. Kreditu entitateetako kontuei buruz informatzeko betebeharra. ... 58
45 bis artikulua. Elkar laguntzaren alorrean finantza-kontuei buruz informatzeko obligazioa. ... 59
46. artikulua. Maileguei eta kredituei eta eskudiruaren mugimenduei buruz informatzeko betebeharra. ... 59
47. artikulua. Kreditu edo kargu txartelen bidez egindako kobrantzei buruz informatzeko betebeharra. ... 60
48. artikulua. Balore, aseguru eta errentei buruz informatzeko betebeharra. ... 60
49. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi ez den kontuen edo bestelako eragiketen titularrei buruz informatzeko betebeharra. ... 62
50. artikulua. Kreditu entitateek txekeen igorpenari buruz informatzeko betebeharra. ... 62
51. artikulua. Aktibo finantzarioekin egindako zenbait eragiketari buruz informatzeko betebeharra. ... 63
52. artikulua. Kooperatiben kapital sozialari egindako ekarpenen itzulketa eta eskualdaketei buruz informatzeko betebeharra. ... 64

53. artikulua. Atzerrian dauden finantza entitateetako kontuei buruz informatzeko betebeharra. ........ 65
54. artikulua. Atzerrian gordailatuta edo kudeatuta dauden edo atzerrian lortu diren balore, eskubide, aseguru eta errentei buruz informatzeko betebeharra. ........ 67
*4. sekzioa. Estatuaren zor publikoarekin, lehentasunezko partaidetzekin eta beste zor tresna batzuekin egindako eragiketa jakin batzuei buruz informatzeko betebeharrak.........70*
55. artikulua. Estatuaren zor publikoarekin, lehentasunezko partaidetzekin eta beste zor tresna batzuekin egindako eragiketa jakin batzuei buruz informatzeko obligazioa........ 70
56. artikulua. Estatuaren zor publikoarekin, lehentasunezko partaidetzekin eta beste zor tresna batzuekin egindako eragiketa jakin batzuei buruz informatzeko araubidea........ 71
*5. sekzioa. Europar Batasuneko beste estatu batzuetako pertsona fisiko egoiliarrek lortutako errenta jakin batzuei buruz informatzeko betebeharrak (ezabatua) ........74*
57. artikulua. Aplikazio eremua (ezabatua)........ 74
58. artikulua. Informazioa eman beharra dakarten errentak (ezabatua) ........ 74
59. artikulua. Informazioa ematera behartuak (ezabatua)........ 74
60. artikulua. Eman beharreko informazioa (ezabatua) ........ 74
61. artikulua. Europar Batasuneko beste estatu batzuetan egoiliar diren errenta-jasotzaile pertsona fisikoen identifikazioa eta bizilekua (ezabatua)........ 74
*6. sekzioa. Beste informazio betebehar batzuk.........74*
62. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi ez duten pertsona edo entitateei buruz nahiz notarioen aurrean burututako egintza edo kontratuetako eskriturak edo agiriak egitean erabilitako ordainbideak identifikatu ez dituztenei buruz informatzeko betebeharra. ........ 74
63. artikulua. Erreferentzia katastrala eta ondasun higiezinen zenbaki finkoa ez jakinarazteari buruz informatzeko betebeharra. ........ 75
64. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza edo baso jarduerak egiteagatik banatzen diren diru laguntza, kalte-ordain eta laguntzei buruz informatzeko betebeharra. ........ 75
65. artikulua. Emaitzak jasotzeari buruz informatzeko betebeharra. ........ 75
66. artikulua. Gizarte aurreikuspeneko tresna jakin batzuei buruz informatzeko betebeharra. ........ 76
67. artikulua. Aurrezpen sistematikoko banakako planak merkaturatzen dituzten entitateen informazio betebeharra. ........ 77
68. artikulua. Ondasun higiezinekin lotutako finantza eragiketei buruz informatzeko betebeharra...... 77
69. artikulua. Atzerriko ondasun higiezinei nahiz ondasun higiezinen gaineko eskubideei buruz informatzeko betebeharra. ........ 78
70. artikulua. Atzerrian dauden edo atzerrian matrikulatuta dauden edo atzerriko herrialdeetako erregistroetan jasota dauden ondasun higigarriei edo horien gaineko eskubideei buruz informatzeko betebeharra. ........ 80
71. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateen informazio betebeharrak........ 83
72. artikulua. Energia elektrikoa hornitzen duten enpresen informazio betebeharrak. ........ 84
72.bis artikulua. Hiri finken errentamenduei buruz informatzeko betebeharra........ 84
III. KAPITULUA. INFORMAZIOA LORTZEKO BANAKAKO ERREKERIMENDUAK. ........85
73. artikulua. Xedapen orokorrak. ........ 85
74. artikulua. Informatzeko eta lankidetzan aritzeko betebeharra duten agintari jakin batzuentzako errekerimenduak........ 86
75. artikulua. Errekerimendu jakin batzuk banku edo kreditu trafikoan diharduten entitateei egiteko prozedura........ 86

**VII. TITULUA BETEBEHAR FORMALAK EGIAZTATZEKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK........87**

I. KAPITULUA. ZENTSU AITORPENETAKO DATUAK EGIAZTATZEKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK...87
76. artikulua. Zentsu aitorpenetako datuak egiaztatzeko jarduketak........ 87
77. artikulua. Egoera zentsala zuzentzeko prozedura. ........ 88
78. artikulua. Egoera zentsala ofizioz zuzentzea. ........ 89
79. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetzea. ........ 90
II. KAPITULUA. ZERGA HELBIDEA EGIAZTATZEKO JARDUKETAK........92
80. artikulua. Zerga helbidea egiaztatzea........ 92
III. KAPITULUA. BESTE ZERGA BETEBEHAR FORMAL BATZUK KONTROLATZEKO JARDUKETAK........93
81. artikulua. Beste zerga betebehar formal batzuen kontrola. ........ 93
XEDAPEN GEHIGARRIAK........ 94
LEHENA. Enpresari edo profesionalaren definizioa........ 94

BIGARRENA. Kanarietan, Ceutan eta Melillan hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpena. ..... 94
HIRUGARRENA. Ziurtagiria egitea..... 94
LAUGARRENA. Europar Batasuneko egoiliarren identitatea eta egoitza frogatzeko prozeduraren aplikazioa. ..... 95
BOSGARRENA. Atzerrian dauden ondasun eta eskubideei buruz eta Gipuzkoara helbidea aldatu izanari buruz informatzeko betebeharrak. ..... 95
Xedapen iragankorra. ..... 95
*Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren ERANSKINA..... 96*

# I. TITULUA
# XEDAPEN OROKORRAK

## 1. artikulua. Xedea.

**1.** Erregelamendu honen bidez, zerga betebehar formal hauek garatzen dira:

- Zentsu betebeharrak.

- Zerga helbidearen aldaketari buruzko betebeharrak.

- Identifikazio fiskaleko zenbakiari buruzko betebeharrak.

- Erregistro liburu fiskalei buruzko betebeharrak.

- Informazio betebeharrak.

Era berean, erregelamendu honen bidez, zerga betebehar formalak egiaztatzeko jarduketak eta prozedurak arautzen dira.

**2.** Erregelamendu hau 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (aurrerantzean, Zergen Foru Arau Orokorra), 1. artikuluan jasotakoaren arabera aplikatuko da.

# II. TITULUA
# ZENTSU BETEBEHARRAK

## I. KAPITULUA. Aplikazio eremu subjektiboa zentsu betebeharretan

## 2. artikulua. Zentsu aitorpenak Gipuzkoan aurkeztera behartutakoak.

**1.** Zentsu aitorpenak, Gipuzkoan jarduera enpresarialak garatzen edo garatuko dituzten edo atxikipenari lotutako etekinak ordaintzen dituzten pertsonek edo entitateek aurkeztu beharko dituzte Gipuzkoako Foru Aldundian, bai eta, enpresari edo profesional moduan dihardutelarik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako batasun barruko ondasun eskurapenak egiten dituztenek ere.

Bereziki, honako hauek daude behartuta zentsu aitorpenak Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztera: zerga helbidea Gipuzkoan duten pertsonak edo entitateak, eta Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera, Foru Aldundiari aitorpen hauetako bat aurkeztu behar diotenak:

- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioak.

- Fabrikazio zerga berezien autolikidazioak.

- Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioak.

- Atxikipenen edo konturako sarreren aitorpenak.

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren aitorpena, edo, zerga horretatik salbuetsita egoteagatik aitorpena aurkeztu behar ez dutenean, baldin eta Gipuzkoan jarduera egiteko lokalak badituzte.

**2.** Errentak esleitzen dituzten entitateetako kideek ere betebehar bera izango dute, entitate horiek nortasun juridikoa izan edo ez izan, beren zerga helbidea Gipuzkoako lurralde historikon dagoenean eta zerga helbidea lurralde horretatik kanpo duen entitate baten bidez jarduten dutenean.

## II. KAPITULUA. Zerga alorreko erroldak

### 3. artikulua. Errolda motak.

Gipuzkoako Foru Ogasunak zerga alorreko errolda hauek izango ditu:

a) Zergapekoen errolda.

b) Enpresari, profesional eta atxikitzaileen errolda. Errolda hori zergapekoen erroldaren barruan egongo da.

c) Batasun barruko operadoreen erregistroa.

d) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroa.

e) Fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroa.

f) Enpresen aldi baterako batasunen erregistro berezia.

Aurreko c) eta d) letretan aipatutako erregistroak enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldaren barruan sartuko dira.

Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan jasotako datuetatik abiatuta, Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 119.,

120. eta 121. artikuluetan aipatzen den entitateen aurkibidea eramango du Ogasun eta Finantza Departamentuak.[1]

### *1. sekzioa. Zerga alorreko errolden osaera.*

#### 4. artikulua. Zergapekoen errolda.

Zergapekoen erroldan sartuko dira zerga izaera duten edo zerga alorrean garrantzitsuak diren harremanetarako identifikazio fiskaleko zenbaki bat behar duten pertsona edo entitate guztiak, erregelamendu honek 24. artikuluan ezartzen duenari jarraituz.

#### 5. artikulua. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen errolda.

**1.** Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan sartuko dira Gipuzkoako lurralde historikoan jarraian aipatzen diren jarduera edo eragiketetako edozein egiten duten edo egitera doazen pertsona edo entitate guztiak:

a) Jarduera enpresarial edo profesionalak, hau da, horiek egiteagatik enpresari edo profesional izatea dakartenak.

Honako hauek ez dira sartuko enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan:

a’) Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsitako ondasun higiezinen errentamenduak bakarrik egiten dituztenak, 1992ko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzen duenak, 20.bat.23 artikuluan jasotakoari jarraituz (hemendik aurrera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretua), betiere errentamenduak egiteak ez badakar jarduera enpresarial bat egitea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian jasotakoaren arabera.

b’) Aipatutako foru dekretuko 25. artikuluaren 1. eta 2. apartatuen arabera salbuetsitako garraiobide berrien noizbehinkako entregak egiten dituztenak.

c’) Foru dekretu berak 26. artikuluaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera salbuetsitako batasun barruko ondasun eskurapenak egiten dituztenak.

b) Atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errenten ordainketa.

c) Batasun barruko ondasun eskurapenak, abenduaren 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzen duenak, 14. artikuluan xedatutakoaren arabera Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta daudenean.

---

[1] Paragrafo hau artikulu bakarraren bat apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

**2.** Era berean, errolda honetan sartuko dira:

a)[2] Abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 6. artikuluan xedatutakoari jarraituz Espainian egoiliar ez diren pertsonak edo entitateak, baldin eta Gipuzkoan establezimendu iraunkor bidez jarduten badira edo lurralde horretan atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak ordaintzen badituzte, eta, orobat, aipatutako foru arauaren 5. artikuluko c) letran aipatutako entitateak.

b) Ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan izanik jarduera enpresarial edo profesionalak egiten dituzten eta lurralde horretan jarduera egitearen ondorioz zerga betebeharrak dituzten pertsonak edo entitateak.

c) Artikulu honetan jasotako beharkizunetako bat bera ere betetzen ez duten eta ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan duten pertsonak edo entitateak, errenten esleipen araubidean dauden entitateetako bazkide, oinordeko, komunero edo partaide direnean, baldin eta entitate horiek zerga helbidea Gipuzkoatik kanpo badute eta jarduera enpresarial edo profesionalak egiten badituzte.

## 6. artikulua. Batasun barruko operadoreen erregistroa.

Batasun barruko operadoreen erregistroan sartuko dira erregelamendu honek 32. artikuluan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako arautzen duen identifikazio fiskaleko zenbakia esleitua duten pertsonak edo entitateak, ondoren aipatzen diren kasu hauetako batean daudenean:

a) Batasun barruko ondasun entregak edo eskurapenak egin behar dituzten pertsona edo entitateak, eragiketa horiek zerga horri lotuta daudenean.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 14. artikuluan aipatutako pertsonak edo entitateak, zergari lotuta dauden batasun barruko ondasun eskurapenak egin behar dituztenean. Horrelakoetan, erregistro honetan sartzeak berekin ekarriko du pertsona edo entitate eskatzaileari zuzenean ematea erregelamendu honek 32. artikuluan araututako identifikazio fiskaleko zenbakia.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 14. artikuluan aipatutako pertsonak edo entitateak batasun barruko operadoreen erregistrotik kanpo gelditzeak berekin ekarriko du, baldin eta haiek egiten dituzten batasun barruko ondasun eskurapenak artikulu horretan jasotakoari jarraituz zergari lotu gabe badaude, erregelamendu honek 32. artikuluan araututako berariazko identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetuko zaie zuzenean.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean finkaturik ez dauden enpresari edo profesionalengandik zerbitzuak jasotzen dituzten enpresariak edo profesionalak, zerbitzu horiei dagokienez subjektu pasibo direnean.

---

[2] Letra hau artikulu bakarraren bi apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

d) Zerbitzuak ematen dituzten enpresariak edo profesionalak, baldin eta, lokalizazio erregelen arabera, zerbitzu horiek beste estatu kide batean egindakotzat hartzen badira, subjektu pasiboa haien hartzailea denean.

### 7. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroa.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan sartuko dira 1992ko abenduren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak (hemendik aurrera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua) 30. artikuluan arautako itzulketa prozedurarako eskubidea duten enpresariak edo profesionalak.

### 8. artikulua. Fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroa.

Fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroan sartuko dira Zerga Berezien Erregelamenduari buruzko uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 40. artikuluan aipatutako pertsonak eta establezimenduak. Erregelamendu horretan ezarritakoaren arabera arautuko da erregistroa, eta, bertan jasota ez dagoen guztian, erregelamendu honetan zentsu betebeharrei buruz jasotzen diren xedapenak aplikatuko dira.

### 9. artikulua. Enpresen aldi baterako batasunen erregistro berezia.

**1.**[3] Aldi baterako enpresa elkarteen erregistro berezia Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak VI. tituluaren III. kapituluan jasotako araubide berezia aplikatzea aukeratzen duten aldi baterako enpresa elkarteek osatuko dute, hain zuzen ere, enpresen elkarte eta aldi baterako batasunen eta eskualdeko industria garapenerako sozietateen zerga araubideari buruzko maiatzaren 26ko 18/1982 Legeak III. tituluan aipatutakoek. Erregistroa arautzeko, aplikagarriak izango dira aipatutako legea eta foru araua, artikulu hau berau, eta haietan xedatuta ez dagoen guztian, betebehar zentsalei dagokienez erregelamendu honetan ezarritako xedapenak.

**2.** Erregistro horretan alta, aldaketa eta baja egitekotan, Zerga Administrazioari hala komunikatu behar zaio.

**3.** Aurretik jasotakoa jasota ere, enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan baja emateko eskaera aurkezteak berekin ekarriko ditu, enpresen aldi baterako batasunen erregistro berezian sartutako zergapekoentzat, zergapeko horiei dagokienez erregistro horretan baja eskatzearen ondorio berberak.

## *2. sekzioa. Zerga alorreko errolden edukia.*

---

[3] Apartatu hau artikulu bakarraren hiru apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

*1. azpisekzioa. Zergapekoen erroldaren edukia.*

## 10. artikulua. Zergapekoen erroldaren edukia.

**1.** Pertsona fisikoen kasuan, honako datu hauek jasoko dira zergapekoen erroldan:

a) Izen-deiturak, sexua, jaioteguna, egoera zibila eta egoera zibilaren data.

b) Espainiako identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Beste herrialde batzuetako identifikazio fiskaleko zenbakia, halakorik bada, egoiliarrentzat.

d) Egoitzako estatuan emandako identifikazio fiskaleko kodea, halakorik bada, ez-egoiliarrentzat.

e) Pasaportearen zenbakia, halakorik bada.

f) Lurralde espainiarrean egoiliar edo ez-egoiliar izatea.

g) Espainian duen zerga helbidea, eta ondasun higiezinaren erreferentzia katastrala eta finka zenbakia, salbu eta, aplikagarri zaion araudiari jarraituz, horretara behartuta ez badago.

h) Atzerriko helbidea, halakorik badu.

i) Zerga alorrean jarduteko gaitasunik ez duten pertsonen kasuan, legezko ordezkarien izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

**2.** Pertsona juridikoen eta gainerako entitateen kasuan, honako datu hauek jasoko dira zergapekoen erroldan:

a) Sozietate izena edo izendapen osoa.

b) Espainiako identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Beste herrialde batzuetako identifikazio fiskaleko zenbakia, halakorik bada, egoiliarrentzat.

d) Egoitzako estatuaren identifikazio fiskaleko kodea, halakorik bada, ez-egoiliarrentzat.

e) Pertsona juridikoa edo entitatea lurralde espainiarrean egoiliar edo ez-egoiliar izatea.

f) Espainian edo atzerrian eratu izana. Azken kasu horretan, zein herrialdetan eratu den jasoko da.

g) Noiz eratu den entitatea edo pertsona juridikoa, eta baldin badago, zein egunetan hartu den borondateen akordioa, erregelamendu honek 31. artikuluaren 2. apartatuan aipatua, eta noiz inskribatu duten erregistro publikoan.

h) Eraketaren kapital soziala.

i) Espainian duen zerga helbidea, eta ondasun higiezinaren erreferentzia katastrala eta finka zenbakia, salbu eta, aplikagarri zaion araudiari jarraituz, horretara behartuta ez badago.

j) Atzerriko helbidea, halakorik badu.

k) Legezko ordezkarien izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

l) Aitorpen batean adierazi beharko da entitatea berariaz eratu dela partaidetzak, akzioak eta funts propioen gainerako tituluak gerora hirugarrengoei eskualdatzeko asmoz, eta eskualdaketa hori egin bitartean ez duela egingo batere jarduera ekonomikorik.

Une hori iritsi arte, entitate hauek ez dira sartuko erregelamendu honetako 6., 7. eta 8. artikuluetan aipatutako erregistroetan.

*2. azpisekzioa. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldaren edukia eta beste errolda batzuena.*

### 11. artikulua. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldaren edukia.

Aurreko artikuluan aipatutako datuez gain, enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan honako informazio hau ere jasoko da pertsona edo entitate bakoitzeko:

a) Bere jarduera enpresarial edo profesionalengatik nahiz atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak ordaintzeagatik aldian behin aurkeztu behar dituen aitorpenak edo autolikidazioak.

b) Bere zerga egoera honako gai hauek direla-eta:

1.[4] Sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako entitate salbuetsia edo partzialki salbuetsia izatea, urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Sozietateen Gaineko Zergaren 12. artikuluan edo, beste lurralde historikoetako nahiz lurralde erkideko araudiaren artikulu baterakorretan, xedatutakoaren arabera.

---

[4] Zenbaki hau ekainaren 28ko 13/2016 FORU DEKRETUAren 2.artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak hainbat erregelamendu aldatzen ditu zerga baterakuntzaren araubide berrira egokitzeko. Aldaketa 2016ko uztailaren 9an sartzen da indarrean (2016/07/08ko GAO).

Era berean, zerga baterakuntzaren araubide berezia aplikatzen bada, erroldan aplikazio hori jasoko da, bai eta adierazi ere, sozietatea entitate ordezkaria, nagusia edo menpekoa dela sozietateen gaineko zergaren araudiari jarraituz.

2.- 2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, II. tituluan jasotako zerga araubide berezia aukeratzea edo horri uko egitea.

3.-[5] Zein modalitate aplikatzen duen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko.

Jasota utziko da, baita ere, zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aukeratu den, aukera hori bertan behera utzi den edo modalitate horretatik kanpo geratu den.

4.- Zergapekoak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide orokorra edo araubide berezietako bat aplikatzea, eta, bereziki, araubide erraztuan edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezian edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kutxa irizpidearen araubide berezian sartuta egotea, horri uko egitea, ukoan atzera egitea edo horretatik baztertzea.

5.- Batasun barruko operadoreen erregistroan sartzea edo baja hartzea.

6.- Izena ematea edo baja hartzea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 30. artikuluan aipatutako hileko itzulketen erregistroan.

7.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ondorioetarako ezarritako kodeen arabera egiten diren jarduera ekonomikoen sailkapena, jarduera nagusia zein den bereizita.

8.- Jarduera ekonomikoak egiteko erabiltzen diren establezimendu edo lokalen zerrenda, hala badagokio, bakoitzeko honako datuok adierazita: helbide osoa, udalerria, erreferentzia katastrala eta finka zenbakia. Haien azalera ere zehaztuko da, bai eta egindako jarduerekiko duten atxikipen maila ere, osoa zein partziala.

9.- Pertsona edo entitatea Gipuzkoako araudiari egotea lotuta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, Sozietateen gaineko Zergan edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan.

c)[6] Telefono zenbakia, helbide elektronikoa, eta, izanez gero, jarduerak egiteko erabiltzen duen Interneteko domeinu-izena edo helbidea.

---

[5] 3. zenbaki hau urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUAK aldatu du, amaierako lehen xedapenaren 1. apartatuaren bidez. Aipatutako fou dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen du. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

[6] Letra hau artikulu bakarraren lau apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

**12. artikulua. Espainian egoiliar diren pertsona fisikoei buruz enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan jaso beharreko informazio osagarria.**

Espainian egoiliar diren pertsona fisikoei dagokienez, enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan, zerga helbidea jasotzeaz gainera, adierazi beharko da zer tokitan duten benetan zentralizatua lurralde espainiarrean kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza, toki hori zerga helbidea ez denean.

**13. artikulua. Espainian egoiliar diren edo eratuta dauden entitateei buruz enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan jaso beharreko informazio osagarria.**

Espainian egoiliar diren edo bertan eratuta dauden entitateei dagokienez, honako beste datu hauek jasoko dira enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan:

a) Helbide soziala, baldin badago eta zerga helbidea ez bada, eta ondasun higiezinaren erreferentzia katastrala eta finka zenbakia.

b) Ekitaldi ekonomikoa ixten den eguna.

c) Izaera juridikoa edo entitate mota.

d) Entitatea sortu duten edo sustatzaile izan diren bazkide, kide edo partaide guztien izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga helbidea. Datu horiek berberak jasoko dira, salbu jabetza horizontaleko araubidean eratutako jabe komunitateak diren entitateentzat, Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako entitateetan une bakoitzean kide edo partaide den bakoitzarentzat ere, partaidetza kuota eta esleipen kuota adierazita, horiek bat etorri ezean. Bazkideak, kideak edo partaideak ez badira Espainian egoiliarrak, euren zerga helbidea jasoko da, bai eta Espainian duten ordezkari fiskalaren identifikazioa ere, halakorik badute.

**14. artikulua. Espainian egoitzarik edo establezimendurik ez duten pertsona edo entitateei buruz nahiz bertan ez eratutakoei buruz enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan jaso beharreko informazio osagarria.**

**1.** Pertsona edo entitate ez-egoiliarrak edo establezimendurik gabekoak nahiz Espainian ez eratutakoak enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan sartzekoak direnean, beraiei buruz honako beste datu hauek jasoko dira errolda horretan:

a) Zer estatu edo lurraldetan duten egoitza.

b) Nazionalitatea, eta izaera juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko entitate mota, beren zuzenbide nazionalaren arabera.

c) Gipuzkoan ordezkaririk badute, horren izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga helbidea.

**2.**[7] Pertsona edo entitate ez-egoiliar batek establezimendu iraunkor bat edo gehiago erabiltzen badu lurralde espainiarrean jarduteko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen maiatzaren 17ko 11/2016 Foru Dekretuak 2. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta establezimendu horiek egiten dituzten jarduerak argi eta garbi desberdindu badaitezke eta aparte kudeatzen badira, establezimendu bakoitza banaka inskribatu beharko da Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan, pertsona edo entitate egoiliarrentzat ezarritako datu berdinekin eta baldintza berdinetan. Gainera, establezimendu bakoitzak identifikatu behar du zer pertsona edo entitate ez-egoiliarren mende dagoen, eta hari buruzko datuak ere jakinarazi behar ditu, aurreko apartatuan aipatutakoak.

Establezimendu iraunkor bakoitza izendapen espezifiko batekin identifikatuko da, eta ezinbestekoa izango da identifikazio horretan datu hauek agertzea beti: nagusi duen pertsona edo entitate ez-egoiliarra, identifikazio fiskaleko zenbaki propio bat, azken horri esleitutakoarekiko independente izan behar duena, eta establezimendu iraunkorra kokatuta dagoen ondasun higiezinaren erreferentzia katastrala eta finka zenbakia.

Era berean, zehaztu beharko da zer modutan zehazten den Espainian eratutako establezimendu iraunkor bakoitzaren zerga oinarria, abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 18. artikuluan xedatutakoarekin bat.

**3.** Pertsona edo entitate ez-egoiliar batek lurralde espainiarrean jarduten badu bai berak zuzenean eta bai establezimendu iraunkor bat edo gehiago erabilita, pertsona edo entitate ez-egoiliarra eta bere establezimendu iraunkor guztiak inskribatu beharko dira enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan.

Inskripzio horietan guztietan, titulu honetan exijitzen diren datu orokorrak jasotzeaz gainera, pertsona edo entitate ez-egoiliarri buruzkoak ere jakinaraziko dira, hain zuzen ere artikulu honen 1. apartatuan aipatutakoak.

Era berean, establezimendu iraunkor bakoitzak bere burua identifikatuko du, eta zer motatako establezimendua duen ere adieraziko du artikulu honen aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera. Ondasun higiezinaren erreferentzia katastrala eta finka zenbakia ere aipatuko dira.

[7] Apartatu hau artikulu bakarraren bost apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

**4.**[8] Errentak esleitzen dituzten entitateen kasuan, horiek lurralde espainiarrean badaude abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen erroldan jaso beharko dira entitateko kide edo partaide bakoitzaren izen-abizenak edo sozietate izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga helbidea eta herritartasuna, haien partaidetza kuota eta egozpen portzentajea ere adierazita.

# III. KAPITULUA. Zentsu aitorpenak

## 15. artikulua. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan alta eman izanaren aitorpena.

**1.** Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan izena emanda egoteko, erroldan alta hartzeko aitorpena aurkeztu behar da.

**2.** Alta aitorpenaren ereduaren bidez, erregelamendu honetako 10.etik 14.era bitarteko artikuluetan, biak barne, aipatutako datuak eskatu ahal izango dira.

**3.** Honexetarako erabiliko da alta aitorpena:

a) Behin-behineko edo behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko, nahiz eta eskaera egiten duen pertsona juridikoak edo entitateak ez izan zertan aurkeztu alta aitorpenik enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan, aurreko 1. apartatuan xedatutakoaren ondorioz. Identifikazioa fiskaleko zenbakia interesatuak eskatuta zein ofizioz emateak berekin ekarriko du delako pertsona edo entitatea zuzenean sartzea zergapekoen erroldan.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergan araubide orokorra edo araubide berezietako bat aplikatuko dela jakinarazteko.

c)[9] Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aukeratzeko, balio erantsiaren gaineko zergan kutxa-irizpidearen araubide berezia hautatzeko, edo balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari uko egiteko.

d) Jardueraren xede diren ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak zer unetan hasiko diren ohikotasunez egiten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako jakinarazteko, hau da, jarduera enpresarial edo profesionalean

---

[8] Apartatu hau artikulu bakarraren bost apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

[9] c) letra hau urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUAK aldatu du, amaierako lehen xedapenaren 2 apartatuaren bidez. Aipatutako fou dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen du. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

erabiliko diren ondasun edo zerbitzuak eskuratu edo inportatzeari ekin ondoren hasiko diren adierazteko.

e) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 111. artikuluaren 2. apartatuan aipatutako kenkariaren behin-behineko portzentajea proposatzeko.

f)[10] Ondasun erabilien, artelanen, zaharkinen eta bildumagaien araubide berezian zerga oinarria zehazteari begira, mozkin osoaren marjina hautatzeko, hain zuzen ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 137. artikuluaren bigarren apartatuan aipatutakoa.

g) Batasun barruko operadoreen erregistroan sartzea eskatzeko.

h) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 68. artikuluaren 4. apartatuan aipatutako ondasun entregak Balio Erantsiaren gaineko Zergari ez lotzea aukeratzeko.

i) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 68. artikuluaren 3. eta 5. apartatuetan aipatutako ondasun entregak Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuko direla jakinarazteko, betiere aitortzailea jadanik erroldan erregistratuta ez badago.

j) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 103. artikuluaren 2.1 apartatuan jasotako hainbanaketa erregela berezia Balio Erantsiaren gaineko Zergan aplikatzea aukeratzeko.

k) Zerga Administrazioari jakinarazteko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazio aldia aldatu egin dela Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuko 121. artikuluan jasotakoari jarraikiz kalkulatutako eragiketa bolumena dela-eta.

l) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzea eskatzeko.

m)[11] Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren konturako sarrerak eta atxikipenak autolikidatzeko likidazio-aldia jakinarazteko, dela eragiketa bolumenagatik, dela azken onartutako aurrekontuaren zenbatekoarengatik –azken kasu horretan, atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak herri administrazioak direnean, Gizarte Segurantza barne–, hori guztia urriaren 14ko

---

[10] Letra hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren 1. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/05/29ko GAO).

[11] m) letra hau urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUAK aldatu du, amaierako lehen xedapenaren 2. apartatuaren bidez. Aipatutako fou dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen du. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

33/2014 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 120.1 artikuluan jasotakoaren arabera.

n)[12] Establezimendu iraunkorrentzat aurreikusita dagoen araubide orokorra aplikatzea aukeratzeko, abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 18.5.b) artikuluan ezartzen dituen baldintzetan, establezimendu horiek Gipuzkoan egiten duten jarduera honako hauetako bat denean: 6 hilabetetik gora irauten duten eraikuntza, instalazio edo muntaketa lanak, denboraldiko edo sasoiko jarduera edo ustiaketa ekonomikoak, edo natur baliabideen miaketa lanak.

ñ) 2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, II. tituluan jasotako zerga araubide berezia aukeratzeko.

o)[13] Jakitun jartzeko interesduna ondasunen enpresaburu edo profesional birsaltzaile dela, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 84.Bat.2.g) artikuluan jasotakoaren arabera.

p)[14] Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 167.Bi artikuluan aipatzen diren eragiketetan –Aduanak likidatutako inportazioetan– sortutako BEZaren ordainketa geroratzea aukeratzeko.

q)[15] Ekitaldi sozialaren itxiera data.

r)[16] Zentsuarekin lotuta zerga alorreko arauetan aurreikusita dauden edo Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabaki ditzakeen bestelako gertaera eta zirkunstantzien berri emateko.

---

[12] Letra hau artikulu bakarraren sei apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

[13] Letra hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren 1. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/05/29ko GAO).

[14] Letra hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren 1. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/05/29ko GAO).

[15] Letra honen edukia abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren 1. artikuluko bi apartatuak berrizendatzen du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/05/29ko GAO).

[16] Letra honen edukia abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren 1. artikuluko bi apartatuak berrizendatzen du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/05/29ko GAO).

s)[17] Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramatea aukeratzeko, erregelamendu honen 36. artikuluko 5. apartatuan jasotakoari jarraituz.

t)[18] Adierazteko ezen, erregelamendu honen 36. artikuluko 5. apartatuan aipatzen diren pertsona eta entitateen kasuan, faktura egiteko obligazioa eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek betetzea aukeratzen dela, fakturazio obligazioen Erregelamenduak, otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutak, 5. artikuluaren 1. apartatuan ezarritakoarekin bat.

**4.** Aitorpen hau jarduerak hasi aurretik aurkeztu behar da, edo, bestela, eragiketak hasi aurretik, ordaintzen, abonatzen edo zor diren errenten gainean atxikitzeko edo kontura sartzeko betebeharra sortu aurretik, edo artikulu honetan aurreikusitako zirkunstantziak gertatu aurretik.

Titulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da jarduera enpresarial edo profesional bat hasita dagoela ondasun edo zerbitzuen edozein entrega, prestazio edo eskurapen egiten denetik, kobrantzak edo ordainketak egiten direnetik, edo pertsonal laborala kontratatzen denetik aurrera, betiere ondasun eta zerbitzuen produkzio edo banaketan esku hartzeko.

## 16. artikulua. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan aldaketa egin izanaren aitorpena.

**1.** Alta aitorpenean edo horren ondorengo aldaketa aitorpen batean adierazitako datuak aldatzen badira, zergapekoak aldaketaren berri eman beharko dio Zerga Administrazioari, behar den aitorpena aurkeztuta.

**2.** Honexetarako erabiliko da, bereziki, aitorpen hau:

a)[19] Pertsona juridikoek eta gainerako entitateek, eta, orobat, Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan sartutako pertsona fisikoek, zerga helbidearen aldaketa jakinarazteko, Zergen Foru Arau Orokorraren 48. artikuluan jasotakoaren arabera.

---

[17] Letra hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

[18] Letra hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

[19] Letra hau artikulu bakarraren zazpi apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

b) Erregelamendu honek 10.etik 15.era bitarteko artikuluetan, biak barne, jasotako datuak eta zerga egoerak aldatu izanaren berri emateko.

c) Jarduera enpresarial edo profesionalei dagozkien ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi direla jakinarazteko, betiere alta aitorpenean adierazita utzi bada ondasun entrega edo zerbitzu prestazio horiek jardueran erabiltzekoak diren ondasun edo zerbitzuak eskuratu edo inportatzeari ekin ondoren hasiko zirela.

Era berean, aldaketako aitorpena baliagarria izango da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako sektore desberdindu bat osatzen duen jarduera bati lotutako ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak ohiz egiten hasi izana komunikatzeko, aurretik zentsu aitorpen bat aurkeztu denean eta horren bidez komunikatzen denean jarduera berri horri lotutako ondasun entregek eta zerbitzu prestazioek hari lotutako ondasun edo zerbitzuen eskurapena edo inportazioa hasi ondoren izango luketela hasiera.

d)[20] Ondasun erabilien, artelanen, zaharkinen eta bildumagaien araubide berezian zerga oinarria zehazteari begira, mozkin osoaren marjina hautatzeko, hain zuzen ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 137. artikuluaren bigarren apartatuan aipatutakoa.

e) Batasun barruko operadoreen erregistroan sartzea eskatzeko, betiere erregelamendu honetako 6. artikuluan exijitutako zirkunstantziak gertatzear daudenean, behin altako aitorpen zentsala aurkeztu ondoren.

Era berean, aldaketako zentsu aitorpen bat aurkeztu beharko dute enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan bajarik sortu gabe Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako jarduerak egiteari uzten dioten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek eta, orobat, aurreko 12 hilabeteetan Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako batasun barruko entrega edo eskurapenik egin ez duten edo erregelamendu honek 6. artikuluaren c) eta d) letretan aipatutako zerbitzuak eman edo jaso ez dituzten pertsona edo entitateek. Zentsu aitorpen hartan, batasun barruko operadoreen erregistroan baja eskatu beharko dute.

f) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 68. artikuluaren 4. apartatuan aipatutako ondasun entregak Balio Erantsiaren gaineko Zergari ez lotzea aukeratzeko.

g) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 68. artikuluaren 3. eta 4. apartatuetan aipatutako ondasun entregak Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuko direla jakinarazteko.

---

[20] Letra hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren 1. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/05/29ko GAO).

h)[21] Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aukeratzeko, apartatu honetako d), e), f), o) eta p) letretan eta erregelamendu honen 15. artikuluko 3. apartatuaren f), h), p), s) eta t) letretan aipatzen diren aukera edo eskaeretan atzera egiteko, eta, orobat, apartatu honetako g) letran eta 15. artikuluaren 3. apartatuko i) eta o) letretan aipatzen diren egoeretan izandako aldaketak jakinarazteko.

i) Jarduera enpresarial edo profesionaletan jada jarduteagatik dagoeneko enpresari edo profesional izaera duten pertsona edo entitateek beste jarduera enpresarial edo profesional bat hasten badute, hain zuzen ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako aurreko jarduerekiko sektore desberdindu bat eratzen duena edo ez, Administrazioari horren berri emateko erabiliko dute aldaketako aitorpena, egoera hauetako batean badaude:

1.- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 103. artikuluaren 2. apartatuko 1. zenbakian artikuluan aipatutako hainbanaketa bereziaren erregelaren aplikazioa aukeratzea.

2.- Sektore desberdindua osatzen duen jarduera bat hasten denean, jarduera berriari dagozkion ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hastea jarduera horretan erabiliko diren ondasun edo zerbitzuak eskuratzen edo inportatzen hasi ondoren, eta, horregatik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 111., 112. eta 113. artikuluetan jasotako kenkari araubidea aplikagarria izatea. Kasu horretan, aitorpenean adieraziko da, baita ere, zein den kenkarirako proposatzen den behin-behineko portzentajea, aipatutako 111. artikuluaren 2. apartatuan aipatzen dena.

j) Hileko itzulketan erregistroan inskribatzea nahiz erregistro horretan baja ematea eskatzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 30. artikuluan jasotakoaren arabera.

k) Zerga Administrazioari jakinarazteko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazio aldia aldatu dela Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuko 121. artikuluan jasotakoari jarraikiz kalkulatutako eragiketa bolumena dela-eta.

l)[22] Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren konturako sarrerak eta atxikipenak autolikidatzeko likidazio-aldia aldatu dela zerga Administrazioari jakinarazteko, dela eragiketa bolumenagatik, dela azken onartutako aurrekontuaren zenbatekoarengatik –azken kasu horretan, atxikitzaileak edo

---

[21] Letra hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

[22] l) letra hau urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUAK aldatu du, amaierako lehen xedapenaren 3. apartatuaren bidez. Aipatutako fou dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen du. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

kontura sartzera behartutakoak herri administrazioak direnean, Gizarte Segurantza barne–, hori guztia urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 120.1 artikuluan jasotakoaren arabera.

m) Zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzeari uko egiteko, talde fiskalek araubide hori aukeratu badute.

n) 2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, II. tituluan jasotako zerga araubide berezia aukeratzeko edo hari uko egiteko.

ñ) Ekitaldi sozialaren itxiera data aldatzeko.

o)[23] Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoi tza elektronikoaren bidez eramatea aukeratzeko, erregelamendu honen 36. artikuluko 5. apartatuan jasotakoari jarraituz.

p)[24] Adierazteko ezen, erregelamendu honen 36. artikuluko 5. apartatuan aipatzen diren pertsona eta entitateen kasuan, faktura egiteko obligazioa eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek betetzea aukeratzen dela, fakturazio obligazioen Erregelamenduak, otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 5. artikuluaren 1. apartatuan ezarritakoarekin bat.

q)[25] Zentsuarekin lotuta zerga arauetan aurreikusita dauden edo Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabaki ditzakeen bestelako gertaera eta zirkunstantzien berri emateko.

**3.** Erroldan ageri diren datuak Zerga Administrazioak bultzatuta aldatu badira, aitorpen hau ez da beharrezkoa izango da.

**4.** Aitorpena hilabeteko epean aurkeztuko da, hura aurkeztera behartu duten zirkunstantziak gertatu eta biharamunetik aurrera. Salbuespen hauek egongo dira:

---

[23] Letra hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

[24] Letra hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

[25] Letra honen edukia o) izatetik q) letra izatera pasatu da ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bi apartatuak aldatu eta gero. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

a) Zerga bakoitzaren araudiak edo aplikatzen den araubide fiskalarenak berariazko epeak ezartzen dituenean. Horrelakoetan, epe horien barruan aurkeztuko da aitorpena.

b) Artikulu honen 2. apartatuko i) letraren 2. puntuan aipatutako aitorpenak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako aurreko jarduerekiko sektore desberdindua eratuko duen jarduera enpresarial berria hasi aurretik aurkeztuko dira.

c) Artikulu honen 2. apartatuko k) eta l) letretan aipatutako komunikazioa epe orokorraren barruan egingo da, eta betiere Zerga Administrazioari jakinarazitako aldaketak eragindako aldizkako lehen aitorpena, edo aldaketarik izan ez balitz aurkeztu beharko zen aldizkako lehen aitorpena, aurkezteko epea amaitu baino lehen.

d) Artikulu honen 2. apartatuko e) letraren lehen paragrafoan aipatutako eskaera erregelamendu honek 6. artikuluan jasotako zirkunstantziak gertatu aurretik aurkeztuko da.

e) Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak, kasuan kasuko zirkunstantziak aintzat hartuta, epe berezi bat ezartzen duenean.

### 17. artikulua. Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan baja eman izanaren aitorpena.

**1.** Edozein motatako jarduera enpresarial edo profesionaletan aritzeari uzten diotenek edo, enpresaria edo profesionala izan gabe, atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako etekinak ordaintzeari uzten diotenek behar den aitorpena aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, zirkunstantzia horren berri emateko, enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan baja hartzearren.

Era berean, jarduera enpresarial edo profesionalik egiten ez duten pertsona juridikoek aitorpen hau aurkeztu beharko dute, batasun barruko operadoreen erregistroan baja emateko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 14. artikuluan ezarritakoaren arabera beren batasun barruko ondasun eskurapenak zergari lotu behar ez direnean.

**2.** Baja aitorpena hilabeteko epean aurkeztuko da, artikulu honen 1. apartatuan aurreikusitako baldintzak betetzen direnetik aurrera, pertsona edo entitateari berez dagozkion aitorpenak aurkeztea eta bestelako zerga obligazioak betetzea eragotzi gabe, hori egiteko ez baita beharrezkoa erroldan alta emanda egotea.

**3.** Sozietate edo entitate bat desegiten bada, baja aitorpena hilabeteko epean aurkeztuko da, dagozkion idazpenak, baleude, Merkataritza Erregistroan deuseztatzen direnetik aurrera.

Horrelako idazpenik ez badago, Zerga Administrazioak baja eskaera jakinaraziko dio Merkataritza Erregistroari, entitatearen erregistro orri bazterreko ohar bat egin dezan. Hortik aurrerakoetan, entitate horri buruz zeinahi egintza aurkezten bada

erregistroan inskribatzeko, Erregistroak haren berri emango dio Zerga Administrazioari.

Era berean, Zerga Administrazioak baldin badaki, datu nahikoak dituelako, entitate batek bere jarduera utzi duela, Merkataritza Erregistroari jakinaraziko dio aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorio berdinak izango dituen orri bazterreko ohar bat ofizioz egin dezan.

**4.** Zergapekoa hiltzen bada, oinordekoek sei hilabeteko epean aurkeztu beharko dute baja aitorpena, heriotza egunetik aurrera kontatuta. Beste bi obligazio ere izango dituzte, epe horren barruan betetzekoak: hirugarrengoekin indarrean jarraitzen duten eskubide eta obligazio tributario guztien titularitatean izandako aldaketak jakinaraztea, eta, behar izanez gero, bidezko alta aitorpena edo aitorpenak aurkeztea.

**18. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia jasotzen duten entitateen berezitasunak zergapekoen erroldan alta hartzen dutenean eta datuak aldatzen dituztenean.**

**1.** Entitate bati erregelamendu honetako 31. artikuluan aurreikusitako behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia emateak berekin ekarriko du zergapekoen erroldan alta emanda gelditzea, eta, erregelamendu honen 5. artikuluan jasotako zirkunstantziak gertatuz gero, enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan ere bai.

**2.** Entitateak erroldan alta hartu ondoren gertatzen diren aldaketak, barruan sartuta jardueraren hasierari buruzkoak, bertako bazkide, pertsona edo entitateen helbide edo identitateari buruzkoak eta haien identifikazio fiskaleko zenbakiari dagozkionak, erregelamendu honetako 16. artikuluan araututako aldaketa aitorpenaren bitartez jakinaraziko dira. Hala ere, entitateetako bazkide, kide edo partaideak dagokien erregistroan behin inskribatuta badaude eta behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia lortu badute, ez da beharrezkoa izango haiei buruzko aldaketak jakinaraztea.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, nortasun juridikorik gabeko entitateek nahitaez jakinarazi beharko dituzte beren bazkide, komunero edo partaideei buruzko aldaketak, nahiz eta horiek behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia eskuratuta izan. Obligazio hori ez dute bete beharko, jabetza horizontaleko araubidean eratutako jabe komunitateen izaera dutenean, nahiz eta enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan sartuta egon.

Era berean, erregelamendu honetako 10. artikuluaren 2. apartatuko l) letran aipatutako entitateek hilabeteko epea izango dute, eskualdaketa formalizatzen den egunetik aurrera, aurreko aitorpenetan adierazitako datuak zertan aldatu diren jakinarazteko, bazkide, kide edo partaideei dagozkien datuak ere barne.

**3.** Sartutako aldaketak direla-eta aldaketako aitorpena aurkeztu behar bada, pertsona juridikoek edo nortasunik gabeko entitateek ordura arte indarrean izandako eskriturak edo agiriak aldatzen dituzten dokumentuen kopia aurkeztu

beharko dute, eta horretarako, hilabeteko epea izango dute dagokion erregistroan inskribatzen direnetik aurrera edo, inskripzioaren beharrik izan ez bada, agiriak ematen direnetik aurrera.

### 19. artikulua. Aitorpen eredua, eta aurkezpen modua eta tokia.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakiko du non, nola, zer epe eta eredutan aurkeztu behar diren erregelamendu honek 15., 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitako alta, aldaketa eta bajako zentsu aitorpenak, non eta epea ez den erregelamendu honetan ezartzen.

### 20. artikulua. Beste zentsu aitorpen batzuk baztertzea.

**1.** Kapitulu honetan aipatutako aitorpenak aurkezteak Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta dauden jarduera ekonomikoen hasiera, aldaketa edo amaierako aitorpenak aurkezteak dituen ondorio berdinak izango ditu.

**2.** Era berean, zentsu aitorpen hauek aurkezten badira, ez da aurkeztu beharko Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako aurreikusitako entitateen aurkibidean alta hartu izanaren agiria.

**3.** Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan baja hartzeko eskaera aurkezteak berekin ekarriko ditu, 1995eko uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onartutako Zerga Berezien Erregelamenduak 40. artikuluan jasotako fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroan sartuta dauden zergapekoentzat, horien titularitzapean dauden establezimenduei edo jarduerei dagokienez fabrikazio zerga berezien lurralde erregistro horretan baja hartzeko eskaeraren ondorio berberak.

**4.** Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldako baja aurkeztuz gero, gainera, ez da zertan aurkeztu Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren baja aitorpen espezifikoak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaio aplikatuko etxebizitzak errentan emateko jarduerari, pertsona fisikoek egiten dutenean. Izan ere, horrelakoetan baja eskatu beharko da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren berariazko erroldan, eta horrek beti ekarriko du 1991ko azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituenak, 5. artikuluan aipatutako baja aitorpena aurkeztu behar izatea.

## IV. KAPITULUA. Errolden kudeaketako jarduketak

### 21. artikulua. Zentsu aitorpenen kudeaketa.

Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokio erregelamendu honetako 3. artikuluan aipatutako erroldak eta erregistroak sortzea eta mantentzea. Horretarako, erregelamendu honetako 76., 77., 78. eta 80. artikuluetan jasotakoaren arabera egin ahal izango ditu altak, aldaketak eta bajak.

### 22. artikulua. Erroldetan ageri diren datuak eskuratzea.

**1.** Zergapekoen erroldan sartuta dauden pertsona edo entitateek eskubidea dute titulu honetan aipatu eta haiei buruz erroldan jasotzen diren datuak ezagutzeko, eta, horretarako, bidezko ziurtagiria emateko eskatu ahal izango dute. Aurrekoa hala izanik ere, Zergen Foru Arau Orokorrak 92. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie datu horiei.

**2.** Zergapekoek euren datuak zuzendu edo deuseztatzeko eskubidea dute, eta bereziki, datuak okerrak direnean edo osatu gabe daudenean, datu pertsonalak babesteari buruzko legerian jasotakoaren arabera.

## III. TITULUA
## ZERGA HELBIDEAREN ALDAKETARI BURUZKO BETEBEHARRAK

### 23. artikulua. Zerga helbidearen aldaketa.

**1.** Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan agertu behar duten pertsona fisikoek eta, orobat, pertsona juridikoek eta gainerako entitateek zerga helbidearen aldaketa jakinarazteko obligazioa dute, hala ezarri baitu Zergen Foru Arau Orokorrak 48. artikuluan. Horretarako, eta hilabeteko epean, aldaketa gertatzen den unetik aurrera, erregelamendu honek 16. artikuluan aipatutako aldaketako zentsu aitorpena aurkeztuko dute.

**2.** Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan agertu behar ez duten pertsona fisikoen kasuan, hiru hilabeteko epean jakinarazi beharko da zerga helbidearen aldaketa, hura aldatzen denetik aurrera kontatuta. Onartzen den aitorpen eredua erabiliko da horretarako.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, epe hori amaitu aurretik gertatzen bada amaitu dela helbidea aldatu ondoren zergapekoak bere zerga ordainketagatik egin beharreko autolikidazioa aurkezteko epea, komunikazio hori autolikidazio ereduan egin beharko da, betiere lehendik egin ez bada.

**3.** Zergen Foru Arau Orokorrak 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga helbide berriaren jakinarazpenak bera aurkezten denetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Dena den, ondorio horiek aurrekoak izan daitezke, zergapekoak modu sinesgarri batean frogatzen badu edo Zerga Administrazioak egiaztapen prozedura batez baieztatzen badu.

**4.** Helbide berria jakinarazi baino lehen edozein motatako prozedura ofizioz hasita badago, jakinarazpen horrek aurkezpenaren ondorengo hilabetean sortuko ditu ondorioak, non eta epe horretan Zerga Administrazioak ez duen prozedura bat irekitzen zerga helbidea beste zerga administrazio bat duen lurralde batera aldatzea egokia dela egiaztatzeko. Kasu horretan, jakinarazpen hori baino lehen

ofizioz hasitako prozedura guztiek aurrera egingo dute eta haien tramitazioaz arduratzen den organoak amaituko ditu, helbidearen aldaketa egiaztatzeko espedientea ebazten ez den bitartean. Dena den, aurrekoa ez da oztopo izango Zerga Administrazioak zergadunaren zerga helbidea egiaztatzeko prozedura bat beste edozein unetan ireki dezan.

# IV. TITULUA
# IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIARI BURUZKO BETEBEHARRAK

## I. KAPITULUA. Arau orokorrak

### 24. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia izateko betebeharra, eta hura frogatzeko modua.

**1.** Pertsona fisiko eta juridiko guztiek, eta, orobat, Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako zergapekoek identifikazio fiskaleko zenbaki bat izango dute, zerga izaerakoak diren edo zerga alorrean eragina duten harremanetarako.

Besteak beste, beste hauek ere izango dute horrelakoa:

a) Jabetza horizontaleko araubidean dauden jabeen komunitateak.

b) Pentsio funtsak, inbertsio funtsak eta kapital arriskuko funtsak.

c) Interes ekonomikoko elkarteak eta enpresen aldi baterako batasunak.

**2.** Zerga Administrazioak propio emandako agiria erakutsita kreditatu ahal izango du titularrak bere identifikazio fiskaleko zenbakia, edo, baita ere, nortasun agiri nazionala erakutsita edo atzerritarraren identifikazio zenbaki pertsonala jasotzen duen agiri ofiziala erakutsita.

**3.** Aurreko apartatuetan xedatutakoa betetzeak ez du salbuesten zerga bakoitzaren araudiari jarraituz bestelako identifikazio kode edo gakoak izateko betebeharretik.

## II. KAPITULUA. Identifikazio fiskaleko zenbakia ematea

### 25. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia Ogasun eta Finantza Departamentuak ematea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak kasu hauetan izango du identifikazio fiskaleko zenbakia emateko eskumena:

a) Lurralde espainiarrean egoiliarrak diren pertsona fisikoak badira, ohiko bizilekua Gipuzkoan dutenean.

b) Lurralde espainiarrean helbideratutako pertsona juridikoak edo nortasun juridikorik gabeko entitateak badira, beren zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

c) Pertsona fisikoak edo entitateak lurralde espainiarrean egoiliarrak ez badira:

a')[26] Lurralde espainiarrean establezimendu iraunkor bidez jardunez gero, haien zerga helbidea Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta dagoenean, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 11. artikuluan jasotakoaren arabera.

b') Lurralde espainiarrean establezimendu iraunkorraren bidez jardunez gero, beren ordezkariaren helbidea Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta dagoenean edo lurralde horretan zerga izaerakoak diren edo zerga alorrean eragina duten egintzak edo eragiketak egitera doazenean, salbu aurretik beste administrazio batek identifikazio fiskaleko zenbaki bat eman badie.

## *1. sekzioa. Identifikazio fiskaleko zenbakia pertsona fisikoei ematea*

### 26. artikulua. Nazionalitate espainiarra duten pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia.

**1.** Espainiar nazionalitatea duten pertsona fisikoentzat, identifikazio fiskaleko zenbakia nortasun agiriaren zenbakia izango da, atzetik egiaztapen kode edo karakterea duela. Azken hau, letra larri bat izango da, nortasun agirian bertan agertu behar duena, hari dagozkion xedapen arautzaileen arabera.

**2.** Zerga izaera edo eragina duten eragiketak egiten dituzten espainiarrak, edo horietan parte hartzen dutenak, ez badaude behartuta nortasun agiri nazionala lortzera atzerrian bizi direlako edo 14 urte baino gutxiago dituztelako, identifikazio fiskaleko zenbaki propioa eskuratu beharko dute. Horretarako, nortasun agiri nazionala eskatu ahal izango dute, hala nahi badute, edo bestela, identifikazio fiskaleko zenbaki bat emateko eskatu diezaiokete Zerga Administrazioari. Azken zenbaki horrek bederatzi karaktere izango ditu, honela osatuak:

a) Hasierako letra bat, zenbaki honen izaera adierazteko: L letra egoitza atzerrian duten espainiarrentzat eta K letra egoitza Espainian duten 14 urtetik beherako espainiarrentzat.

b) Zazpi karaktere alfanumeriko.

c) Egiaztapen karaktere alfabetiko bat.

Ez badute eskatzen, Zerga Administrazioak alta eman ahal izango die ofizioz zergapekoen erroldan, eta dagokien identifikazio fiskaleko zenbakia esleituko die.

---

[26] Letra hau artikulu bakarraren zortzi apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

**3.** Zerga izaera duten edo zerga alorrean garrantzitsuak diren harremanetan 14 urtetik beherako adingabeak identifikatzeko, 14 urtetik beherakoaren datuak jaso behar dira (identifikazio fiskaleko zenbakia, barne), baita legezko ordezkariarenak ere.

## 27. artikulua. Nazionalitatez atzerritarrak diren pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia.

**1.** Espainiar nazionalitaterik ez duten pertsona fisikoen kasuan, identifikazio fiskaleko zenbakia atzerritarraren nortasun zenbakia izango da, hain zuzen ere, ondoko xedapenak kontuan hartuta emango zaiena: 2000ko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta gizarteratzeari buruzkoa, eta hori garatzen duten arauak.

**2.** Nazionalitatez espainiarrak ez diren pertsona fisikoek ez badute atzerritarraren identifikazio zenbakirik, dela behin-behinean, horretara behartuta daudelako, dela behin betiko, horrelako obligaziorik ez dutelako, identifikazio fiskaleko zenbaki bat eskatu beharko diote Zerga Administrazioari zerga izaera edo eragina duten eragiketak egin ahal izateko. Zenbaki horrek bederatzi karaktere izango ditu, honela osatuak:

a) Hasierako letra bat (M), zenbaki horren izaera adieraziko duena.

b) Zazpi karaktere alfanumeriko.

c) Egiaztapen karaktere alfabetiko bat.

Ez badute eskatzen, Zerga Administrazioak alta eman ahal izango die ofizioz zergapekoen erroldan, eta dagokien identifikazio fiskaleko zenbakia esleituko die.

**3.** Zerga Administrazioak eskatu ahal izango du identifikazio fiskaleko zenbakia emateko aurkeztutako dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara itzul dadila, Euskal autonomia Erkidegoan ofiziala ez den beste hizkuntza batean idatzita dagoenean.

## 28. artikulua. Zerga Administrazioak Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoei identifikazio fiskaleko zenbakia emateko arauak.

**1.** Zerga Administrazioak erregelamendu honetako 26. eta 27. artikuluetan jasotakoaren arabera zuzenean ematen duen identifikazio fiskaleko zenbakia baliodun izango da titularrak nortasun agiri nazionala edo atzerritarren identifikazio zenbakia eskuratzen ez duen artean.

Identifikazio fiskaleko zenbakia jaso eta gero, nortasun agiri nazionala edo atzerritarraren identifikazio zenbakia eskuratzen dutenek bi hilabeteko epean zirkunstantzia horren berri eman beharko diete Zerga Administrazioari eta identifikazio fiskaleko zenbaki berria ezagutu behar duten gainerako pertsona edo entitateei. Aurreko identifikazio fiskaleko zenbakiak zenbaki berria jakinarazi arte sortuko ditu ondorioak.

**2.** Pertsona fisiko batek aldi berean Zerga Administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbaki bat eta nortasun agiri nazional bat edo atzerritarren identifikazio zenbaki bat duela antzematen denean, azken hori gailenduko da.

Zerga Administrazioak interesatuari jakinarazi behar dio aurretik artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoaren arabera emandako identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetu dela, eta ohartaraziko dio haren eragiketengatik zenbaki balioduna ezagutu behar duten pertsona edo entitate guztiei haren berri ematera behartuta dagoela.

## *2. sekzioa. Identifikazio fiskaleko zenbakia pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko entitateei ematea*

### 29. artikulua. Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen identifikazio fiskaleko zenbakia.

**1.** Zerga Administrazioak identifikazio fiskaleko zenbaki bat emango die pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko entitateei, horiek identifikatzeko. Zenbaki hori aldaezina izango da haietan gertatzen diren aldaketak zeinahi direla ere, izaera juridikoa edo nazionalitatea aldatzen ez bada behintzat.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak jasotakoaren arabera, honela osatuta egongo da pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen identifikazio fiskaleko zenbakia:

a) Entitatearen izaera juridikoa, entitatea espainiarra denean, edo, bestelako izaera: atzerriko entitatea edo Espainian egoitzarik ez duen entitate baten establezimendu iraunkorra.

b) Zenbaki aleatorio bat.

c) Kontrol karaktere bat.

**2.** Pertsona edo entitate ez-egoiliarrak establezimendu iraunkorrak erabiltzen baditu lurralde espainiarrean jarduteko, eta establezimendu horiek egiten dituzten jarduerak guztiz desberdinduta badaude eta bereizita kudeatzen badira, establezimendu iraunkorrek identifikazio fiskaleko zenbaki bana eskatu beharko dute, pertsona edo entitate ez-egoiliarrari emandakoaren desberdina.

**3.** Herri administrazioek eta, horien menpe egonik, berezko nortasun juridikoa duten organismo edo entitateek identifikazio fiskaleko zenbaki bat izan ahalko dute beren jarduera enpresarial edo profesionalaren sektore bakoitzerako, bai eta bertako departamentu, sail, bulego edo goi mailako organo bakoitzerako ere, berezko kudeaketa ahalmena badute.

**4.** Era berean, honako hauek ere identifikazio fiskaleko zenbakiaren jabe izan daitezke, hala eskatzen badute:

a) Titulartasun publikoko ikastetxeak.

b) Titulartasun publikoko osasun zentroak edo laguntza alorrekoak.

c) Espainiako Gurutze Gorriaren gobernu organoak eta haren osasun zentroak edo laguntza alorrekoak.

d) Erregistro publikoak.

e) Epaitegiak, auzitegiak eta justizia auzitegietako aretoak.

f) Aldizkari ofizialak, nortasun juridiko propiorik ez dutenean.

**5.** Elizaren entitateek berezko nortasun juridikoa badute, identifikazio fiskaleko zenbakia izango dute nahiz eta, Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako, elizbarruti bat edo erlijio probintzia bat hartzen duen subjektu pasibo batean integratuta egon.

## 30. artikulua. Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzea.

**1.** Pertsona juridikoek edo nortasun juridikorik gabeko entitateek identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu behar dute, zerga izaera duten edo alor horretan garrantzitsuak diren harremanen titularrak izango badira.

Ez badute eskatzen, Zerga Administrazioak alta eman ahal izango die ofizioz zergapekoen erroldan, eta dagokien identifikazio fiskaleko zenbakia esleituko die.

**2.** Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek jarduera enpresarialak edo profesionalak egiteko asmoa badute, jarduera garatzeko beharrezkoa den edozein ondasun edo zerbitzu entregatu, eman edo eskuratu aurretik, diru kopuruak kobratu edo ordaindu aurretik, edo langileak kontratu aurretik eskatu beharko dute identifikazio fiskaleko zenbakia. Nolanahi ere, pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko entitatea eratu edo lurralde espainiarrean kokatu ondorengo hilaren barruan egingo da eskaera.

**3.** Erregelamendu honetako 15. artikuluan arautako alta-aitorpena aurkeztuz egingo da eskaera. Aitorpenean, artikulu horren 3. apartatuan aurreikusitako zirkunstantziak jasoko dira, aitorpena aurkezterakoan gertatuak edo ezagunak diren neurrian.

**4.** Erregelamendu honetako 29. artikuluaren 3. eta 4. apartatuetan jasotako kasuetan, berezko nortasun juridikoa duen entitate interesatuak, departamentu ministerialak edo autonomia erkidego bateko gobernu organoak zuzendu beharko dio Zerga Administrazioari identifikazio fiskaleko zenbakia emateko eskaera. Eskaera idatzian, adierazi behar da zer sektore, organo edo zentrotarako eskatzen duen identifikazio fiskaleko zenbaki propio bat, bai eta zergatik eskatzen duen ere.

Behin eskaera onetsita, Zerga Administrazioaren organo eskudunak identifikazio fiskaleko zenbakia emango du.

**31. artikulua. Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen identifikazio fiskaleko zenbakia ematea.**

**1.** 10 eguneko epean emango du Zerga Administrazioak identifikazio fiskaleko zenbakia.

Zerga Administrazioak egiaztatu ahal izango du, erregelamendu honetako 76. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoari jarraikiz, interesatuek behin-behineko edo behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakien eskaeretan adierazitako datuak egiazkoak ote diren. Egiaztatzen bada emandako datuak ez direla egiazkoak, Zerga Administrazioak identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetu dezake edo ez ematea erabaki dezake, betiere interesatuei entzuteko 10 eguneko epea eman eta gero. Epea zabaldu dela jakinarazi eta biharamunetik aurrera kontatuko da epe hori.

**2.** Pertsona juridikoen edo nortasunik gabeko entitateen identifikazio fiskaleko zenbakia behin-behinekoa izango da, harik eta entitate interesatuak honako agiriok aurkeztu arte: eraketaren eskritura publikoaren edo agiri fede-emailearen kopia, estatutu sozialen edo agiri baliokidearen kopia, eta, bidezkoa denean, erregistro publiko batean izena eman izanaren ziurtagiria.

Pertsona juridikoei edo nortasun juridikorik gabeko entitateei ez zaie behin-behineko edo behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakirik emango behar bezala sinatutako agiri batean ez badute gutxienez adierazten sinatzaileek pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko entitatea eratzeko borondatea adostu dutela, edo beste agiri batean kotitulartasun egoerak frogatzen ez badituzte.

Eskaerako zentsu aitorpena sinatzen duenak frogatu beharko du pertsona juridikoaren, nortasunik gabeko entitatearen edo eraketa konpromisoa hartzen duen kolektiboaren ordezkari modura dihardunela.

**3.** Behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia ematen denean, entitate interesatuak hilabeteko epea izango du behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia emateko oraindik aurkeztu gabe duen dokumentazioa aurkezteko. Epe hori kontatuko da agiriak erregistro publikoan inskribatzen direnetik aurrera, eta horiek erregistroan zertan inskribaturik ez badago, eraketaren eskritura publikoak edo agiri fede-emailea eta estatutu sozialak edo eraketaren agiri baliokideak ematen direnetik aurrera.

Aurreko paragrafoan aipatutako epea igarotzen bada falta den dokumentazioa oraindik aurkeztu gabe, Zerga Administrazioak hura aurkezteko errekeritu ahal izango du, horretarako gehienez 10 eguneko epea emanda, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik aurrera, dokumentazioa aurkeztu dadin edo aurkezpena ezinezko egiten duten arrazoiak frogatu daitezen, azken kasu horretan interesatuak dokumentazioa behin betiko aurkezteko behar duen epea adierazita.

Falta den dokumentazioa aurkezteko errekerimenduari epe barruan eta behar den eran kasurik ez egiteak, lehendik emandako identifikazio fiskaleko zenbakia

baliogabetzea ekar dezake, erregelamendu honetako 79. artikuluan aipatutako moduan, betiere interesatuari entzun eta gero.

**4.** Behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko, aldaketako zentsu aitorpena aurkeztu beharko da. Aitorpen horretan jasota utzi beharko da zertan aldatu diren behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko aurkeztutako aitorpenean adierazi ziren datuak, betiere lehenagoko aldaketa zentsu aitorpenetan horiek Administrazioari oraindik jakinarazi ez bazaizkio. Falta den dokumentazioa aitorpenarekin batera aurkeztuko da.

Obligazio hori beteta, behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia emango da.

**5.** Zerga Administrazioak eskatu ahal izango du identifikazio fiskaleko zenbakia emateko aurkeztutako dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara itzul dadila, Euskal autonomia Erkidegoan ofiziala ez den beste hizkuntza batean idatzita dagoenean.

**6.** Zerga Administrazioak hitzarmenak izenpetu ditzake entitateen eraketa prozesuan esku hartzen duten organismo, erakunde edo pertsonekin, emandako identifikazio fiskaleko zenbakia, behin-behinekoa zein behin betikoa, komunikatzea errazteko. Hitzarmen batean xedatutakoaren indarrez, Zerga Administrazioak organismo, erakunde edo pertsonen bitartez ezagutzen badu entitate bati identifikazio fiskaleko zenbakia emateko beharrezkoa den informazioa, zentsu aitorpena aurkeztetik salbuetsi ahal izango du entitate hori zenbakia eskatzeko garaian. Guztiarekin ere, entitateak beti jakinarazi beharko ditu lehenagotik aurkeztu dituen zentsu aitorpenetan adierazitako informazioan gertatu diren aldaketak.

## III. KAPITULUA. Enpresari edo profesionalen identifikazio fiskaleko zenbakiaren berezitasunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako

### 32. artikulua. Enpresari edo profesionalen identifikazio fiskaleko zenbakiaren berezitasunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

**1.** Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, ondorengo 2. apartatuan aipatutako batasun barruko eragiketak egiten dituzten pertsona eta entitateentzat, identifikazio fiskaleko zenbakia titulu honetan ezarritakoaren arabera definitu dena izango da, aurretik ES aurrizkia jarrita, ISO-3166 alfa 2 nazioarteko kode estandarrari jarraikiz.

Interesatuak batasun barruko operadoreen erregistroan sartzeko eskatzen duenean emango da zenbaki hori, erroldan alta hartzeko edo datu zentsalak aldatzeko aitorpenean ezarrita dagoen eran. Zerga Administrazioak zenbaki hori ez ematea erabaki dezake erregelamendu honek 31. artikuluaren 1. apartatuan eta 78. artikuluaren 1. apartatuko b) letran aipatutako kasuetan. Zerga Administrazioak

ez badu ebatzi hiru hilabeteko epean, ukatutzat jo ahal izango da identifikazio fiskaleko zenbakia.

**2.** Pertsona edo entitate hauek jasoko dute aurreko apartatuan definitutako identifikazio fiskaleko zenbakia:

a) Zergari lotutako ondasun entregak edo batasun barruko ondasun eskurapenak egiten dituzten enpresari edo profesionalek, baita batasun barruko eskurapen horien xede diren ondasunak jarduera enpresarial edo profesionalak atzerrian egiteko erabiltzen direnean ere.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean finkaturik ez dauden enpresari edo profesionalengandik zerbitzuak jasotzen dituzten enpresariek edo profesionalek, zerbitzu horiei dagokienez subjektu pasibo direnean.

c) Zerbitzuak ematen dituzten enpresari edo profesionalek, baldin eta, lokalizazio erregelen arabera, zerbitzu horiek beste estatu kide batean egindakotzat hartzen badira, eta subjektu pasiboa haien hartzailea bada.

d) Enpresari edo profesional moduan jarduten ez duten pertsona juridikoek, baldin eta egiten dituzten batasun barruko ondasun eskurapenak Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta badaude Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 13. artikuluaren 1. apartatuan eta 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**3.** Aurreko 2. apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako ematen den berariazko identifikazio zenbakia ez zaie pertsona edo entitate hauei emango:

a) Zergan kenkari oso zein partzialerako eskubiderik sortzen ez duten eragiketak bakarrik egiten dituzten subjektu pasiboak, edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikagarri duten jardueretan bakarrik aritzen direnak, edo enpresari edo profesional moduan jarduten ez diren pertsona juridikoak, baldin eta pertsona horiek batasunaren barruko ondasun eskurapenak ez badaude Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Aurreko letran aipatutakoak eta enpresari edo profesional moduan jarduten ez direnak, garraiobide berrien batasun barruko eskurapenak egiten dituztenean.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 5. artikuluaren 1. apartatuko e) letran jasotakoak.

d) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean ezarrita ez dauden enpresari edo profesionalak, bertan zergaren subjektu pasibo ez izateko moduko eragiketak bakarrik egiten dituztenean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 84. artikuluaren 1. apartatuko 2., 3. eta 4. zenbakietan jasotakoaren arabera.

e) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duten enpresari edo profesionalak, lurralde horretan egiten dituzten eragiketa bakarrak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 26. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako batasun barruko eskurapenak eta ondorengo entregak direnean.

**4.** Beste estatu kide batzuetan kokatutako ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak egiten dituzten pertsona edo entitateek Zerga Administrazioari eskatu diezaiokete berretsi dezala Europar Batasuneko edozein estatu kidek eragiketa horien hartzaileei emandako identifikazio fiskaleko zenbakia.

**5.** Beste estatu kide batera bidaltzekoak diren ondasun entregak egiten dituzten enpresari edo profesionalek Zerga Administrazioaren organo eskudunari eskatu diezaiokete berretsi dezala estatu horietako edozeinek eragiketa horien hartzaileei Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako emandako identifikazio fiskaleko zenbakia.

## IV. KAPITULUA. Identifikazio fiskaleko zenbakia erabiltzea

### 33. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia Zerga Administrazioaren aurrean erabiltzea.

**1.** Zergen Foru Arau Orokorrak laugarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera, zergapekoek identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi behar dute Zerga Administrazioari aurkezten dizkioten autolikidazio, aitorpen edo idatzi guztietan. Zenbaki hori ez badute, emateko eskatu beharko dute erregelamendu honetako 26., 27. eta 30. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Autolikidazio, aitorpen edo idatziak identifikazio fiskaleko zenbakirik gabe aurkeztea onar dezake Zerga Administrazioak.

Zergapekoak identifikazio fiskaleko zenbakirik ez duenean, tramitazioa egiteko, dena delako zenbakia aurkeztu behar da. 10 eguneko epean, aurkezpenetik aurrera kontatuta, ez bada frogatzen identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu denik, zilegi izango da autolikidazio, aitorpen edo idatzia ez aurkeztutzat jotzea, hala adieraziko duen ebazpen administratiboa eman eta gero.

**2.** Zergapekoek beste pertsona edo entitate batzuekin egiten badituzte zerga izaera duten edo arlo horretan garrantzitsuak diren eragiketak, pertsona edo entitate horien identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi beharko dute Zerga Administrazioari aurkezten dizkioten autolikidazio, aitorpen, komunikazio edo idatzietan, betiere erregelamendu honetan edo bestelako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zergapekoek identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazteko exijitu diezaiekete haiekin zerga izaera duten edo arlo horretan garrantzitsuak diren eragiketak egiten dituzten pertsona edo entitateei. Erregelamendu honek 24. artikuluan ezarritakoari jarraikiz jakinarazi

beharko dute pertsona edo entitate horiek identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta hura kreditatu ere, hala badagokie.

## 34. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia zerga alorrean garrantzitsuak diren eragiketetan erabiltzea.

**1.** Zergen Foru Arau Orokorrak laugarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera, zergapekoek identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi behar dute beren jardueraren ondorioz zerga izaeraz edo eraginaz egiten dituzten agiri guztietan, eta beste zergapeko batzuei jakinarazi behar diete erregelamendu honetan eta bestelako xedapenetan ezarritakoari jarraikiz.

Era berean, zergapekoek beste pertsona edo entitate batzuen identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi beharko dute dokumentu horietan, erregelamendu honetan edo bestelako xedapenetan ezarritakoaren arabera, haiekin zerga izaerakoak diren edo arlo horretan garrantzia duten eragiketak egiten dituztenean.

**2.** Bereziki, honako eragiketa hauek egiten direnean adierazi edo jakinarazi beharko da identifikazio fiskaleko zenbakia:

a) Lan etekinak –Espainian kokatutako establezimenduetatik abonatuak– jaso edo ordaintzen direnean, edo kapital higigarriaren etekinak –lurralde espainiarrean abonatuak edo bertan kokatutako edo ohar hartutako ondasun edo baloreetatik eratorriak– jaso edo ordaintzen direnean. Kasu honetan, identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi beharko zaio etekin horien ordaintzaileari edo jasotzaileari.

Baloreak edo aktibo finantzarioak lurralde espainiarrean kokatuak edo bertan ohar hartuta daudela joko da, bereziki, haiek gordailatu, kudeatu, administratu edo kontabilitatean erregistratzeaz arduratzen dena Espainian kokatutako pertsona edo entitate bat denean edo zeregin hori haren establezimendu batek betetzen duenean.

b)[27] Espainian kokatuta dauden eta tituluen edo kontuko idaztoharren bidez adierazten diren baloreak eskuratu edo eskualdatzeko asmoa dagoenean. Horrelako kasuetan, baloreak eskuratu edo eskualdatu nahi dituzten pertsona edo entitateek, bidezko agindua ematearekin batera, beren identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi beharko diete entitate jaulkitzaileari edo finantza bitartekariei, eta horiek ez diote aginduari kasurik egingo obligazio hori bete arte, halaxe ezartzen baitu urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Balore Merkatuari buruzko Legearen testu bateginak, 315. artikulua.

c) Ondasun higiezinen gaineko jabaria eta bestelako eskubide errealak aitortu, eratu, eskuratu, eskualdatu, aldatu edo iraungitzea helburu duten egintza edo kontratuak notarioaren aurrean formalizatzen direnean edo zerga alorrean garrantzitsua den beste edozein egintza edo kontratu egiten denean. Kasu

[27] Letra hau ekainaren 28ko 13/2016 FORU DEKRETUAren 2. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak hainbat erregelamendu aldatzen ditu zerga baterakuntzaren araubide berrira egokitzeko. Aldaketa 2016ko uztailaren 9an sartzen da indarrean (2016/07/08ko GAO).

horietan, eskrituretan edo agirietan jaso beharko da agertzen diren pertsona edo entitate ordezkatuen identifikazio fiskaleko zenbakia.

Obligazio hori betetzen ez denean, notarioek erregelamendu honetako 62. artikuluan arautakoko aitorpen informatiboa aurkeztu beharko diote Zerga Administrazioari.

d) Edozein aseguru edo finantza eragiketa kontratatzen denean, dela Espainiako aseguru entitateekin, dela Espainian establezimendu eskubidearen araubidearen barruan edo sukurtsal bidez edo zerbitzu prestazio librearen araubidean jarduten diren entitateekin. Horrelakoetan, aseguratu gisa ageri diren edo kalte-ordainak zein prestazioak jasotzen dituzten pertsonek edo entitateek jakinarazi behar diote aseguru entitateari identifikazio fiskaleko zenbakia. Eragiketa horiek dokumentatzeko erabiltzen den polizan edo agirian jaso beharko da zenbaki hori.

Istripu aseguruen kontratuak hortik kanpo gelditzen dira hiru hilabetetik gorako iraupenik ez dutenean.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak bere eskutan izango du aseguru entitateekin egiten diren beste eragiketa batzuk identifikazio fiskala jakinarazteko obligaziotik salbuestea, aseguru kontratuak bizitza arlokoak ez direnean eta aldi baterako iraupena dutenean.

e) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei edo pentsio planei kontribuzio edo ekarpenak egiten zaizkienean edo haietatik prestazioak jasotzen direnean. Horrelakoetan, honako hauei jakinarazi beharko zaie identifikazio fiskaleko zenbakia: borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei, plan horiek atxikita dauden pentsio funtsen entitate kudeatzaileei, eta, Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratutako pentsio planen ordezkari direnei. Azken kasu horretan, pentsio funts horiek enpleguko pentsio planak garatu behar dituzte lurralde espainiarren, bertako legeriaren mende. Kontribuzio betebeharrak eta prestazioen aitorpena formalizatzeko erabiltzen diren agirietan jaso beharko da identifikazio fiskaleko zenbakia.

f) Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak harpidetu, eskuratu, itzuli edo eskualdatzen direnean edo horiek Espainian merkaturatzen direnean, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak jasotakoaren arabera. Horrelakoetan, eragiketa horiek egiten dituzten pertsona edo entitateek honako hauei jakinarazi beharko diete identifikazio fiskaleko zenbakia: Espainiako entitate kudeatzaileei, Espainian sukurtsal bidez edo zerbitzu prestazio librean jarduten diren entitateei edo, horien ezean, inbertsio sozietateei edo entitate merkaturatzaileei. Eragiketa horiei buruzko agirietan jaso beharko da identifikazio fiskaleko zenbakia.

Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko erregelamendu honek 35. artikuluaren 7. apartatuan aipatutako kontuen bidez egiten diren balore eskurapen edo eskualdaketei.

**3.** Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zergapekoek identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazteko exijitu diezaiekete haiekin zerga izaera duten edo

arlo horretan garrantzitsuak diren eragiketak egiten dituzten pertsona edo entitateei. Erregelamendu honek 24. artikuluan ezarritakoari jarraikiz jakinarazi beharko dute pertsona edo entitate horiek identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta hura kreditatu ere, hala badagokie.

## 35. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia kreditu entitateekin egiten diren eragiketetan erabiltzea.

**1.** Espainiako kreditu entitateekin edo Espainian sukurtsal bidez edo zerbitzu prestazio librearen araubidean jarduten diren entitateekin eragiketak egiten dituzten pertsonak edo entitateak behartuta daude beren identifikazio fiskaleko zenbakia jakinaraztera, Zergen Foru Arau Orokorrak laugarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera eta artikulu honetan ezarritakoari jarraituz.

**2.** Diru trukeen eragiketetan eta bidai txekeen erosketetan zenbatekoa 3.000 eurotik beherakoa denean, ez da beharrezkoa izango kreditu entitateei identifikazio fiskaleko zenbakia jakinaraztea, eragiketa egiten duenak eragiketaren unean ez-egoiliar zela frogatzen badu.

**3.** Zilegi izango da kreditu entitate batean gordailu bat eratzea edo kontu bat irekitzea, hori egiteko unean identifikazio fiskaleko zenbakia kreditatu gabe. 15 eguneko epean jakinarazi beharko da identifikazio fiskaleko zenbakia, eta hori egin arte ezingo da inolako mugimendurik egin.

Titular guztiek identifikazio fiskaleko zenbakia adierazten duten momentutik aurrera hasi ahal izango da kreditu entitatea karguak edo ordainketak kontu edo gordailuetan egiten edo horiek deuseztatzen.

Kreditu entitateek Zerga Administrazioari eman beharko diote erregelamendu honek 49. artikuluan jasotakoaren arabera titularrak identifikazio fiskaleko zenbakia eman gabe dituen kontu edo eragiketen berri.

**4.** Zergen Foru Arau Orokorrak laugarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, kreditu entitateek apartatu horretan aipatutako datuak jarri beharko dituzte libratutako txekeen matrize edo ale bikoiztuetan eta ordaindutako txekeen atzealdean. Bestela, eragiketa horiek kontrolatzeko erabiltzen diren erregistroetan (laguntzaileetan, kontabilitate arlokoetan zein beste edozein motatakoetan) utzi beharko dituzte jasota datu horiek, betiere haiek gero egiaztatu ahal izate aldera.

Era berean, kreditu entitateek Zerga Administrazioari eman beharko diote erregelamendu honek 50. artikuluan aipatutako informazioa.

Zergen Foru Arau Orokorrak laugarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko bigarren paragrafoan aipatutako txekeak atzerriko monetan izendatuta daudenean, txeke horien zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa ote den zehazteko, kreditu entitateek eurotako kontrabalioa kalkulatuko dute, dibisatako eragiketei aplikatzen zaizkien aldaketak erabilita.

**5.** Kontuak edo gordailuak adingabeen edo pertsona desgaituen izenean daudenean, eta txekeen hartzaileak edo edukitzaileak ere adingabeak edo desgaituak direnean, beren identifikazio fiskaleko zenbakia eta legezko ordezkariena jasoko da haietan.

**6.** Kontuak edo gordailuak titular bat baino gehiago dituenean, baimendunak izan zein onuradunak izan, haien guztien identifikazio fiskaleko zenbakia jasoko da.

**7.** Eurotan eta dibisatan dauden kontuak –aktibokoak izan, pasibokoak izan edo balorekoak izan– salbuetsita gelditzen dira artikulu honetan aurreikusten den identifikazio araubidetik, Espainian egoiliar ez izatea frogatu duten pertsona fisiko edo entitateen izenean daudenean. Salbuespen hori ez zaie kontuei aplikatuko ematen dituzten etekinak titularrak Espainian duen establezimendu bati ordaintzen zaizkionean.

**8.** Txekeen hartzekodunak edo edukitzaileak Espainian ez-egoiliar direla aitortu duten pertsona fisiko edo entitateak direnean, identifikazio fiskaleko zenbakiaren ordez pasaportearen zenbakia edo sorburuko herrialdean balio duen identifikazio zenbakia erabili ahal izango da, Zergen Foru Arau Orokorrak laugarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotako kasuetan.

**9.** Ez-egoiliarraren izaera dena delako entitateari frogatu ahal izango zaio, aurreko 2., 7. eta 8. apartatuetan aipatutako kasuetan jasotako ondorioetarako bakarrik, egoitzako herrialdeko agintari fiskalek luzatutako zerga egoitzako ziurtagiri baten bidez edo Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onartzen dituen ereduari eta baldintzei egokitutako zerga egoitzako adierazpen baten bidez.

# V. TITULUA
# ERREGISTRO LIBURU FISKALEI BURUZKO BETEBEHARRAK

## 36. artikulua. Erregistro liburu fiskalak eramateko eta gordetzeko betebeharra.

**1.** Zerga bakoitzaren araudiak hala jasotzen badu, zergapekoek behar den eran eraman eta gorde behar dituzte ezartzen diren erregistro liburuak. Zergapekoaren zerga helbidean gorde behar dira erregistro liburuak, zerga bakoitzaren araudiak xedatutako kasuetan izan ezik.

**2.** Eragiketak erregistroetan idatzita utzi behar badira, hiru hilabeteko epean egin behar da haien idazpena. Eragiketa egiten den momentutik aurrera edo frogagiria jasotzen denetik aurrera kontatuko da epe hori, eta edozein kasutan, dagokion aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko epea amaitu baino lehen, betiere zerga bakoitzaren araudiak xedatutako kasuetan izan ezik.

**3.** Beren kontabilitate obligazioak betetzeko, zergapekoek eraman behar dituzten kontabilitate liburu edo erregistroak, informatikoak edo elektronikoak ere barne, erregistro liburu fiskal gisa erabili ahal izango dira, betiere erregelamendu honetan

eta zerga desberdinen berariazko araudian ezarrita dauden beharkizunak betetzen badituzte.

**4.** Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak zilegi izango du sektore enpresarial edo profesional jakin batzuei dagozkien erregistro obligazioak egokitzea edo aldatzea.

**5.**[28] Artikulu honetako aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera, balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 62. artikuluan aipatzen dituen erregistro liburuak eramateko obligazioa eta fakturazio erregistroak elektronikoki bidaltzekoa enpresaburu edo profesionalek edo zergaren beste subjektu pasibo batzuek bete beharko dute baldin eta likidazio aldia hilabete naturalarekin bat badator aipatutako erregelamenduak 71. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Gainera, aurreko paragrafoan aipatu ez diren enpresaburu edo profesionalek eta zergaren beste subjektu pasibo batzuek beti aukeratu ahal izango dute, erregelamendu honen 36 bis artikuluan ezarritakoari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eramatea erregistro liburuak, hain zuzen ere, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 40. artikuluaren 1. apartatuan, 47. artikuluaren 2. apartatuan, 61. artikuluaren 2. apartuan, eta 62. artikuluaren 1. apartatuan aipatutakoak.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 62. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, erregistro liburu bakarrak eraman beharko dira, eta haietan zergaren aplikazio eremuan kokatuta dauden establezimendu guztien eragiketak jasoko dira.

Fakturazio erregistro elektronikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez bidaliko dira, dela propio eratutako web zerbitzua erabilita edo, egonez gero, bidezko formulario elektronikoa betez, betiere Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru aginduz onartutako erregistro eremuen arabera.

Balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamenduan erregelamendu horretako 62.6 artikuluan aipatzen diren pertsona eta entitateei egindako erreferentziak apartatu honetan aipatzen diren pertsona eta entitateei egindakotzat joko dira, eta erregistro liburuak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoaren bitartez eramateari buruzko erreferentziak, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateari buruzkoak direla ulertuko da.

---

[28] Apartatu hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak

## 36. bis artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak elektronikoki eramatearen aldeko aukera.[29]

Erregelamendu honen 36. artikuluko 5. apartatuan aipatzen den aukera ondorioak sortu behar dituen urte naturala hasi aurreko urteko azaroan egin behar da, horretarako behar den zentsu aitorpena aurkeztuta. Hala ere, jarduera enpresarial edo profesionalak uneko urte naturalean hasi dituztenek jardueraren hasierari buruzko aitorpena aurkeztearekin batera aukera dezakete erregistro liburuak elektronikoki eramatea, eta aukera horrek uneko urte naturalean izango ditu ondorioak.

Aukerari uko egiten ez bazaio, ulertuko da hurrengo urteetarako ere luzatzen dela.

Erregistro liburuak modu honetan eramatea aukeratzen dutenek, aukera zein urtetarako egiten duten eta gutxienez urte natural horretan aurkeztu behar dituzte elektronikoki fakturazio erregistroak.

Egindako aukerari uko egiteko, komunikazio bat bidali behar zaio zerga administrazioko organo eskudunari, eta komunikazio hori zentsu aitorpen bat aurkeztuz gauzatuko da. Ondorioak sortu behar dituen urte naturala hasi aurreko urteko azaroan egin behar zaio uko.

Hileko itzulketen erregistroan inskribatuta dauden subjektu pasiboak erregistro horretatik kanpo geratzen badira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 30.6 artikuluan xedatutakoa aplikatze agatik, salbuetsita geratuko dira, baita ere, erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eramateko obligaziotik, salbuespenari buruzko erabakia jakinarazi den likidazio aldiko lehen egunetik aurrera.

Entitate taldeen araubide berezia aplikatzeari uzten bazaio abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitze koak, 163 septies artikuluan ezarritakoagatik, une horretatik bertatik desagertu egingo da erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateko obligazioa.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta, enpresaburu edo profesionalen kasuan, haien likidazio aldiak hilabetea izaten jarraitzen badu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 71.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

## 36. ter artikulua. Fakturazio erregistroak elektronikoki bidaltzeko epeak.[30]

[29] Artikulu hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko lau apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak

**1.** Erregelamendu honen 36. artikuluko 5. apartatuan aipatzen diren pertsona eta entitateen kasuan, fakturazio erregistroak epe hauetan bidali beharko dira:

a) Egindako fakturei buruzko informazioa, lau egun naturaleko epean, faktura egiten denetik aurrera, non eta faktura ez duen egin hartzaileak edo hirugarren batek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 164. artikuluko bigarren apartatuan xedatutakoari jarraituz; horrelakoetan, epea zortzi egun naturalekoa izango da. Bi kasuotan, erregistroak bidali behar dira erregistratu behar den eragiketari dagokion zerga sortu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen.

b) Jasotako fakturei buruzko informazioa, lau egun naturaleko epean, faktura kontabilitatean erregistratzen denetik aurrera, eta, beti, kasuan kasuko eragiketak likidatu diren zergaldia amaitu ondorengo hilaren 16a baino lehen.

Inportazio eragiketen kasuan, aipatu diren lau egun natural horiek konputatu behar dira aduanek likidatutako kuotaren dokumentua kontabilitatean erregistratzen denetik, eta, beti, eragiketa horiek aitortzen diren zergaldia amaitu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen.

c) Balio Eran tsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 66.1 artikuluan aipatzen dituen eragiketen informazioa, lau egun naturaleko epean bidali behar da, ondasunak bidaltzen edo garraiatzen hasten den unetik edo, hala dagokionean, ondasun horiek jasotzen direnetik aurrera.

Aurreko a), b) eta c) letretran aipatzen den lau edo zortzi egun naturaleko epea zenbatze ari begira, egun baliogabeak ez dira kontuan hartuko.

**2.** Kutxako irizpidearen araubide berezia aplikagarri duten eragiketen informazioa aurreko apartatuetan adierazitako epeetan bidali beharko da, eragiketa horiei araubide hori aplikatu izan ez balitzaie bezala. Alabaina, horrek ez du eragotziko behar diren datuak ematea eragiketen kobrantza edo ordainketak osorik edo modu partzialean egiten direnean.

**3.** Balio Eran tsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 70. artikuluan aipatzen dituen zuzenketa erregistralen kasuan, zuzenketa horien fakturazio erregistroak bidali behar dira haiek kontuan izan behar dituen aitorpenari dagokion zergaldia amaitu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen bidali beharko dira.

# VI. TITULUA
# INFORMAZIO BETEBEHARRAK

---

[30] Artikulu hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bost apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

# I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

## 37. artikulua. Informazio betebeharren konexio puntuak.

**1.** Egindako atxikipenen eta konturako sarreren laburpenak Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu behar zaizkio, beraiei buruzko araudian ezarritakoarekin bat etorriz, haietan jaso beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko eskumena berak badauka.

Baloreen errenten kobrantza kudeatzen duten edo haien gordailuzain diren entitateek dena delako araudiari jarraituz atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpenak aurkeztera behartuta badaude, Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu behar dizkiote laburpenok, beraiei buruzko araudietan ezarritakoarekin bat etorriz, horrexek badu entitate horiek egiaztatzeko eta ikertzeko eskumena.

Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo izaki hura Gipuzkoako Foru Aldundiari ordaindu behar dioten entitatek Ekonomia Ituneko 7.bat.c) eta 9.bat.lehena.a) artikuluetan aipatutako etekinei aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpenak aurkeztu behar dituzte, eta horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiak tokiaz, moduaz eta epealdiaz ezartzen duenari lotu beharko zaizkio.

**2.** Legez ezarrita dauden zerga informazioko obligazio orokorrak betetzeko aurkezten diren aitorpenak irizpide hauek kontuan hartuz aurkeztu behar zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari, berariazko araudia betetzeaz gainera:

a) Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergapekoek, Gipuzkoako Foru Aldundiak badauka enpresa eta lanbide jarduerak egiaztatzeko eta ikertzeko eskumena.

b) Jarduera ekonomikorik egiten ez duten zergapekoak, zerga egoitza Gipuzkoako lurralde historikoan badaukate.

## 38. artikulua. Informazio betebeharren printzipio nagusiak.

**1.** Zergen Foru Arau Orokorraren 90. eta 91. artikuluetan ezarritako informazio betebeharrak beraiei buruzko arauetan eta titulu honetan ezarritakoari lotuta bete behar dira.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak aurkeztu beharreko aitorpenen ereduak onetsiko ditu, non eta zer epealditan aurkeztu behar diren zehaztuko du eta aitorpenak baliabide elektronikoen bitartez zer kasutan eta baldintzatan aurkeztu behar diren ezarriko du.

**2.** Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergapekoek, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaien errentak edo etekinak ordaintzen dituztenek eta eragiketa ekonomiko, profesional edo finantzarioetan parte hartzen duten edo bitartekari gisa aritzen direnek informazio orokorra eman behar dute berariazko

araudian, elkarren laguntzari buruzko araudian eta titulu honetan ezartzen denarekin bat etorriz.

**3.** Informazioa emateko obligazioa, zerga betebeharren inguruko datu, txosten, aurrekari eta frogagiriak, zerga ordainketan eragina izan dezaketenak, eta beste pertsona batzuekin izan dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozko guztiak aurkezteko banakako errekerimenduei erantzunez ere egin dakieke, nahiz eta izaera orokorrez Zerga Administrazioari aitorpen bidez eman beharrik eduki ez. Honelako kasuetan, zergapekoek errekerimenduan bertan ezarritako moduan eta epealdian aurkeztu behar dute eskatutako informazioa, erregelamendu honek edo 2010eko azaroaren 16ko 31/2010 Foru Dekretuaz onartutako Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduak ezarritakoaren arabera.

Informazioa lortzeko jarduketak administrazio organo jardulearen ekimenez edo, legez ezarritako lankidetza kasuetan, beste administrazio edo jurisdikzio organo batzuek eskatuta edo elkarren laguntzaren esparruan beste estatu edo nazioarteko edo nazioz gaindiko entitate batzuek eskatuta egin daitezke.

Hirugarrengoei buruzko informazioa lortzeko, banakako errekerimenduak zergak ordainarazteko prozeduretan zein haietatik bereiz egin daitezke. Errekerimendua egin zaion pertsona edo entitatearen zerga obligazio propioak betetzearekin lotutako errekerimenduak egiteak inoiz ez dakar egiaztapen edo ikuskapen prozedura edo jarduketa bat hastea.

**4.** Zergapekoei zergak aplikatzeko prozeduretan, azken horiei buruzko arauekin bat etorriz, egiten zaizkien datu, txosten, aurrekari eta frogagiri eskaerak ez dira hartuko informazio errekerimendutzat Zergen Foru Arau Orokorraren 90. eta 91. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako.

## II. KAPITULUA. Aitorpen informatiboak aurkezteko betebeharra

### *1. sekzioa. Hirugarrengoekin egindako eragiketei buruz informatzeko betebeharra.*

#### 39. artikulua. Hirugarrengoekin egindako eragiketei buruz informatzera behartutakoak.

**1.** Zergen Foru Arau Orokorraren 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, enpresa edo lanbide jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridikoek –izaera publikoa izan edo izaera pribatua izan–, eta aipatutako foru arauaren 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako entitateek hirugarrengoekin egindako eragiketei buruzko urteko aitorpen bat aurkeztu behar dute (hemendik aurrera, eragiketen urteko aitorpena).

Horretarako, enpresa edo lanbide jardueratzat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuaren 5. artikuluaren 2. apartatuan hala definitutako guztiak. Halaber, halakotzat hartuko dira foru dekretu horretako 5. artikuluaren 1.

apartatuan enpresari edo profesional kalifikatutakoek egiten dituzten jarduerak, bertako e) letran xedatutako salbuespenarekin.

Jabetza horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legea aplikagarri zaien entitateek eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 20. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako entitate edo establezimenduek jaso behar dituzte, hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpenean, jarduera enpresarial edo profesionaletatik kanpo egiten dituzten ondasun edo zerbitzuen eskurapen orokorrak ere, izaera horretako jaduerarik egiten ez badute ere.

**2.** Zergen Foru Arau Orokorraren 91. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan aipatutako pertsonek eta entitateek enpresa eta lanbide jardueretatik kanpo egiten dituzten ondasun eta zerbitzu eskurapen orokorrak ere sartu behar dituzte aurreko apartatuan aipatutako eragiketen urteko aitorpenean, baita halako jarduerarik egiten ez badute ere.

Administrazio publikoetako entitateek, gainera, eragiketen urteko aitorpenean ondoko hauek zerrendatu behar dituzte: aurrekontu orokorren kargura ematen edo administrazio publikoetakoak ez diren entitate edo organismoen kontura kudeatzen dituzten diru laguntzak, sorospenak edo laguntzak.

Sektore publikoko entitateek eragiketen urteko aitorpen bat aurkeztuko dute identifikazio fiskaleko zenbakia esleituta duen enpresa edo lanbide jardueren sektore bakoitzari dagokionez edo sektore guztiei dagokienez. Bereziki, aitorpen hori aurkeztera behartuta daude lurralde historikoetako administrazioak, gainerako lurralde administrazio publikoak, Estatuko Administrazioa, autonomia erkidegoak eta beren organismo autonomoak eta entitate publikoak, eta gainerako lurralde administrazio publikoetan sartutako entitateak.

Administrazio publikoetako entitateek eragiketen urteko aitorpena aurkezten badute identifikazio fiskaleko zenbakia esleituta duen enpresa edo lanbide jardueren sektore bakoitzeko, apartatu honetan eskatzen diren datuak aitorpen guztietan adierazi behar dituzte.

Orobat, aurreko paragrafoan aipatutako entitateek, Gipuzkoako lurralde historikoko Administraziokoek eta hari atxikitako organismo autonomoek ez besteek, nahiz eta ez enpresa ez lanbide jarduerarik egin ez, erregelamendu honetan aipatutako eragiketen urteko aitorpen bat aurkez dezakete, bereizita, identifikazio fiskaleko zenbaki desberdin bat esleituta duen sail, atal edo organo berezi bakoitzeko.

**3.** Gainera, Zergen Foru Arau Orokorraren 90. artikuluaren 1. apartatuko b) letran ezarritakoaren arabera, beren funtzioen artean bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura lanbide-ordainsariak edo jabetza intelektualaren edo egile-jabetzaren eskubideak edo beste batzuk kobratzen dituzten sozietateek, elkarteek, profesionalen elkargoek edo beste entitate batzuk sekzio honetan aipatutako eragiketen urteko aitorpenean sartu behar dituzte haiek guztiak.

### 40. artikulua. Hirugarrengoekin egindako eragiketei buruz informatzeko betebeharretik salbuetsitako pertsonak edo entitateak.

Honako hauek ez daude behartuta eragiketen urteko aitorpena aurkeztera:

a) Espainiako lurraldean beren jarduera ekonomikoaren egoitzarik, establezimendu iraunkorrik edo zerga helbiderik izan ez arren, Espainian enpresa edo lanbide jarduerak egiten dituztenak, edo, atzerrian eratutako errenta esleipenaren araubideko entitateen kasuan, Espainian presentziarik izan gabe jarduten dutenak.

b)[31] Pertsona fisikoak eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak, balio erantsiaren gaineko zergan araubide erraztu berezia, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia edo baliokidetasun errekarguaren araubide berezia aplikatzen duten jarduerengatik, faktura egitea dakarten eragiketengatik izan ezik.

Aurrekoa hala izanik ere, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztura bildutako subjektu pasiboek, hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpena betetzen dutenean, egin dituzten ondasun eta zerbitzu eskurapenak adierazi behar dituzte, baldin eta horiek jasotako fakturen erregistro liburuan, hain zuzen ere balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamenduko 40.1 artikuluan, idatzi beharrekoak badira.

c) Urte naturalean zehar beste pertsona edo entitate batekin egindako eragiketetan guztira 3.005,06 euro gainditu ez dituzten zergapekoak, edo, epe berean, honako kasu hauetan 300,51 euro gainditu ez dituztenak: hirugarrengoen kontura bazkideen, kideen edo elkargokideen lanbide-ordainsariak edo jabetza intelektual edo industrialaren eskubideak edo egile-eskubideak edo beste batzuk kobratzeko funtzioa betetzen dutenean.

d) Erregelamendu honek 41. artikuluan xedatutakoaren arabera aitortu behar ez diren eragiketak soilik egin dituzten zergapekoak.

e)[32] Erregelamenduaren 36. artikuluko 5. apartatuan aipatzen diren zergapekoak.

## 41. artikulua. Hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpenaren edukia.

**1.** Erregelamendu honek 39. artikuluaren 1. apartatuan aipatutako zergapekoek honako informazio hau jaso beharko dute urteko eragiketen aitorpenean: urte naturalean egindako eragiketetan, zer pertsona edo entitaterekin gainditu dituzten, guztira, 3.005,06 euro, edozein delarik ere pertsona edo entitate horien izaera. Hiru hilean behin aurkeztu behar da, banakaturik, eragiketa horiei buruzko

---

[31] b) letra hau urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUAK aldatu du, amaierako lehen xedapenaren 4. apartatuaren bidez. Aipatutako fou dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen du. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

[32] Letra hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

informazioa. Horretarako, bereiz zenbatuko dira ondasun eta zerbitzuen entregak eta eskurapenak.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari dagokionez, ondasun eta zerbitzuen entregak eta eskurapenak hartuko dira eragiketatzat. Batzuetan zein besteetan, aitorpenean sartu behar dira ohiko eragiketak, noizbehinkakoak, higiezinekin egindako eragiketak eta eman edo jasotzen dituzten diru laguntza, sorospen edo laguntza ez-itzulgarriak.

Ondorengo apartatuan jasotzen diren salbuespenak kontuan hartuta, urteko aitorpenean honako eragiketa hauek sartu behar dira: Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta eta horretatik salbuetsi gabe dauden ondasun eta zerbitzuen entregak, prestazioak edo eskurapenak, bai eta zerga horri lotu gabe edo horretatik salbuetsita daudenak ere.

Aseguru entitateek aseguru eragiketak jaso behar dituzte euren urteko aitorpenean. Horretarako, jasotako prima edo kontraprestazioen zenbatekoa eta ordaindutako kalte-ordainena edo prestazioena hartuko dira kontuan; eragiketa horiei, dena dela, inolaz ere ez zaie aplikatuko ondorengo apartatuko a) letran xedatutakoa.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarri zaien eragiketak egiten dituzten subjektu pasiboek eta araubide horretara bildutako eragiketen hartzaileak diren subjektu pasiboek urte naturalean sortutako zenbatekoak jaso beharko dituzte urteko aitorpenean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 37/1992 Legearen 75. artikuluan aipatutako sortzapen erregela orokorraren arabera; eragiketa horiek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 37/1992 Legearen 163. terdecies artikuluan xedatutakoaren arabera urte naturalean sortutako zenbatekoei dagokienez jaso beharko dira urteko aitorpenean ere.Apartatu honen bigarren paragrafoan xedatutakoaren salbuespen moduan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarri zaien eragiketak egiten dituzten subjektu pasiboek eta Jabetza horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legea aplikagarri zaien entitateek beren urteko aitorpenean jaso behar duten informazio osoa emango dute, urteko konputuko oinarri baten gainean. Era berean, kutxa irizpidearen araubide berezian sartutako eragiketen hartzaile diren subjektu pasiboek aurreko paragrafoan eragiketa horiei buruz aipatutako informazioa eman beharko dute urteko konputuko oinarri baten gainean.

**2.** Aurreko apartatuan jasotakoa jasota ere, aitorpenetik salbuetsita egongo dira honako eragiketa hauek:

a) Zergapekoek fakturarik egin eta eman beharra sortu ez duten ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak, bai eta jasotzailearen identifikazio datuak jaso beharra edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziko eskuratzaileak igorritako ordainagiria sinatu beharra sortu ez duten eragiketak ere..

b) Zergapekoen enpresa eta lanbide jardueratik kanpo egindako eragiketak.

c) Ondasunen edo zerbitzuen doako entrega, prestazio edo eskurapenetatik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotu gabe daudenak edo horretatik salbuetsita daudenak.

d) Pertsona fisikoek edo nortasun juridikorik gabeko entitateek beste edozein enpresa edo lanbide jardueratatik kanpo egindako ondasun errentamenduak, Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsiak.

e) Efektu zigilatu edo estankatuen eskurapenak eta frankeo ikurrenak. Kanpoan gelditzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 136.Bat.3.a) artikuluan jasotakoaren arabera bilduma-gai izendatuta daudenak.

f) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 20. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako gizarte izaeradun entitate edo establezimenduek egindako eragiketak (beren jarduera sektorekoak izanez gero), baldin eta haien ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak zergatik salbuetsita badaude, erregelamendu honetako 39. artikuluaren 1. apartatuan jasotakoa eragotzi gabe.

g) Merkantzien inportazioak eta esportazioak, bai eta zergapekoak Espainiako lurraldetik kanpoko establezimendu iraunkorretatik edo halako establezimenduetara zuzenean egindako eragiketak ere. Alabaina, horiek aitortu beharrekoak izango dira zergapekoaren egoitza Espainian dagoenean eta zergapekoarekin eragiketa egin duen pertsonak edo entitateak lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu batetik jarduten duenean.

h) Espainiako lurralde penintsularraren edo Balear uharteen eta Kanariar uharteen, Ceutaren edo Melillaren arteko bidalketak eragiten dituzten ondasun entregak eta eskurapenak.

i) Oro har, Gipuzkoako lurralde historikoko Zerga Administrazioari informazioa aldizka eman beharra dakarten eragiketa guztiak, baldin eta, horren ondorioz, sekzio honetan araututako aitorpenaz besteko berariazko aitorpenetan jasota badaude eta eduki berdina badute.

**3.** Erregelamendu honetako 39. artikuluaren 2. apartatuan aipatutako zergapekoek urteko eragiketen aitorpenean honako hauek ere sartu behar dituzte: enpresa eta lanbide jardueretatik kanpo egin zaizkien ondasun edo zerbitzu eskurapenetan dena delako urte naturalean 3.005,06 euroko kopurua gainditu duten pertsona eta entitateak, haien izaera edo jitea edozein izanik ere, honako hauek izan ezik:

a) Merkantzien inportazioak.

b) Espainiako lurralde penintsularraren edo Balear uharteen eta Kanariar uharteen, Ceutaren edo Melillaren arteko bidalketak eragiten dituzten ondasun eskurapenak.

c) Artikulu honen aurreko apartatuko e) eta i) letretan ezarritakoak.

Halaber, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako Sektore publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 3. artikuluaren 2. apartatuan aipatutako administrazio publikoetako entitateek aitorpenean

zerrendatu behar dituzte beren edozein kopurutako diru laguntzak, sorospenak eta laguntzak jaso dituzten pertsona eta entitate guztiak, horien izaera edo jitea edozein izanik ere. Nolanahi ere, kasu honetan artikulu honen aurreko apartatuko i) letran ezarritako salbuespena aplikatu behar da.

**4.** Erregelamendu honek 39. artikuluaren 3. apartatuan jasotako zergapekoek bertan aipatutako ordainketak sartu behar dituzte eragiketen urteko aitorpenean, egotzitako pertsona bakoitzari zergaldi berean guztira 300,51 euro baino gehiago ordainduz gero.

**5.** Erregelamendu honetako 39.1 artikuluan aipatutako aitorpen betebeharrak ez die eragingo eragiketa hauei, Jabetza horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legea aplikagarri zaien entitateei dagokienez:

- Erabilera eta kontsumo komunitariorako energia elektrikoa eta edozein motatako erregaiak hornitzeko eragiketak.

- Erabilera eta kontsumo komunitariorako ura hornitzeko eragiketak.

- Eremu eta elementu komunei lotutako ondasun eta eskubideak ziurtatzea helburu duten aseguruetatik eratorritako eragiketak.

**6.** Erregelamendu honek 39. artikuluaren 1. apartatuan aipatutako aitorpen betebeharrak ez die eragingo eragiketa hauei, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 20. artikuluaren hiru apartatuan aipatutako izaera sozialeko establezimendu pribatuei dagokienez:

- Ura, energia elektrikoa eta erregaiak hornitzeko eragiketak.

- Aseguruetatik eratorritako eragiketak.

### 42. artikulua. Hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpena betetzea.

**1.** Eragiketen urteko aitorpenean datu hauek adierazi behar dira:

a) Aitortzailearen izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Aitorpenean jasotako pertsona edo entitate bakoitzaren izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia edo, hala badagokio, establezimenduaren estatu kideak eragiketa partekatzen duen enpresari edo profesionalari emandako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Aitorpenaren urte naturalean pertsona edo entitate bakoitzarekin egindako eragiketen guztizko zenbatekoa, eurotan adierazia.

d) Bereziki, negozio lokalen errentamenduak, alderdi berberen arteko gainerako eragiketatik bereizita; nolanahi, erregelamendu honek 41. artikuluaren 1.

apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako denak batera hartu behar dira kontuan. Honelako kasuetan, errentatzaileak datu hauek zehaztu behar ditu: errentarien izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta errentan dauden higiezinak non dauden jakiteko behar diren katastroko erreferentzia, finka zenbakia eta beharrezko gainerako datu guztiak.

e) Aseguru entitateek beste eragiketa batzuetatik bereizita agertu behar dituzte aseguru eragiketak. Horretarako, aseguruen arloko jardunean jasotako prima edo kontraprestazioen zenbatekoa eta ordaindutako kalte-ordainen edo prestazioena zehaztu behar dituzte. Hala ere, aseguru eragiketak bereiz identifikatu behar badira ere, erregelamendu honek 41. artikuluaren 1. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako haien zenbateko osoa beste eragiketa guztien zenbatekoari batu behar zaio.

f) Bidai agentziek bereiz adierazi behar dituzte beraiek bitartekari gisa besteren izenean eta kontura aritzen diren zerbitzu prestazioak, hain zuzen ere 2013ko otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako Fakturazio betebeharrei buruzko Erregelamenduak hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunak betetzen dituztenak.

Halaber, bereiz adierazi behar dituzte garraio zerbitzuen jasotzaileei bidaiarien eta haien fardelen garraiorako besteren izenean eta kontura egiten dizkieten bitartekaritza zerbitzuak, aurretik aipatutako hirugarren xedapen gehigarriko 3. apartatuan ezarritakoarekin bat etorriz.

g) Bereizita aitortu behar dira sozietateek, elkarteek, profesionalen elkargoek eta beste entitate batzuek, beste funtzio batzuen artean, erregelamendu honek 39. artikuluaren 3. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz hirugarrengoen kontura egiten dituzten euren bazkideen, kideen edo elkargokideen lanbide-ordainsarien edo jabetza intelektual edo industrialaren eskubideen edo egile-eskubideen eta beste batzuen kobrantzak.

h) Aitorpenean ageri den pertsona edo entitate bakoitzak eskudirutan jasotako 6.000 eurotik gorako zenbatekoak azaldu behar dira.

i) Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako entregak izan diren edo izango diren ondasun higiezinen eskualdaketen kontraprestazio gisa jasotako kopuruak zehaztu behar dira, alderdi berberen artean egindako bestelako eragiketatik bereizita.

j) Alderdi berberen artean egindako bestelako eragiketetatik bereizita zehaztu behar dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarri zaien eragiketak. Eragiketa horiek irizpide hauei jarraituz jaso beharko dira:

- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 37/1992 Legearen 75. artikuluan jasotako sortzapen erregela bereziaren arabera sortu diren momentuan, eragiketa horiei araubide berezia aplikagarri izan ez balitzaie bezala.

- Eragiketa horien zerga Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 37/1992 Legearen 163. terdecies artikuluan jarritako irizpideei jarraituz dena delako zenbatekoei dagokienez osorik edo partzialki sortzen den momentuan.

k) Alderdi berberen artean egindako bestelako eragiketetatik bereizita zehaztu beharko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 37/1992 Legearen 84.bat.2 artikuluan jasotakoaren arabera subjektu pasiboa hartzailea duten eragiketak.

l) Alderdi berberen artean egindako bestelako eragiketatik bereizita zehaztu beharko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuaren Eranskineko bosgarren apartatuan definituta dagoen aduanetakoez besteko gordailu araubideari lotuta dauden edo lotzekoak diren ondasunei buruzkoak izateagatik Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden eragiketak.

**2.** Pertsona edo entitate bakoitzarekin egindako eragiketen guztizko zenbatekoa zehazteko, irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta eta horretatik salbuetsi gabe dauden eragiketetan, kontraprestazioen guztizko zenbatekoa adierazi behar da, zerga horregatik jasanarazitako edo jasandako kuotak eta errekarguak barne.

b) Ondasunaren eskualdatzaileari edo zerbitzuaren emaileari, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzko araubide bereziaren arabera, konpentsazioren bat jasotzeko eskubidea sortarazi dioten eragiketetan, kontraprestazioen guztizko zenbatekoa adierazi behar da, jasotako edo ordaindutako konpentsazioak gehituta.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuko 84. artikuluaren 1. apartatuaren bigarren paragrafoan aipatutako eragiketetan, kontraprestazioen guztizko zenbatekoa adierazi behar da

c) Sekzio honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauxe izango da kontraprestazioaren guztizko zenbatekoa: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuaren 78., 79. eta 80. artikuluetan oinarri ezargarria kalkulatzeko jasotako arauak aplikatuz ateratzen den kopurua, zergari lotu gabe edo horretatik salbuetsita dauden eta eragiketen urteko aitorpenean sartu behar diren eragiketak barne. Nolanahi ere, artikulu honen 4. apartatuan xedatutakoa bete behar da.

**3.** Bitartekaritza eragiketetan eta agentzia edo komisioko eragiketetan, agenteak edo komisiodunak besteren izenean diharduenean, zerbitzu prestazioei dagozkien kontraprestazioen guztizko zenbatekoa adierazi behar da aitorpenean, Balio Erantsiaren gaineko Zergarengatik jasanarazitako edo jasandako kuotak gehituta.

Agenteak edo komisiodunak bere izenean jarduten badu, ondasunak edo zerbitzuak berak jaso, eman edo egin dituela pentsatuko da, eta, ondorioz, haien kontraprestazio, kuota eta errekarguen guztizko zenbatekoa aitortu behar da.

**4.** Aurreko 2. apartatuaren c) paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, eragiketen guztizko zenbatekoa garbi aitortu behar da, hau da, itzulketak edo deskontuak eta hobariak kontuan hartu gabe eta urte natural berean ondoriorik gabe gelditzen

diren eragiketak zenbatu gabe. Gainera, kontuan eduki behar dira urte natural horretan prezioan gertatutako aldakuntzak.

Era berean, kaudimengabeziaren ondorioz, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuko 80. artikuluaren 3. apartatuan xedatutakoaren arabera, sekzio honetan araututako aitorpenaren urte naturalean Balio Erantsiaren gaineko Zergaren oinarri ezargarria aldatu bada, aldaketa horiek kontuan eduki behar dira aitortu beharreko eragiketen guztizko zenbatekoa kalkulatzean.

## 43. artikulua. Hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpeneko denbora egozpenaren irizpideak.

**1.** Zergapekoak aitorpenaren urte naturalean egin dituen eragiketak agertu behar dira urteko aitorpenean.

Horretarako, hona hemen zeren arabera ezarriko den noiz eginak diren eragiketak: eragiketok egiaztatzeko faktura edo kontabilitate agiria erregistro oharrean jaso behar diren epean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 69. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Dena den, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarri zaien eta aurreko artikuluaren 1. apartatuko j) letran aipatutako eragiketak jaso behar dira, dena delako zenbatekoei dagokienez, beren sortzapen osoa edo partziala gertatzen den momentuari dagokion urte naturalean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 37/1992 Legearen 163. terdecies artikuluan jarritako irizpideei jarraituz.

**2.** Erregelamendu honek 42. artikuluaren 4. apartatuan aipatutako kasu guztietan, eragiketa jaso behar zen urteko aitorpenarenaz bestelako urte naturalean kasu horiek gertatzen direnean, aldaketa horiek gertatu diren urte naturaleko aitorpenean jaso behar dira. Horretarako, aldaketa horiek kontuan hartuta jasoko da aitorpenean pertsona edo entitate berarekin egindako eragiketen zenbateko osoa.

Halaber, erregelamendu honetako 42. artikuluaren 4. apartatuan aurreikusiriko kasuetan, eragiketa bat berez jaso behar den hiruhileko naturala ez den beste batean gertatuz gero kasuok, aldaketa eragin duen inguruabarra gertatu den hiruhileko naturalari dagokion atalean sartu behar dira.

**3.** Bezeroen aurrerakinak eta hornitzaileei zein bestelako hartzekodunei emandako aurrerakinak eragiketen urteko aitorpenean agertu beharreko eragiketak dira. Gero, eragiketa egiten denean, eragiketaren guztizko zenbatekoa adierazi behar da aitorpenean, baina aurretik aitortutako aurrerakinaren zenbatekoa gutxituta, baldin eta gutxipenaren emaitza handiagoa bada, pertsona edo entitate berarekin egindako gainerako eragiketekin batera, erregelamendu honek 41. artikuluaren 1. apartatuan ezarritako gehieneko zenbatekoa baino.

**4.** Erregelamendu honek 39. artikuluaren 2. apartatuko bigarren paragrafoan aipatutako zergapekoek emandako diru laguntzak, sorospenak edo laguntzak

ordainketa agindua luzatu den egunean ordaindutzat joko dira. Ordainketa agindurik eman ez bada, ordainketa egin denean ordaindutzat joko dira.

**5.** Erregelamendu honek 42. artikuluaren 1. apartatuko h) letran aipatutako eskudirutako kopuruak ezin badira sartu eragiketak egin diren urte naturaleko aitorpenean, aurkeztu ondoren jaso direlako edo une horretan 6.000 euroko zenbatekoa gainditu ez delako, zergapekoek bereizita sartu beharko dituzte kobrantza gertatu edo 6.000 euroko zenbatekoa gainditu ondorengo urte naturaleko aitorpenean.

## *2. sekzioa. Erregistro liburuetan jasotako eragiketei buruz informatzeko betebeharra.*

### 44. artikulua. (edukirik gabe)[33]

## *3. sekzioa. Kontuei, eragiketei eta aktibo finatzarioei buruz informatzeko betebeharra.*

### 45. artikulua. Kreditu entitateetako kontuei buruz informatzeko betebeharra.

**1.** Kreditu entitateek eta indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz banku edo kreditu trafikoan diharduten gainerako entitateek urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu behar dute Espainiako lurraldeko zein kanpoko establezimenduetan zabalik edo hirugarrengoen eskura jarrita dituzten kontu guztiei buruz.

Espainiako lurraldetik kanpoko establezimenduetan irekitako kontuei dagokienez, ez dago informaziorik eman beharrik Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik ez duten pertsona eta entitate ez-egoiliarrez.

**2.** Zerga Administrazioari datu hauek eman behar zaizkio:

a) Kontuen identifikazio osoa.

b) Kontuen titular edo onuradun diren edo haietan baimenduta dauden pertsona eta entitateen izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Abenduaren 31n eduki dituzten saldoak eta urteko azken hiru hiabetleko batez besteko saldoa.

---

[33] Artikulu hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko zazpi apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak

d) Eredua onesten duen foru aginduak ezartzen duen informazioa zehazteko behar diren gainerako datu guztiak.

**3.** Aitorpenean, kontu korronte, aurrezki kontu, eperako ezarpen, kreditu kontu eta bestelako kontu guztiei buruzko informazioa agertu behar da, modalitatea edo izendapena edozein izanik ere, kontuan hartu gabe ordainketarik, atxikipenik edo konturako sarrerarik izan den.

Aitorpenaren urtean kontuen titular edo onuradun edo haietan baimendu izan diren pertsona eta entitateen izen-deiturak edo sozietate izenak edo izendapen osoak eta identifikazio fiskaleko zenbakiak adierazi behar dira.

## 45 bis artikulua. Elkar laguntzaren alorrean finantza-kontuei buruz informatzeko obligazioa.[34]

1. Zergen foru arau orokorraren 1.2 eta 35.1 artikuluetan eta erregelamendu honen 38.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, elkar laguntzari buruzko kasuan kasuko araudi aplikagarrian ezarritako zirkunstantziak betetzen direnean, finantza-entitateek aitorpen informatibo bat aurkeztu behar dute haietan irekitako finantza-kontuei buruz.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako kontuei dagokienez, eta elkar laguntzari buruzko araudia aintzat hartuta, finantza-entitateek identifikatu behar dute araudi horretan ezarritakoaren arabera kontu horien titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza edo nazionalitatea. Identifikazio hori egiteko, aplikagarriak gertatzen diren bidezko dilijentzia arauei jarraituko zaie.

3. Eman beharreko informazioan sartuko da elkar laguntzari buruzko araudiak kasuan kasu exijitzen duena, eta horrez gainera, honako hau beti: kontuen identifikazio osoa, eta aurreko paragrafoan aipatutako pertsonen izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta egonez gero, haien identifikazio fiskaleko zenbakia edo horren antzekoa.

4. Elkar laguntzari buruzko kasuan kasuko arau aplikagarrian beste arau bat aplikatzeko aukera aurreikusten bada azken hori aldekoagoa izateagatik, zirkunstantzia hori adierazi beharko da artikulu honetan hizpide den informazio obligazioa betetzeko unea iritsi baino lehen.

5. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak foru agindu bidez onartuko du bidezkoa den aitorpen eredua.

## 46. artikulua. Maileguei eta kredituei eta eskudiruaren mugimenduei buruz informatzeko betebeharra.

---

[34] Artikulu hau urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUAK gehitu du, amaierako lehen xedapenaren 5. apartatuaren bidez. Aipatutako fou dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen du. Artikulu honek garatzen dituen zerga betebehar formalak exijigarriak izango dira lehenengo aldiz, elkar laguntzari buruzko kasuan kasuko arau aplikagarrian hala ezartzen denean.

Kreditu entitateek eta indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz banku edo kreditu trafikoan diharduten gainerako entitateek urteko aitorpen informatibo hauek aurkeztu behar dituzte:

a) Beraiek emandako kreditu eta maileguetatik abenduaren 31n 6.000 eurotik gorako saldoa eduki dutenei buruzko aitorpena; aitorpenean, kreditu eta mailegu bakoitzaren titularraren izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia agertu behar dira.

b) Eskudirutan edo bankuko billetetan egiten diren 3.000 eurotik gorako ezarpenei, funtsen erabilpenei eta edozein agiriren kobrantzei buruzko aitorpena, bitarteko fisiko edo elektronikoa eta moneta (euroa zein besteren bat) edozein izanik ere.

Aitorpen informatibo honetan ez dira sartuko erregelamendu honetako 50. artikuluan ezarritakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi beharreko eragiketak.

Aitorpenean eragiketa bakoitzaren zenbatekoa adierazi behar da eurotan, zer izan den zehaztu behar da (ezarpena, baliatzea edo kobrantza), data jarri behar da, nork egin duen argitu behar da eta kargua edo ordainketa egin den kontuaren zenbakia adierazi behar da; horiez gain, zerga eredua onetsi duen foru aginduan ezarritako informazioa zehazten lagundu dezaketen datu guztiak emango dira.

## 47. artikulua. Kreditu edo kargu txartelen bidez egindako kobrantzei buruz informatzeko betebeharra.

Indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz Espainian egoiliartutako enpresariei eta profesionalei kreditu eta kargu txartelen bidezko kobrantzak kudeatzeko zerbitzua ematen dieten banku edo kreditu entitateak eta gainerako entitateak behartuta daude kobrantza sistema horri atxikitako enpresariek eta profesionalek urtean egindako eragiketen aitorpen informatibo bat aurkeztera, kobrantza horien urteko zenbateko garbia 3.000 euro baino gehiago izanez gero.

Aitorpenean enpresari edo profesional bakoitzaren identifikazio osoa adierazi behar da, bai eta sisteman jarduteko erabiltzen duen merkataritza zenbakia, urtean fakturatutako zenbatekoa eta kobrantzak egiteko erabiltzen dituen kontuak ere; horiez gain, zerga eredua onetsi duen foru aginduan ezarritako informazioa zehazten lagundu dezaketen datu guztiak eman daitezke.

## 48. artikulua. Balore, aseguru eta errentei buruz informatzeko betebeharra.

**1.** Higigarrien baloreak gordailatuta dituzten entitateek ondoren zehaztuko den informazioa eman behar diote Zerga Administrazioari, urteko aitorpen bat aurkeztuta:

a) Urte bakoitzeko abenduaren 31n, entitate juridikoen kapitalean edo funts propioetan dauden eta merkatu antolatuetan negoziatuak diren akzio edo partaidetzen titularrak diren pertsona eta entitateen izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Gainera, titularren

akzioen eta partaidetzen kopurua eta mota zehaztu behar dira, eta haien balioa ere bai, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauak 14. artikuluaren 4. apartatuan xedatutakoaren arabera.

b) Urte bakoitzeko abenduaren 31n, entitateen kapital propioak hirugarrengoei laga izana adierazten duten eta merkatu antolatuetan negoziatuak diren baloreen titularrak diren pertsona edo entitateen izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Gainera, titularren baloreen kopurua eta mota zehaztu behar dira, eta haien balioa ere bai, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauak 14. artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoaren arabera.

**2.** Inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileek, Espainiako entitate merkaturatzaileek eta zerbitzu prestazio askearen araubidean ari diren entitate kudeatzaileen ordezkariek ondoko datuak eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, urteko aitorpen bat aurkeztuta: abenduaren 31n inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare funtseko akzio edo partaidetzen titularrak diren pertsona eta entitateen izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

Horiez gain, titular bakoitzaren akzioen eta partaidetzen kopurua eta mota zehaztu behar dira eta, behar izanez gero, zer taldetakoak diren ere bai, eta abenduaren 31n duten likidazio balioa adierazi behar da.

Orobat, inbertsio erakunde espainiarren akzio edo partaidetzak mugaz haraindi merkaturatzen diren kasuan, informazioa emateko betebeharra akzio edo partaidetza horien titular gisa hirugarrengo ez-egoiliarren kontura ageri den atzerriko entitate merkaturatzaileak izango du, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen maiatzaren 17ko 11/2016 Foru Dekretuak lehen xedapen gehigarriaren 1. apartatuan ezarritakoarekin bat. Hori guztia kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak zerga Administrazioaren aurrean duen erantzukizunaren kaltetan izan gabe egingo da, aipatutako xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xedatutakoari jarraituz.[35]

Inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak bigarren mailako merkatu batean edo baloreak negoziatzeko sistema antolatu batean negoziaziorako onartu badira, aurreko paragrafoan aipatutako informazio betebeharra akzioak edo partaidetzak gordailatuta dituen entitateari dagokio.

**3.** Aseguru entitateek, zerbitzu prestazio askearen araubidean ari diren aseguru entitateen ordezkariek eta finantza entitateek urteko aitorpena aurkeztu behar dute ondoko informazioarekin batera:

[35] Paragrafo hau artikulu bakarraren bederatzi apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

a) Abenduaren 31n bizitza aseguru baten hartzaile izan diren guztien izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia; egun horretako erreskate balioa ere adierazi behar da.

b) Kapital bat (dirua, ondasun higigarriak zein higiezinak) ematearen ondorioz abenduaren 31n aldi baterako zein biziarteko errenta baten onuradun izan diren guztien izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoaren arabera; egun horretako kapitalizazio balioa adirazi behar da.

**49. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi ez den kontuen edo bestelako eragiketen titularrei buruz informatzeko betebeharra.**

**1.** Erregelamendu honek 35. artikuluaren 3. apartatuan jasotakoarekin bat etorriz, kreditu entitateek hiru hilean Zerga Administrazioari eman behar diote identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi ez duen edo apartatu horretan ezarritako epealdiaz kanpo adierazi duen titularraren kontu eta eragiketen berri, bai eta kontuak edo eragiketak ezeztatu badira ere.

**2.** Aitorpenean datu hauek adierazi behar dira, gutxienez:

a) Aitorpeneko pertsona edo entitate bakoitzaren izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, helbidea eta, beharrezkoa izanez gero, identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Kontuaren edo eragiketaren izaera edo mota eta zenbakia, eta haren saldoa edo zenbatekoa.

**50. artikulua. Kreditu entitateek txekeen igorpenari buruz informatzeko betebeharra.**

**1.** Erregelamendu honek 35. artikuluaren 4. apartatuan ezarritakoarekin bat etorriz, kreditu entitateek urtero informazio hau eman behar diote Zerga Administrazioari:

a) Eskudiruaren, ondasunen, baloreen edo beste txeke batzuen kontra ematen diren txekeei buruzko informazioa; kontu bankario baten kontra emandakoak betebehar honetatik salbu daude.

b) Eskudirutan eta ez, ordea, kontu bankarioan, ordaintzen diren txekeak, baldin eta kreditu entitate batek eginak izan badira edo, hainbat pertsonak emanak izanik, ageriko balioa 3.000 eurotik gorakoa bada.

**2.** Horretarako, kreditu entitateek ondoko datuak jasotzen dituen aitorpena aurkeztu behar dute:

a) Txeke bakoitzaren hartzailearen edo, bestela, dirua kobratu duten pertsonen izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Txeke bakoitzaren serie zenbakia eta zenbatekoa; entitateak emandako txekeak eta ordainduak bereiztu behar dira. Gainera, beste kreditu entitate batzuek eta beste pertsona batzuek emandako 3.000 eurotik gorakoak ere bereiztu behar dira.

### 51. artikulua. Aktibo finantzarioekin egindako zenbait eragiketari buruz informatzeko betebeharra.

**1.** Ondoren azalduko direnek aktibo finantzarioekin egindako eragiketa jakin batzuen urteko aitorpena aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, eta aurkeztu ere artikulu honetan ezarritakoari lotuta:

a) Fede-emaile publikoek, inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileek, inbertsio-funtsetako partaidetzak merkaturatzen dituzten entitateek, kreditu entitate eta establezimendu finantzarioek, balore sozietate eta agentziek, gainerako finantza-bitartekariek eta pertsona fisiko eta juridiko guztiek, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari, eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko foru arauetan eta arlo honetako xedapenak ezarri dituzten gainerako arauetan xedatutakoarekin bat etorriz.[36]

Halaber, kapital aldakorreko inbertsio sozietateek ere aurkeztu behar dute aitorpena Inbertsio kolektiboko entitateei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeko 32. artikuluaren 7. apartatuan ezarritako kasuetan.

b)[37] Merkatu antolatuetan kotizatu gabeko titulu edo balore izendunak jaulkitzen dituzten entitateak, titulu edo balore horiek jaulkitzeko eragiketei dagokienez, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Balore Merkatuari buruzko Legearen testu bateginak, 315. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta gerokoen eta aukeren merkatuetako sozietate artezkariak, merkatu horietan egindako eragiketei dagokienez, betiere Per-tsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Sozietateen gaineko Zergari eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko foru arauek finantza bitartekarientzat aurreikusitako eran.

c) Baloreen Erregistro, Konpentsazio eta Likidazio Sistemak kudeatzen dituen Sozietateak edo idaztoharren bidez agertarazten den Estatuaren Zorra harpidetu, eskualdatu eta itzultzen lan egiten duten entitate kudeatzaileek eragiketa horiei dagokienez, eta, behar denean, haien etekinei ere bai.

**2.** Artikulu honetan ezarritako informazio betebeharra betetzeko, eragiketa batean inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaile batek edo kapital aldakorreko inbertsioko sozietate batek (aurreko 1.a apartatua) edo 1.b apartatuan aipatutako entitateetako batek hartu badu parte fedemaile edo finantza

[36] Paragrafo hau urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUAK aldatu du, amaierako lehen xedapenaren 6. apartatuaren bidez. Aipatutako fou dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen du. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

[37] Letra hau ekainaren 28ko 13/2016 FORU DEKRETUAren 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak hainbat erregelamendu aldatzen ditu zerga baterakuntzaren araubide berrira egokitzeko. Aldaketa 2016ko uztailaren 9an sarzten da indarrean (2016/07/08ko GAO).

bitartekariekin batera (aurreko 1.a apartatua), aitorpen informatiboa fedemaileak edo finantza bitartekariak aurkeztu behar du.

Atzerrian jaulkitako baloreen eta atzerrian eratutako tresna eratorrien kasuan, ondokoek aurkeztu behar dituzte aitorpenak: baloreak Espainian merkaturatu dituzten entitateek eta zerbitzu prestazio askearen araubidean ari diren entitate kudeatzaileen ordezkariek edo, bestela, baloreak Espainian gordailatu dituzten entitateek.

**3.** Aurreko 1. apartatuan aipatutako informazio betebeharrak Espainiako lurraldetik kanpo egindako eragiketak eta kontratuak hartzen ditu, baldin eta Espainiako lurraldean egoitza edo establezimendu iraunkorra duen bitartekari batek, bere kabuz edo besteren kontura, parte hartu badu.

**4.**[38] Aurreko 1. apartatuan aipatutako zergapekoek eragiketetan zeintzuk esku hartu duten jakinarazi behar diote zerga Administrazioari, haien identifikazio osoa emanez eta datu hauek ere adieraziz: nolako izaeraz esku hartu duten, zer partaidetza portzentaje duten, izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, zerga helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia, efektu publiko, balore, titulu eta aktibo mota eta kopurua, eta, azkenik, eragiketa bakoitzaren zenbatekoa, data eta, halakorik izan bada, etekina edo emaitza.

**5.** Artikulu honetan ezarritako informazio betebeharra atxikipenari lotutako eragiketei dagokienez betetzat joko da atxikipenen urteko laburpena aurkeztuz gero.

**6.** Aurreko 4. apartatuan ezarritako informazioa eman beharra eragotzi gabe, Zerga Administrazioari Hainbat zerga neurriren apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarriko 3. apartatuan aipatutako informazioa eman behar diote mailegatuko baloreak negoziatzen diren merkatuan ari diren entitateek edo bertako konpentsazio eta likidazio sistemako kideek, baloreak mailegatzeko eragiketetan bitartekari lanak egiten dituzten edo haietan parte hartzen duten finantza entitateek eta Baloreen Erregistro, Konpentsazio eta Likidazio Sistemak kudeatzen dituen Sozietateak edo, bestela, Baloreen Merkatuei buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 31. artikuluaren 4. apartatuan ezarritako baloreak negoziatzeko merkatu edo sistema antolatuetako erregistro, konpentsazio eta likidazio lanak egiten dituen entitateak.

## 52. artikulua. Kooperatiben kapital sozialari egindako ekarpenen itzulketa eta eskualdaketei buruz informatzeko betebeharra.

**1.** Bazkide pertsona fisikoei ekarpenak itzultzeko eskubidea aitortzen dizkietenean, bai eta bazkide horiek beren ekarpenak eskualdatzen dituztenean, kooperatibek eragiketa horien urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu behar dute.

---

[38] Apartatu hau urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUAK aldatu du, amaierako lehen xedapenaren 6. apartatuaren bidez. Aipatutako fou dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen du. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak

Horrez gain, aitorpen horretan kooperatibek informazioa jaso behar dute bazkide diren pertsona fisikoek euren ekarpenen gaineko eskubide errealak eratu edo laga dituztenean.

**2.** Horretarako, kooperatibek gutxienez ondoko datuak jasotzen dituen aitorpena aurkeztu behar dute:

a) Bazkideen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, kasu hauetan: ekarpenak itzultzeko eskubidea aitortu zaienean, ekarpenak eskualdatzen dituztenean edo haien gaineko eskubide errealak eratzen edo lagatzen dituztenean.

b) Eragiketa mota: eskubide erreal baten itzulketa, eskualdaketa edo eraketa zein lagapena.

c) Ekarpen sozialak itzuliz gero, aitortutako itzulketa eskubidearen zenbatekoa. Ekarpenak eskualdatu edo eskubide errealak eratu edo lagaz gero, adierazi beharko da zer balorazio duten ekarpen horiek eskualdaketa egunean edo eskubide errealak eratu edo lagatzen direnean.

d) Itzulketa edo eskualdaketa eragiketaren izaera: "inter vivos” egintza edo “mortis causa” oinordetza.

e) Zer eragiketek ekarri duten berekin bazkide baten ekarpena kooperatiba batetik bestera aldatzea Kooperatiben zerga araubideari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauak 24.d) artikuluan jasotakoaren arabera.

## 53. artikulua. Atzerrian dauden finantza entitateetako kontuei buruz informatzeko betebeharra.

**1.** Bai pertsona fisikoek eta juridikoek, bai pertsona edo entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek eta bai Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako entitateek urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu behar dute banku edo kreditu trafikoan diharduten entitateetan irekita dauden atzerriko kontu guztiei buruz, baldin eta arestian aipatutako pertsona edo entitateak badira kontuon titularrak, edo ordezkari, baimendu edo onuradun gisa agertzen badira kontuotan, edo kontuon gaineko erabilpen ahalmena badute, edo kontuon titular errealak badira. Informazio hori guztia urte bakoitzeko abenduaren 31ri buruzkoa izan behar da.

Betebehar bera izango dute aitorpenari dagokion urteko edozein unetan kontuon titular, ordezkari, baimendu edo onuradun izan direnek, kontuon gaineko xedatze-ahalmena izan dutenek nahiz kontuon titular erreal izan direnek.

Artikulu honetan jasotakoaren ondorioetarako, honako hauek joko dira titular errealtzat: Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluaren 2. apartatuan ezartzen denarekin bat titular errealtzat jotzen direnak, 2. apartatu horretan aipatutako pertsona edo tresnen izenean dauden kontuei dagokienez, haien egoitza atzerrian badago edo atzerrian eratu badira.

**2.** Zerga Administrazioari datu hauek eman behar zaizkio:

a) Banku edo kreditu entitatearen sozietate-izena edo izendapen osoa eta haren helbidea.

b) Kontuen identifikazio osoa.

c) Kontuok zein egunetan ireki edo kitatu diren edo, bestela, baimena zein egunetan eman eta ezeztatu den.

d) Kontuen abenduaren 31ko saldoak, eta urteko azken hiru hilabeteko batez besteko saldoa.

Honako hauei buruzko informazioa eman behar da: kontu korronteak, aurrezki kontuak, eperako ezarpenak, kreditu kontuak eta diruzko beste edozein kontu edo gordailu, haien modalitatea edo izena edozein dela ere, nahiz eta ordainsaririk jaso ez.

**3.** Abenduaren 31ko saldoei eta urteko azken hiru hilabeteko batez besteko saldoari buruzko informazioa honako honek eman behar du: egun horretan kontuaren titular, ordezkari, baimendu edo onuraduna denak, edo kontuon gaineko erabilpen ahalmena duenak edo titular errealtzat jotzen denak.

Gainerako titular, ordezkari, baimendu edo onuradun, xedatze ahalmendun edo titular errealek, berriz, adierazi behar dute kontuok zer saldo zuten izaera hori galdu zuten egunean.

**4.** Artikulu honetan ezartzen den informazio betebeharra ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

a)[39] Haien titularrak Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 12. artikuluan aipatutako entitateak badira.

b) Kontuon titularrak hauek badira: pertsona juridikoak eta gainerako entitateak nahiz ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrak. Kontuok, dena dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean eta identifikatuta, gainera, haien zenbakiaren, irekita dauden kreditu entitatearen eta sukurtsalaren nahiz kokatuta dauden herrialde edo lurralderen arabera.

c) Kontuon titularrak hauek badira: pertsona fisikoak, jarduera ekonomiko bat egiten badute eta kontabilitatea Merkataritza Kodean ezarritakoaren arabera egiten badute. Kontuok, dena dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean eta identifikatuta, gainera, haien zenbakiaren, irekita dauden kreditu entitatearen eta sukurtsalaren nahiz kokatuta dauden herrialde edo lurralderen arabera.

[39] Letra hau artikulu bakarraren hamar apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

d) Kontuon titularrak hauek badira: pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako entitateak, baldin eta kontuok helbidea Espainian duten kreditu entitateen atzerriko establezimenduetan irekita badaude eta entitateok kontuoi buruzko informazioa eman behar badute erregelamendu honek 45. artikuluarekin bat etorrita, betiere kontuoi buruzko informazioa eman ahal izan bada kontua kokatuta dagoen herrialdeko araudiari jarraituz.

e) Ez da egongo kontuei buruzko informazioa eman beharrik, baldin eta aurreko 2.d apartatuan aipatutako abenduaren 31ko saldoen batura ez bada 50.000 euro baino handiagoa eta gauza bera gertatzen bada apartatu berean aipatutako batez besteko saldoei dagokienez. Baterako muga bi horietako edozein gaindituz gero, kontu guztiei buruzko informazioa eman beharko da.

**5.** Betebehar hau, eman beharreko informazioari dagokion urtearen ondorengo urteko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean bete beharko da.

Ondoz ondoko urteetan nahitaezkoa izango da aitorpena aurkeztea, baldin eta aurreko 4.e) apartatuan aipatutako baterako saldoak 20.000 euro baino gehiago hazi badira azken aitorpena aurkeztu beharra eragin zuten saldoekin alderatuta.

Edozelan ere, aitorpena nahitaez aurkeztu behar da aurreko 3. apartatuaren azken paragrafoan zehaztutako kasuetan, bertan aipatutako kontuei dagokienez.

**6.** Zergen Foru Arau Orokorrak hamaikagarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoari dagokionez, datu multzo desberdinak dira aurreko 2.a) eta 2.b) apartatuetan aipatutako informazioak, entitate eta kontu bakoitzerako.

Ondorio bererako, datutzat hartuko da aurreko 2.c) eta 2.d) apartatuetan aipatutako data eta saldo bakoitza, bai eta aurreko 3. apartatuaren azken paragrafoan aipatutako saldoa ere, kontu bakoitzerako.

### 54. artikulua. Atzerrian gordailatuta edo kudeatuta dauden edo atzerrian lortu diren balore, eskubide, aseguru eta errentei buruz informatzeko betebeharra.

**1.** Bai pertsona fisikoek eta juridikoek, bai pertsona edo entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek eta bai Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako entitateek ondasun eta eskubide jakin batzuei buruzko informazioa eman behar diote Zerga Administrazioari, urteko aitorpen informatibo baten bidez, baldin eta ondasun eta eskubideon titularrak badira edo ondasun eta eskubideon titular errealtzat jotzen badira. Informazio hori guztia urte bakoitzeko abenduaren 31ri buruzkoa izango da, eta honako ondasun eta eskubide hauen gainekoa:

a) Edozein motatako entitate juridikoetako partaidetza adierazten duten baloreak edo eskubideak.

b) Kapital propioak hirugarrengoei lagatzea adierazten duten baloreak.

c) Edozein tresna juridikori kudeaketa edo administraziorako emandako baloreak, fideikomisoei eta trustei edo ondare masei emandakoak barne, baldin eta, halakoek nortasun juridikorik izan ez arren, trafiko ekonomikoan jardun badezakete.

Artikulu honen ondorioetarako, titular erreala izango da Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluaren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera halakotzat hartzen dena.

**2.** Aitorpen informatiboak honako datu hauek jasoko ditu:

a) Entitate juridikoaren zein hirugarrengo lagapen-hartzailearen sozietate-izena edo izendapen osoa, edo tresna edo harreman juridikoaren identifikazioa, kasu bakoitzean dagokiona, bai eta haien helbidea ere.

b) Entitate juridikoen kapitaleko edo funts propioetako partaidetza adierazten duten baloreek edo eskubideek urte bakoitzeko abenduaren 31n duten saldoa.

Informazio horretan, informazioa eman behar duena titular den akzio eta partaidetzen zenbakia eta mota jaso behar da, bai eta haien guztien balioa ere.

c) Kapital propioak hirugarrengoei lagatzea adierazten duten baloreek abenduaren 31n duten saldoa.

Informazio horretan, informazioa eman behar duena titular den baloreen kopurua eta mota jaso behar da, bai eta haien balioa ere.

d) Kasuan kasuko tresna juridikoari emandako baloreek abenduaren 31n duten saldoa.

Informazio horretan, jaso behar da emandako baloreen kopurua eta mota jaso behar da, bai eta haien balioa ere.

Aitorpenari dagokion urteko edozein unetan aurreko b), c) eta d) letretan aipatutako balore eta eskubideen titular edo titular erreal izan diren eta urte horretako abenduaren 31n izaera hori galduta duten zergapekoek ere informazioa eman beharra izango dute. Halakoetan, titular edo titular erreal izateari utzi zioten egunari buruzko informazioa eman behar dute.

**3.** Aurreko 1. apartatuan zehaztutako zergapekoek atzerriko inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare funtseko akzio eta partaidetzen gaineko informazioa eman behar diote Zerga Administraziori, urteko aitorpen bat aurkeztuz, halakoen titularrak badira edo halakoen titular errealtzat jo badaitezke.

Informazio horretan hauek jaso behar dira: batetik, inbertsio kolektiboko erakundearen sozietate izena edo izendapen osoa eta haren helbidea; bestetik, akzio eta partaidetzen kopurua eta mota —hala badagokio, zer konpartimentutakoak diren ere bai—, eta, azkenik, akzio eta partaidetza horiek abenduaren 31n duten likidazio balioa.

Aitorpenari dagokion urteko edozein unetan akzio eta partaidetza horien titular edo titular erreal izan diren eta urte horretako abenduaren 31n izaera hori galduta duten zergapekoek ere informazioa eman beharra izango dute. Halakoetan, titular edo titular erreal izateari utzi zioten egunari buruzko informazioa eman behar dute.

**4.** Artikulu honen 1. apartatuan zehaztutako zergapekoek informazioa eman behar diote Zerga Administrazioari, urteko aitorpen baten bidez, honako hauei buruz:

a) Zergapekoak abenduaren 31n hartzaile diren bizitza edo baliaezintasun aseguruak, aseguru entitatea atzerrian badago; egun horretako erreskate balioa ere adierazi behar da.

b) Atzerrian dauden entitateei diruzko kapitala, eduki ekonomikodun eskubideak edo ondasun higiezin zein higigarriak ematearen ondorioz zergapekoak abenduaren 31n onuradun diren aldi baterako edo biziarteko errentak; egun horretako kapitalizazio balioa adierazi behar da.

Aurreko a) eta b) letretako kasuetan, aseguru entitatea identifikatu behar da: haren sozietate izena edo izendapen osoa eta helbidea eman behar da.

**5.** Artikulu honetan ezarritako informazioa emateko beharra ez da bete beharko honako kasu hauetan:

a)[40] Zergapekoa Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 12. artikuluan aipatutako entitateetako bat bada.

b) Zergapekoa pertsona juridiko edo entitate bat bada edo ez-egoiliarren establezimendu iraunkor bat bada, eta haren kontabilitatean modu indibidualizatuan erregistratuta badaude artikulu honetan aipatutako balio, eskubide, aseguru eta errentak.

c) Aurreko 1.a), 1.b) eta 1.c) apartatuetako bakoitzean aipatutako balioen, 3. apartatuan aipatutako likidazio balioaren, 4.a) apartatuan aipatutako erreskate balioaren eta 4.b) apartatuan aipatutako kapitalizazio balioaren batura ez bada 50.000 euro baino handiagoa. Baterako muga hori gainditzen bada, titulu, aktibo, balore, eskubide, aseguru edo errenta guztien berri eman beharko da.

**6.** Obligazio hau, eman beharreko informazioari dagokion urtearen ondorengo urteko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean bete beharko da.

Ondoz ondoko urteetan nahitaezkoa izango da aitorpena aurkeztea, baldin eta aurreko 5.c) apartatuan aipatutako balioen batura 20.000 euro baino gehiago hazi bada azken aitorpena aurkeztu beharra eragin zuten balioarekin alderatuta.

[40] Letra hau artikulu bakarraren hamaika apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

Aurretik jasotakoa jasota ere, aitorpena nahitaez aurkeztu behar da aurreko 2. apartatuko azken paragrafoan eta 3. apartatuko azken paragrafoan zehaztutako kasuetan, beren gaineko titulartasuna abenduaren 31n iraungi zaien balore, eskubide, akzio eta partaidetzei dagokienez.

**7.** Artikulu honen apartatuetan aipatutako balorazioak Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauak jasotako erregelen arabera kalkulatuta eman behar dira.

**8.** Zergen Foru Arau Orokorraren hamaikagarren zazpigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoari dagokionez, datu multzotzat hartuko dira aurreko 2.a), 3. eta 4. apartatuetan aipatutako entitate juridikoei, hirugarrengo lagapen-hartzaileei, tresna edo harreman juridikoei, inbertsio kolektiboko erakundeei eta aseguru entitateei buruzko identifikazio eta helbide datuak.

Ondorio bererako, datutzat hartuko da aurreko apartatuetan ondare elementu indibidualizatu mota bakoitzerako eskatzen den informazioa, jarraian adierazten denarekin bat:

a) 2.b) apartatuan, akzio eta partaidetza mota bakoitzeko.

b) 2.c) apartatuan, balore mota bakoitzeko.

c) 2.d) apartatuan, balore mota bakoitzeko.

d) 3. apartatuan, akzio eta partaidetza mota bakoitzeko.

e) 4.a) apartatuan, bizitza aseguru bakoitzeko.

f) 4.b) artikuluan, aldi baterako edo biziarteko errenta bakoitzeko.

Datutzat joko da, halaber, aurreko 2. apartatuko azken paragrafoan aipatutako saldoetako bakoitza, balore mota bakoitzeko, eta 3. apartatuko azken paragrafoko saldoetako bakoitza, akzio eta partaidetza mota bakoitzeko.

## *4. sekzioa. Estatuaren zor publikoarekin, lehentasunezko partaidetzekin eta beste zor tresna batzuekin egindako eragiketa jakin batzuei buruz informatzeko betebeharrak.*

### 55. artikulua. Estatuaren zor publikoarekin, lehentasunezko partaidetzekin eta beste zor tresna batzuekin egindako eragiketa jakin batzuei buruz informatzeko obligazioa.

**1.**[41] Zerga Administrazioari erregelamendu honen 51. artikuluan aipatzen den informazioa eman behar diotenek lehentasunezko partaidetzen eta beste zor

[41] Apartatu hau artikulu bakarraren hamabi apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

tresna batzuen inguruko eragiketei buruz informatu behar dute. Eragiketa horien araubidea xedapen hauetan dago ezarrita: ekainaren 26ko 10/2014 Legean, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoan (lehen xedapen gehigarria), eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituen abenduaren 26ko 5/2011 Foru Araua (lehen xedapen gehigarria). Eman beharreko informazioa erregelamendu honen 51. artikuluko 4. apartatuan adierazitakoa izango da, eta betebehar hori dutenen bitartekaritzaz egindako eragiketak izango ditu hizpide, hau da, lehentasunezko partaidetzekin eta beste zor tresna batzuekin egindakoak.

**2.** Artikulu honetan aipatutako informazio obligazioa betetzeko, erregelamendu honek 51. artikuluaren 5. apartatuan jasotakoa aplikatuko da.

### 56. artikulua. Estatuaren zor publikoarekin, lehentasunezko partaidetzekin eta beste zor tresna batzuekin egindako eragiketa jakin batzuei buruz informatzeko araubidea.

**1.** Zerga Administrazioari etekin hauei buruz informatzeko betebeharra ezartzen da, artikulu honetan jasotakoaren arabera:

a) Idazpenen Zor Publikoaren Merkatuan negoziatutako zor publikoko baloreen interesak, eta deskontura jaulkitako zein gerora bereizitako izaera bereko baloreetatik eratorritako beste etekin batzuk.

b)[42] Kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen lehen xedapen gehigarrian eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituen abenduaren 26ko 5/2011 Foru Arauaren lehen xedapen gehigarrian araututa dauden baloreen interesak, eta, orobat, xedapen hauetan aurreikusi eta gehienez hamabi hilabetez deskontura jaulkitako zor tresnetatik eratorritakoak.

**2.** Estatuaren zor publikoa denean, jaulkitzaileak edo ordainketa-agente baimenduak hirugarrengoen kontuetan erregistratuak dituen baloreen etekinak ordaindu behar dizkie, osorik eta epemuga bakoitzean, Idazpenen Zor Publikoaren Merkatuko entitate kudeatzaileei eta baloreak konpentsatu eta likidatzeko sistemak kudeatzen dituzten atzerriko entitateei (bigarren horiei, baldin eta hitzarmen bat sinatua badute Espainian helbideratuta dagoen eta baloreak konpentsatu eta likidatzen dituen entitateren batekin). Zehazki, jaulkitzaileak edo ordainketa-agente baimenduak etekinak ordaindu behar dizkie, balore horien titularrak honako hauek direnean:

a) Espainiar lurraldean establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrak.

---

[42] Letra hau artikulu bakarraren hamahiru apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

b) Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak, eta Espainiar lurraldean establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarrak.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak, kupoi bereiziei eta printzipal bereiziei dagokien zatiarengatik, itzulketan entitate kudeatzaile batek esku hartzen duenean.

Era berean, oso-osorik ordaindu beharko dira Idazpenen Zor Publikoaren Merkatuan kontua duten titularren izenean erregistratuta ageri diren saldoen etekinak.

**3.** Aurreko 2. apartatuan ezarritakoa betetzeko, han aipatzen diren entitate kudeatzaileek eta egoitza atzerrian izanik baloreak konpentsatu eta likidatzeko sistemak kudeatzen dituzten entitateek aitorpen bat aurkeztu behar diote jaulkitzaileari, hala badagokio Espainiako Bankuaren bitartez. Aitorpen hori erregelamendu honetan eranskin gisa ageri den ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta, informazio hau jaso beharko du bere erregistroetan ezartzen denari jarraikiz:

a) Baloreen identifikazioa.

b) Etekinen zenbateko osoa.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagozkien etekinen zenbatekoa, salbu eta Estatuaren zor publikoaren kupoi bereiziak eta printzipal bereiziak badira eta haien itzulketan entitate kudeatzaile batek esku hartzen badu.

d) Aurreko 2. apartatuan jasotakoaren arabera osorik ordaindu behar diren etekinen zenbatekoa.

Aitorpen hau ez da aurkeztu beharko altxorreko letrei dagokienez, eta entitate kudeatzaileek ere ez dute halakorik aurkeztu beharko Estatuaren zor publikoko kupoi bereizien edo printzipal bereizien kasuan.

**4.** Aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako baloreak direnean (lurralde espainiarrean helbideratuta dagoen eta baloreak konpentsatu eta likidatzen dituen entitate batean jatorriz erregistratutakoak), esandako aitorpena entitate hauek aurkeztu beharko dute, aurreko 3. apartatuan adierazitako eran: beren hirugarrengoen kontuetan erregistraturiko baloreak mantentzen dituzten entitateek, eta baloreak konpentsatu eta likidatzeko sistemak kudeatzen dituzten atzerriko entitateek (azken horiek, baldin eta hitzarmen bat sinatua badute lurralde espainiarrean helbideratuta dagoen eta baloreak konpentsatu eta likidatzen dituen entitate horrekin).

Aurreko 2. apartatuko a) eta b) letretan aipatutako titularren etekinak ere osorik ordaindu beharko dira.

Era berean, entitate gordailuzainen kontu propioan erregistratutako saldoen etekinak oso-osorik ordainduko dira.

**5.** Aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako diren baloreei dagokienez, baldin eta horiek baloreak konpentsatu eta likidatzeko sistemak kudeatzen dituzten atzerriko entitateetan erregistratu badira jatorriz, eta entitate horiek Espainiako araudian edo OECD Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeko beste herrialde bateko araudian aitortuta badaude ondorio horietarako, jaulkitzaileak izendatzen duen ordainketa-agenteak aitorpen bat aurkeztu behar dio jaulkitzaileari, artikulu honen 3. apartatuan jasotako ereduari jarraituz. Aitorpen horretan baloreak identifikatu beharko dira, bai eta adierazi ere baloreak konpentsatu eta likidatzeko sistema kudeatzen duen atzerriko entitate bakoitzari zer etekin dagozkion guztira. Etekin horiek oso-osorik ordainduko dira.

**6.** Aurreko apartatuetan aipatutako aitorpenak interesen mugaegun bakoitzaren aurreko egun baliodunean aurkeztu behar dira; aldiz, deskontura jaulkitako edo gerora bereizitako baloreen kasuan, baloreen amortizazio bakoitza egin aurreko egun baliodunean aurkeztuko dira, betiere aipatutako egunean merkatua zer egoeratan itxi den islatuta. Aitorpen horiek telematikoki bidali ahal izango dira.

Deskontura jaulkitako edo gerora bereizitako baloreen kasuan, etekinei buruzko informazioaren ordez itzuli beharreko zenbatekoei buruzko informazioa eman beharko da. Dena den, atxikipenari lotutako balore horien amortizaziotik eratorritako etekinei dagokienez, aitorpenean etekin horien zenbatekoa ere adierazi beharko da.

Aurreko paragrafoan jasotako kasuan, aitorpena jaulkitzaileari aurkeztu behar zaio edo, bestela, jaulkitzaileak amortizazioa edo itzulketa egiteko ardura eman dion finantza entitateari.

**7.** Interesen mugaeguna iristean, artikulu honetan aipatutako aitorpena aurkeztu behar duen entitateak ez badu aitorpen hori aurkezten aurreko 6. apartatuko lehen paragrafoan jasotako egunean, horrek berekin ekarriko du jaulkitzaileak edo haren ordainketa-agente baimenduak bidezko interesak ordaindu behar izatea entitateari. Interesen zenbateko osoari atxikipen tasa orokorra aplikatzetik ateratzen den zenbateko likidoa ordaindu beharko dio.

Baldin eta entitateak artikulu honetan araututako aitorpena aurkezten badu interesen mugaeguna iritsi ondorengo hogeita hamar egun naturalen barruan (Estatuaren Zor Publikoko baloreen kasuan) edo artikulu honen 1.b) apartatuan aipatutako baloreetatik eratorritako interesen mugaeguna iritsi ondorengo hilabetearen 10a baino lehen, jaulkitzaileak edo haren ordainketa-agente baimenduak soberan atxikitako zenbatekoak ordaindu beharko ditu, aitorpena jaso bezain pronto.

**8.** Aurreko apartatuetan jasotako guztia zerga araudian izaera orokorrez ezarritako informazio betebeharrak eragotzi gabe aplikatuko da, bai jaulkitzaileentzat eta bai bitartekari finantzarioak izanik artikulu honen 1. apartatuan aipatutako baloreen gordailuzain gisa jarduten duten lurralde espainiarreko entitateentzat. Bigarren horien kasuan, esandakoa aplikaziozkoa izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei, Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboei eta Espainian establezimendu iraunkorra duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko

Zergaren zergadunei dagokienez, baldin eta entitate haien erregistroetan jasotakoaren arabera baloreen titularrak badira.

## *5. sekzioa. Europar Batasuneko beste estatu batzuetako pertsona fisiko egoiliarrek lortutako errenta jakin batzuei buruz informatzeko betebeharrak (ezabatua)[43]*

### 57. artikulua. Aplikazio eremua (ezabatua)

### 58. artikulua. Informazioa eman beharra dakarten errentak (ezabatua)

### 59. artikulua. Informazioa ematera behartuak (ezabatua)

### 60. artikulua. Eman beharreko informazioa (ezabatua)

### 61. artikulua. Europar Batasuneko beste estatu batzuetan egoiliar diren errenta-jasotzaile pertsona fisikoen identifikazioa eta bizilekua (ezabatua)

## *6. sekzioa. Beste informazio betebehar batzuk.*

### 62. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi ez duten pertsona edo entitateei buruz nahiz notarioen aurrean burututako egintza edo kontratuetako eskriturak edo agiriak egitean erabilitako ordainbideak identifikatu ez dituztenei buruz informatzeko betebeharra.

**1.** Jarraian aipatzen diren zirkunstantziak betetzen direnean, Notariotzaren Kontseilu Orokorrak aitorpen informatibo bat aurkeztu beharko dio, hilero, eta bide telematikoz, Zerga Administrazioari, eta bertan adieraziko dio, izena eta deiturak jarrita, zein pertsona edo entitate agertu diren, zuzenean edo ordezkatuta, eskriturak edo agiriak formalizatzeko egintza edo kontratuetan, horien xedea ondasun higiezinen gaineko jabaria eta bestelako eskubide errealak aitortu, eratu, eskuratu, eskualdatu, aldatu edo iraungitzea izan denean edo zerga alorrean garrantzitsua den beste edozein egintza edo kontratu egitea izan denean. Hona hemen zirkunstantzia horiek:

a) Identifikazio fiskaleko zenbakirik ez jakinaraztea.

b) Aldeek erabilitako ordainbideak ez identifikatzea, kontraprestazio osoa edo haren zati bat dirua edo honen ordezko zeinu bat izan denean.

**2.** Aitorpen informatibo bakoitza hilabetea amaitu aurretik aurkeztu behar da, eta aurreko hilabetean egindako eragiketak jaso behar dira bertan.

---

[43] Zekzio hau 2016ko azaroaren 29ko 25/2016 FORU DEKRETUAren amaierako lehenengo xedapenak ezabatu du. Aipatutako FORU DEKRETUAK finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko eta elkarren arteko laguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen ditu. Foru dekretua GAOn (2016/12/09) argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean eta 2016/01/01etik aurrera ditu ondorioak.

## 63. artikulua. Erreferentzia katastrala eta ondasun higiezinen zenbaki finkoa ez jakinarazteari buruz informatzeko betebeharra.

Notarioek eta jabetzaren erregistratzaileek Zerga Administrazioari jakinarazi beharko diote komunikazioa derrigorrezkoa duten eta beraiek hurrenez hurren baimendu edo inskribatu dituzten eskrituretan edo agirietan ondasun higiezinaren erreferentzia katastrala eta zenbaki finkoa jakinarazteko obligazioa bete ez duten pertsonen identitatea.

## 64. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza edo baso jarduerak egiteagatik banatzen diren diru laguntza, kalte-ordain eta laguntzei buruz informatzeko betebeharra.

**1.** Nekazaritza, abeltzaintza edo baso jardueretan aritzeagatik diru laguntzak, kalte-ordainak edo laguntzak eman edo onartzen dituzten entitate publiko zein pribatuek urteko aitorpen bat aurkeztu beharko diote Zerga Administrazioko organo eskudunari, eta aitorpen horretan aurreko urtean ordaindutako zenbatekoak adierazi.

Entitate emailearen egoitza Espainiatik kanpo dagoenean, diru laguntzak, kalte-ordainak edo laguntzak haren kontura kudeatzen dituen entitate egoiliarrak bete beharko du aurreko paragrafoan aipatutako betebeharra.

**2.** Aitorpenean, aitortzailearen identifikazio datuekin batera, adierazi beharko da nolako izaeraz esku hartzen duen aitortzaileak aitorpenean jasotako diru laguntzei, kalte-ordainei edo laguntzei dagokienez, eta horrez gain, jasotzaileen zerrenda izenduna ere jaso beharko da, datu hauek aipatuta:

a) Izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Ordaindutako diru laguntza, kalte-ordain edo laguntzaren zenbatekoa, mota eta kontzeptua.

**3.** Kasuan kasuko aitorpenean sartzearen ondorioetarako, ulertuko da diru laguntza, kalte-ordain edo laguntza horiek ordainduak izan direla ordainketa agindua ematen den egunean. Ordainketa agindurik eman ez bada, ordainketa egin denean ordaindutzat joko dira.

## 65. artikulua. Emaitzak jasotzeari buruz informatzeko betebeharra.

Entitate onuradunak aitorpen informatibo bat bidali behar dio Zerga Administrazioari, urte natural bakoitzean jasotako emaitza, dohaintza eta ekarpen kengarriengatik egindako ziurtagiriei buruz. Aitorpen horretan, bere identifikazio datuak agertzeaz gainera, dohaintza-emaileen eta ekarpen-egileen honako informazio hau ere adieraziko du:

a) Izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapena.

b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Emaitzaren edo ekarpenaren zenbatekoa. Horiek gauza bidez egin badira, dohaintzan emandakoaren edo ekarpenaren balorazioa adieraziko da.

d) Emaitza edo ekarpena lehentasunezko mezenasgo jardueretarako jasotzen ote den adieraziko da..

e) Urte naturalean emaitzetan eta ekarpenetan atzera egin izanari buruzko informazioa.

**66. artikulua. Gizarte aurreikuspeneko tresna jakin batzuei buruz informatzeko betebeharra.**

Pertsona edo entitate hauek behartuta dude Zerga Administrazioari urteko aitorpen bat aurkeztera, behean adierazten diren edukiak jasota:

a) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateak. Banan-banan jaso beharko dituzte beraietan altan emandako bazkide arruntak edo bazkide osoak, bai eta azken horiek edo bazkide babesleek egindako ekarpenen zenbatekoa ere.

b) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako bazkide babesleak. Banan-banan jaso behar dituzte ekarpena egin zaien bazkide oso edo arruntak, bai eta bazkide oso edo arrunt bakoitzak egindako ekarpenaren zenbatekoa ere.

c) Pentsio funtsen entitate kudeatzaileak. Banan-banan jaso behar dituzte funts horiei atxikitako planen partaideak eta haietan egin diren ekarpenen zenbatekoa, ekarpenen egileak zuzenean partaideak izan, pertsona baimenduak izan edo aipatutako planen sustatzaileak izan.

d) Pentsio planen sustatzaileak, baldin eta haietan ekarpenak egiten badituzte. Banan-banan jaso behar dituzte kontribuzioak egin zaizkien partaideak eta partaide bakoitzeko emandako diru kopurua.

e) Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratutako pentsio funtsen ordezkaria, baldin eta funts haiek Espainian legeria espainiarrari lotutako enpleguko pentsio planak garatzen badituzte. Banan-banan jaso behar ditu funts horiei atxikitako planen partaideak eta haietan egiten diren ekarpenen zenbatekoa, haiek zuzenean eginak izan, pertsona baimenduek eginak izan edo plan horien sustatzaileek eginak izan.

f) Pentsioengatiko konpromisoak aseguru kontratu baten bidez bideratzen dituzten enpresak edo entitateak, alde batera utzita enpresen gizarte aurreikuspeneko planak. Banan-banan jaso behar dituzte kontribuzioak egin zaizkien pertsonak eta horietako bakoitzari dagokion zenbatekoa.

g) Enpresen gizarte aurreikuspeneko planak formalizatzen dituzten aseguru entitateak. Banan-banan jaso behar dituzte aseguratuak eta haiei egiten zaizkien ekarpenen zenbatekoa, haiek zuzenean eginak izan edo plan horien hartzaileek eginak izan.

h)[44] Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak. Beren informazioan mutualistak jaso behar dituzte banan-banan, eta adierazi behar dute haietako bakoitzak zer kopuru ordaindu dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan ezarritakoaren arabera gastu kengarri diren edo zerga-oinarrian murriztu daitezkeen kontingentziak estaltzeko.

i) Zerga oinarrian murrizpena izan dezaketen mendetasuneko aseguru pribatuak merkaturatzen dituzten aseguru entitateak. Banan-banan jaso behar dituzte aseguru hartzaileak eta primen zenbatekoa, horiek zuzenean haiek ordainduak izan edo pertsona baimenduek ordainduak izan.

j) Aurreikuspen plan aseguratuak merkaturatzen dituzten aseguru entitateak. Banan-banan jaso behar dituzte hartzaileak eta ordaindutako primen zenbatekoa.

## 67. artikulua. Aurrezpen sistematikoko banakako planak merkaturatzen dituzten entitateen informazio betebeharra.[45]

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian aipatutako aurrezpen sistematikoko banakako planak merkaturatzen dituzten aseguru entitateek urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu behar diote Zerga Administraziori, eta bertan datu hauek adierazi:

a) Aseguru-hartzaileen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Aseguru-hartzaileek ordaindutako primen zenbateko osoa, eta lehen primaren ordainketa eguna.

c) Eskubide ekonomikoak osorik edo partez aurreratuz gero, biziarteko errenta eratzean komunikatutako errenta salbuetsiaren zenbatekoa.

d) Bizitza aseguruko kontratu bat aurrezpen sistematikoko banakako plan bihurtzen bada adierazitako foru arauaren hamabigarren xedapen iragankorrean jasotakoaren arabera, aurreko a) eta b) letretan aurreikusitako datuak emateaz gainera, adierazi beharko da xedapen horrek urteko prima gisa ezartzen duen gehieneko muga bete egiten dela.

## 68. artikulua. Ondasun higiezinekin lotutako finantza eragiketei buruz informatzeko betebeharra.

---

[44] h) letra hau urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUAK aldatu du, amaierako lehen xedapenaren 10. apartatuaren bidez. Aipatutako fou dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen du. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

[45] Artikulu hau urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUAK aldatu du, amaierako lehen xedapenaren 11. apartatuaren bidez. Aipatutako fou dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen du. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Maileguak ematen dituzten edo emate horretan bitartekari lana egiten duten entitateek, mailegu horiek hipotekarioak izan nahiz beste edozein motatakoak izan, edo, bestela, ondasun higiezin bat edo horren gaineko eskubide erreal bat eskuratzeko beste edozein finantzaketa eratan esku hartzen duten entitateek, eragiketa horiei buruzko urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu behar dute, datu hauek adierazita:

a) Mailegu hartzaileen izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Mailegu emaileen sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Bitartekaririk badago, horren izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

d) Ondasun higiezinak edo horien gaineko eskubide errealak eskuratzearekin zuzenean lotuta dauden bestelako finantza eragiketetan parte direnen izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

e) Maileguaren edo eragiketaren zenbateko osoa; kapitala amortizatzeagatik, interesengatik eta gainerako finantzaketa gastuengatik urtean ordaindu diren kopuruak; eta gauza bidezko ordainsariaren zenbatekoa.

f) Mailegua edo eragiketa eratu den urtea, eta iraupen aldia.

g) Eragiketaren hartzaileak ondasun higiezina ohiko etxebizitza erabiltzeko asmoa agertu duen adieraziko da.

h) Erreferentzia katastrala eta finka zenbakia.

i) Ondasun higiezinaren tasazio balioa.

j) Maileguak urte bakoitzeko abenduaren 31n duen saldoa.

### 69. artikulua. Atzerriko ondasun higiezinei nahiz ondasun higiezinen gaineko eskubideei buruz informatzeko betebeharra.

**1.** Urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu behar dute, atzerrian dauden ondasun higiezinei edo ondasun higiezinen gaineko eskubideei buruz, bai pertsona fisiko eta juridikoek, bai pertsona edo entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek eta bai Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako entitateek, baldin eta ondasun eta eskubideen titularrak badira edo atzerrian dauden ondasun higiezinen edo ondasun higiezinen gaineko eskubideen titular errealtzat jotzen badira. Informazio hori guztia urte bakoitzeko abenduaren 31ri buruzkoa izango da.

Artikulu honen ondorioetarako, titular erreala izango da Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluaren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera halakotzat hartzen dena.

**2.** Aitorpen informatiboak honako datu hauek jasoko ditu:

a) Higiezinaren identifikazioa; haren tipologia zehaztu behar da, labur.

b) Higiezinaren kokalekua: herrialde edo lurraldea, udalerria, kalea eta zenbakia.

c) Eskurapen data.

d) Eskurapen balioa.

**3.** Multijabetza kontratuen, txandaka aprobetxatzeko kontratuen, denbora partzialeko jabetza kontratuen edo antzeko formuletako kontratuen titulartasunari dagokionez, adierazi behar da, aurreko apartatuko a) eta b) letretako informazioaz gain, eskubide horiek zer datatan eskuratu ziren eta zer balio duten abenduaren 31n, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauan jasotako balorazio erregelak erabiliz.

**4.** Atzerrian dauden ondasun higiezinen gaineko erabilera edo gozameneko eta jabetza soileko eskubide errealen titulartasunari dagokionez, adierazi behar da, aurreko 2. apartatuko a) eta b) letretako informazioaz gain, titulartasuna zer datatan eskuratu zen eta zer balio duen abenduaren 31n, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauan jasotako balorazio erregelak erabiliz.

**5.** Artikulu honetan araututako informazioa eman beharra izango dute aitorpenari dagokion urteko edozein unetan aurreko 1. apartatuaren arabera higiezinaren edo eskubidearen titular edo titular erreal izan diren eta urte horretako abenduaren 31n izaera hori galduta duten zergapekoek ere. Halakoetan, aurreko 2. apartatuan aipatutako datuez gain, higiezin edo eskubidearen eskualdaketa balioa eta data adierazi behar dira aitorpen informatiboan.

**6.** Artikulu honetan ezarritako informazioa emateko beharra ez da aplikatuko atzerrian dauden honako higiezin eta higiezinen gaineko eskubide hauei dagokienez:

a)[46] Haien titularrak Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 12. artikuluan aipatutako entitateak badira.

b) Haien titularrak hauexek badira: pertsona juridikoak eta gainerako entitateak nahiz ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrak. Higiezin eta eskubideak, dena

---

[46] Letra hau artikulu bakarraren hamalau apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean, eta behar bezala identifikatuta.

c) Haien titularrak hauexek badira: pertsona fisikoak, jarduera ekonomiko bat egiten badute eta kontabilitatea Merkataritza Kodean ezarritakoaren arabera egiten badute. Higiezin eta eskubideak, dena dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean, eta behar bezala identifikatuta.

d) Ez da egongo higiezinen edo higiezinen gaineko eskubideei buruzko informazioa eman beharrik, baldin eta 2. apartatuko d) letran eta 3. eta 4. apartatuetan aipatutako balioen batura ez bada 50.000 euro baino handiagoa. Baterako muga hori gainditzen bada, higiezinen nahiz higiezinen gaineko eskubide guztien berri eman beharko da.

**7.** Obligazio hau, eman beharreko informazioari dagokion urtearen ondorengo urteko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean bete beharko da.

Ondoz ondoko urteetan nahitaezkoa izango da aitorpena aurkeztea, baldin eta aurreko 6. apartatuko d) letran aipatutako batura 20.000 euro baino gehiago hazi bada aurreko aitorpena aurkeztu beharra eragin zuten balioarekin alderatuta.

Aurretik jasotakoa jasota ere, aitorpena nahitaez aurkeztu behar da aurreko 5. apartatuan zehaztutako kasuetan, haien gaineko titulartasuna abenduaren 31n iraungita zegoen higiezin eta eskubideei dagokienez.

**8.** Zergen Foru Arau Orokorrak hamaikagarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoari dagokionez, datu multzo desberdinak dira 2. apartatuko a) eta b) letretan aipatutako informazioak, apartatu horretan aipatutako higiezin bakoitzari dagokionez eta 3. eta 4. apartatuetan aipatutako eskubideak eratzen diren higiezin bakoitzari dagokionez.

Ondorio bererako, datutzat hartuko dira hauek:

a) 2. apartatuko c) eta d) letretan aipatutako data eta balio bakoitza, higiezin bakoitzari dagokionez.

b) 3. apartatuan aipatutako data eta balio bakoitza, eskubide bakoitzari dagokionez.

c) 4. apartatuan aipatutako data eta balio bakoitza, eskubide bakoitzari dagokionez.

d) 5. apartatuan aipatutako eskualdaketa data eta balio bakoitza, eskubide bakoitzari dagokionez.

### 70. artikulua. Atzerrian dauden edo atzerrian matrikulatuta dauden edo atzerriko herrialdeetako erregistroetan jasota dauden ondasun higigarriei edo horien gaineko eskubideei buruz informatzeko betebeharra.

**1.** Urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu behar dute, jarraian aipatuko diren ondasun higigarriei edo horien gaineko eskubideei buruz, bai pertsona fisikoek eta juridikoek, bai pertsona edo entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek eta bai Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako entitateek, baldin eta urte bakoitzeko abenduaren 31n ondasun eta eskubide horien titularrak badira edo ondasun eskubide horien titular errealtzat jotzen badira:

a) 50.000 eurotik gorako balio unitarioa duten eta data horretan edo urteko momenturen batean atzerrian kokatuta egon direnak.

Eskudirua eta harri edo metal preziatuak badira, ondasun kategoria horien balio bateratuak gainditu beharko du 50.000 euroko kopurua.

b) Atzerriko herrialdeetan matrikulatuta dauden eta haietako erregistroetan jasota daudenak, haien balio unitarioa 50.000 euro baino handiagoa bada.

Ez dira hartuko aurreko a) letran sartutzat erregistro espainiarretan matrikulatuta edo jasota dauden ondasunak eta horien gaineko eskubideak. Ez dira hartuko letra horretan sartutzat erregelamendu honek 53. eta 54. artikuluetan jasotako ondasunak edo horien gaineko eskubideak ere.

Artikulu honen ondorioetarako, titular erreala izango da Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluaren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera halakotzat hartzen dena.

**2.** Aitorpen informatiboak honako datu hauek jasoko ditu:

a) Ondasun higigarriaren identifikazioa; haren tipologia zehaztu behar da, labur.

b) Ondasun higigarriaren kokalekua: kokapenaren herrialdea edo lurraldea.

c) Zer erregistrotan dauden inskribatuta edo matrikulatuta: erregistroa, eta inskribatu edo matrikulatuta dagoen herrialde edo lurraldea.

d) Eskurapen data.

e) Eskurapen balioa.

**3.** Atzerrian dauden ondasun higigarrien edo atzerriko herrialdeetan matrikulatuta edo haietako erregistroetan jasota dauden ondasun higigarrien gaineko erabilera edo gozameneko eta jabetza soileko eskubide errealen titulartasunari dagokionez, adierazi behar da, aurreko 2. apartatuko a), b) eta c) letretako informazioaz gain, titulartasuna zer datatan eskuratu zen eta zer balio duen abenduaren 31n, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauan jasotako balorazio erregelak erabiliz.

**4.** Artikulu honetan araututako informazioa eman beharra izango dute aitorpenari dagokion urteko edozein unetan aurreko 1. apartatuan jasotakoaren arabera ondasun higigarriaren edo eskubidearen titular edo titular erreal izan diren eta urte horretako abenduaren 31n izaera hori galduta duten zergapekoek ere. Halakoetan,

aurreko 2. apartatuan aipatutako datuez gain, ondasun higigarriaren edo eskubidearen eskualdaketa balioa eta data adierazi behar dira aitorpen informatiboan.

**5.** Artikulu honetan ezarritako informazioa emateko beharra ez da aplikatuko atzerrian dauden edo atzerriko herrialdeetako erregistroetan jasota dauden honako ondasun higigarrien edo horien gaineko eskubideei dagokienez:

a)[47] Haien titularrak Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 12. artikuluan aipatutako entitateak badira.

b) Haien titularrak hauexek badira: pertsona juridikoak eta gainerako entitateak nahiz ez- egoiliarren establezimendu iraunkorrak. Higiezin eta eskubideak, dena dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean, eta behar bezala identifikatuta.

c) Haien titularrak hauexek badira: pertsona fisikoak, jarduera ekonomiko bat egiten badute eta kontabilitatea Merkataritza Kodean ezarritakoaren arabera egiten badute. Higiezin eta eskubideak, dena dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean, eta behar bezala identifikatuta.

**6.** Obligazio hau, eman beharreko informazioari dagokion urtearen ondorengo urteko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean bete beharko da.

Aitorpena ondorengo urteetan aurkeztea derrigorrezkoa izango da bakarrik aurreko 1. apartatuan aipatuta dauden eta aitortuez bestelakoak diren beste ondasun edo eskubide batzuk ondorengo edozein urtetako abenduaren 31n edo urte bakoitzeko momenturen batean atzerrian kokatuta daudenean edo atzerriko herrialdeetan matrikulatuta edo hango erregistroetan jasota daudenean. Era berean, aitorpena derrigorrezkoa izango da aurreko 1. apartatuaren a) letraren bigarren paragrafoan aipatutako ondasun kategorien balioa 20.000 euro baino gehiago handitzen denean azken aitorpenean aurkeztutako balioaren aldean, horietan elementu berriak sartzearen ondorioz.

Aurretik jasotakoa jasota ere, aitorpena nahitaez aurkeztu behar da aurreko 4. apartatuan zehaztutako kasuetan, haien gaineko titulartasuna abenduaren 31n iraungi zaien ondasun higigarriei eta eskubideei dagokienez.

**7.** 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoari dagokionez, datu multzo desberdinak dira aurreko 2. apartatuaren a), b) eta c) letretan aipatutako informazioak, aurreko 1. apartatuan aipatutako ondasun higigarri bakoitzari dagokionez eta aurreko 3. apartatuan aipatutako eskubideak eratzen diren ondasun higigarri bakoitzari dagokionez.

---

[47] Letra hau artikulu bakarraren hamabost apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

Ondorio bererako, datutzat hartuko dira hauek:

a) Aurreko 2. apartatuko d) eta e) letretan aipatutako data eta balio bakoitza, ondasun higigarri bakoitzari dagokionez.

b) Aurreko 3. apartatuan aipatutako data eta balio bakoitza, eskubide bakoitzari dagokionez.

c) 4. apartatuan aipatutako eskualdaketa data eta balio bakoitza, ondasun higigarri bakoitzari dagokionez.

## 71. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateen informazio betebeharrak.

**1.** Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek jarduera ekonomiko bat egiten badute edo beren urteko errentak 3.000 eurotik gorakoak badira, urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu beharko dute. Aitorpen horretan beren identifikazio datuak eta, hala badagokio, ordezkariarenak jasotzeaz gainera, honako informazio hau adierazi behar dute:

a) Bazkide, oinordeko, komunero edo partaideen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, lurralde espainiarrean egoiliarrak izan edo ez. Zergaldi bakoitzean zehar entitatearen osaeran izandako aldaketak ere sartuko dira.

Entitateko kideren bat ez bada egoiliarra lurralde espainiarrean, identifikatu beharko da zeinek duen haren ordezkaritza fiskala Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.[48]

Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak atzerrian eratu direnean eta lurralde espainiarrean presentzia dutenean, identifikatu beharko da entitateko zein kide diren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak. Identifikazioa artikulu honetan ezarritakoaren arabera egingo da.

b) Entitateak lortutako errenten zenbateko osoa eta kide bakoitzari esleitu beharreko errenta, honako hau ere adieraziz, hala badagokio:

1.- Errenta iturri bakoitzagatik izandako sarrera gordinak eta gastu kengarriak.

2.- Atzerrian lortutako errenten zenbatekoa, herrialdea aipatuta eta etekin gordinak eta gastuak adierazita.

3.- Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateetako kideak Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko

[48] Paragrafo hau artikulu bakarraren hamasei apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

Zergaren zergadunak badira –establezimendu iraunkor bidez aritzen diren ez-egoiliarrak–, eta entitate horiek inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskuratzen badituzte, honako hauek identifikatu beharko dituzte: zein inbertsio kolektiboko erakundetatik eskuratu edo harpidetu diren akzio edo partaidetzak, noiz eskuratu edo harpidetu diren eta zein izan den haien eskurapen edo harpidetza balioa. Era berean, kapital propioen pertsona edo entitate lagapenduna ere identifikatuko da, egoiliarra izan edo ez.

c) Kenkarien oinarriak.

d) Entitateak jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak, eta kide bakoitzari egozgarri zaizkionak.

e) Negozio zifraren zenbateko garbia Merkataritza Kodeak 35. artikuluaren 2. apartatuaren arabera, eta eragiketa bolumenaren zenbatekoa.

**2.** Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek idatziz jakinarazi beharko diete beren kidei aurreko apartatuko b), c) eta d) letretan aipatutako informazioa. Entitate horiek hilabeteko epean jakinarazi beharko diete beren kideei informazio hori, aurreko 1. apartatuan aipatutako aitorpena aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera.

## 72. artikulua. Energia elektrikoa hornitzen duten enpresen informazio betebeharrak.

Energia elektrikoa hornitzen duten enpresek aitorpen bat aurkeztu behar diote urtero Zerga Administrazioari, eta bertan gutxieneko informazio hau jaso:

a) Kontratatzailearen izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Fakturen kobrantza kargatu behar zaienak ez badira kontratatzaileak, haien identifikazio datuak ere jarriko dira.

b) Higiezinaren erreferentzi katastrala eta finka zenbakia, eta kokalekua.

c) Kontratatutako potentzia nominala eta urteko kilowatt kontsumoa.

d) Hornidura lekua.

e) Horniduraren alta data.

## 72.bis artikulua. Hiri finken errentamenduei buruz informatzeko betebeharra.[49]

[49] Artikulu hau artikulu bakarraren hamazazpi apartatuan gehitua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28). 1. apartatuan aipatzen den informazio obligazioa 2018ko zergaldiari buruz informatzeko obligazioari aplikatuko zaio lehenengo aldiz.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak urteko aitorpen informatibo bat aurkeztu behar du Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan jasotako datuei buruz eta fidantzen gordailuari buruz, hori guztia martxoaren 15eko 42/2016 Dekretuak, fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzkoak, xedatutakoarekin bat. Zer fidantza jarri den adierazi beharko du aitorpen horretan.

2. Orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, udalek eta haien mende dauden gainerako ente publikoek hiri-finken errentamendua kudeatzen badute, behartuta daude errentamendu kontratu horien urteko aitorpen informatibo bat aurkeztera, haietan errentatzaile gisa esku-hartzen dutenean edo alokairuan bitartekari direnean, eta aitorpen horretan ordaindu den urteko errenta adierazi behar dute.

3. Aurreko 1. eta 2. apartatuetan aipatutako informazioaz gain, honako hau ere adierazi beharko da, besteak beste: errentan emandako ondasun higiezinen identifikazio datuak, errentarien eta errentatzaileen zerrenda izenduna, eta dagokion eredua onartzeko foru aginduak kasu bakoitzerako ezartzen duen informazioa.

## III. KAPITULUA. Informazioa lortzeko banakako errekerimenduak.

### 73. artikulua. Xedapen orokorrak.

**1.** Zerga Administrazioak egiten dituen banakako informazio errekerimenduak zergapekoari jakinarazi behar zaizkio, eta bertan jaso behar dira:

a) Informazioa eman behar duen zergapekoaren izen-deiturak edo sozietate izen edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Eskatutako informazioan aipatutako epea.

c) Informatzeko eskatzen diren gertakariei buruzko datuak.

**2.** Informazio errekerimenduetan gutxienez 10 egun naturaleko epea emango da, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik aurrera, informazioa aurkezteko.

Dena den, informazioa lortzeko jarduketak ikuskapen edo zerga-bilketa organoek egiten dituztenean berehala hasi ahal izango dira, bai eta aurretik idatziz errekeritu gabe ere, baldin eta lortu beharreko datuen edo egin beharreko jarduketen izaerak justifikatzen badu eta jarduten den organoak bere eskura egon behar diren agiriak, elementuak edo frogagiriak aztertu besterik ez badu egiten. Organo horien eskura egon behar ez diren agiriak, elementuak edo frogagiriak direnean, errekeritu zaien pertsona edo entitateei gutxienez 10 egun naturaleko epea emango zaie, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik aurrera, eskatutako informazioa

aurkezteko edo jarduten diren ikuskapen edo zerga-bilketa organoei hura lortze aldera behar diren erraztasunak emateko.

### 74. artikulua. Informatzeko eta lankidetzan aritzeko betebeharra duten agintari jakin batzuentzako errekerimenduak.

Aurreko artikuluan xedatutakoa xedatuta ere, Zergen Foru Arau Orokorrak 91. artikuluaren 3. eta 4. apartatuetan aipatutako entitate eta organoei egiten zaizkien banakako errekerimenduak Ogasuneko zuzendari nagusiak baimenduak izan beharko dira.

Horrelako kasuetan, informazioa lortu nahi duen organo jarduleak behar bezala arrazoitutako eskaera bat helarazi beharko dio Ogasuneko zuzendari nagusiari.

### 75. artikulua. Errekerimendu jakin batzuk banku edo kreditu trafikoan diharduten entitateei egiteko prozedura.

**1.** Zergen Foru Arau Orokorrak 90. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako kontu mugimenduak edo eragiketak ezagutzea exijitzen duten informazio errekerimenduak direnean, ikuskapen edo zerga-bilketa organoek informazioa eskatu ahal izango diete eragindako zergapekoei, titularrak izan edo baimenduak izan, edo zuzenean horiekin jarduten diren banku edo kreditu entitateei eskatu ahal izango diete; ez da beharrezkoa izango errekerimendu hori errekeritutako informazioan jasotako zergapekoari jakinaraztea.

Zuzenean aurreko paragrafoan aipatutako informazioa banku edo kreditu entitateari errekeritzeko, beharrezkoa izango da aurretik lortzea Ogasuneko zuzendari nagusiaren baimena edo zergapekoaren adostasuna. Baimen eskaera behar bezala arrazoituta egon behar da, eta zehatz-mehatz azaldu behar da zergatik errekeritzen zaion zuzenean entitateari.

Baimenak gaitasuna emango du finantza kontu edo eragiketen mugimenduei buruzko errekerimendua egiteko. Gainera, gaitasuna emango du mugimenduen euskarri den dokumentazioari buruz eta pertsona edo entitateen izen-deiturei edo sozietate izen edo izendapen osoari eta mugimenduen, txekeen edo kargu edo abonuko beste agindu batzuen jatorri edo helburuarekin lotutako kontuen identifikazioari buruz egiten diren ondorengo errekerimenduak egiteko, nahiz eta txeke edo agindu horiek ordezkatuak izan edo zenbateko bereko edo desberdineko beste batzuk jatorri eduki.

**2.** Errekerimendua dena delako entitateari jakinarazi behar zaio, eta bertan zehaztu behar dira errekerimenduari lotutako kontu edo eragiketak, eragindako zergapekoak eta, hala badagokio, errekerimenduan aipatutako denbora tartearen hedadura.

Eskatutako datuak izan daitezke kontuetako eragiketa aktibo edo pasiboei, haiek errekerimenduan aipatutako denbora tartean izandako mugimendu guztiei edo batzuei buruzkoak eta egindako gainerako eragiketei buruzkoak. Era berean,

jarduketek errekerimenduko datuen agiriak eta gainerako aurrekariak hartu ditzakete.

Errekerimenduan jarduketak nola egingo diren ere zehaztuko da, ondorengo apartatuan jasotakoari jarraituz, eta datuak erabilera orokorreko formatuen araberako euskarri informatikoan aurkezteko eskatu daiteke.

**3.** Artikulu honetan informazioa lortzeko jasotako jarduketak entitateari zuzendutako errekerimenduaren bidez egin daitezke, hartan eskatutako datu edo aurrekariak aurkeztu ditzan, edo entitatearen bulegoan edo helbidean agertuz, haiei dituzten agiriak aztertu daitezen.

Errekerimendua egin zaion entitateak berari emandako epean aurkeztu behar ditu datuak, eta 10 egun naturaletik gora izango ditu horretarako, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik aurrera. Gutxienez epe hori bera igaro behar da errekerimendua jakinarazten denetik eta, hala badagokio, informazioa ematera behartutako zergapekoaren bulegoetan edo helbidean jarduketak hasten diren arte.

**4.** Baldin eta hainbat pertsona edo entitateren izenean irekitako kontu bereizgabe edo baterakoak, askotariko titulartasuneko gordailuak eta antzeko beste kasu batzuk erabiltzen badira, titularkide edo baimenduetako bati buruzko informazioa eskatzeak berekin ekarriko du kontu, gordailu edo eragiketaren mugimendu guztiak eskura jartzea, baina Zerga Administrazioak ezin izango du erabili informazio hori beste titular edo baimendu baten aurrean aurreko 1. apartatuan jasotako baimena edo zergapekoaren adostasuna lortu gabe.

# VII. TITULUA
# BETEBEHAR FORMALAK EGIAZTATZEKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK

## I. KAPITULUA. Zentsu aitorpenetako datuak egiaztatzeko jarduketak eta prozedurak

### 76. artikulua. Zentsu aitorpenetako datuak egiaztatzeko jarduketak.

**1.** Zergapekoak berak jakinarazi edo aitortutako datuak eta Zerga Administrazioak bere esku dituenak erabiliko dira erregelamendu honetako 15.etik 17. artikulura bitartean, biak barne, araututa dauden alta, aldaketa eta baja aitorpen zentsaletan adierazitako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko. Orobat, zergapekoaren bulego, lokal eta establezimenduetan gertakari eta zirkunstantziak fisikoki aztertuta eta bertan dauden agiriak arakatuta egin ahal izango da egiaztapen hori. Ondorio horietarako, Gipuzkoako lurralde historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduak finketan sartu eta miaketa lanak egiteko jasotzen dituen ahalmenak izango dituzte organo eskudunek.

**2.** Zerga Administrazioak ahalmena du zentsu aitorpenak eta hauei erantsi beharreko dokumentazioa aurkeztea eskatzeko, horiek zabaldu nahiz aurkitutako akatsak zuzendu behar direla adierazteko, eta erroldetan agertu behar duten datuak ofizioz ere sartzeko.

**3.** Zentsuan ageri diren datuetan hutsuneak edo akatsak aurkitzen badira, ondorengo 77. eta 78. artikuluetan xedatutakoaren arabera zuzenduko da zergapekoaren egoera zentsala.

**4.** Zilegi izango da behin-behineko baja ematea batasun barruko operadoreen erregistroan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan eta fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroan izenda emanda dauden pertsona edo entitateei, erabaki arrazoitua tarteko, organo proposatzailearen txostena jaso eta gero, kasu hauetan:

a) Zerga jarduketa edo prozedura batean egiaztatzen denean aitortu den jarduera ekonomikoa edo xede soziala ez dagoela, jarduera hori ez dela egiten jakinarazitako helbidean, edo negozioen kudeaketa administratiboa eta benetako zuzendaritza ez dagoela kokatuta emandako zerga helbidean.

b) Tributuak aplikatzeko edozein jarduketa edo prozedura jakinaraztean zergapekoa ezezaguna suertatu denean.

c) Zergapekoak kanpo merkataritzako eragiketetan edo batasun barrukoetan esku hartu izana sumatzen denean, baldin eta haiengatik ondorioztatzen bada Balio Erantsiaren gaineko Zergarekiko obligazioa bete gabe duela edo zilegi ez zituen zerga onurak edo itzulketak lortu dituela.

Aurreko a), b) eta c) letretan aurreikusitako kasuetan, behin-behineko baja behin betiko baja bihurtuko da zergapekoaren zuzenketa zentsala egiten denean foru erregelamendu honetako 77. eta 78. artikuluetan jasotakoaren arabera.

Baldin eta batasun barruko operadoreen erregistroan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan eta fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroan behin-behineko baja emateko zirkunstantziak betetzen badira erregistro horietan sartzeko eskatzen denean, Zerga Administrazioak ezezkoa emango dio haietan sartzeari, erabaki arrazoitua tarteko.

**5.** Aurreko apartatuan eta erregelamendu honetako 78. artikuluan arautako baja erabakiek ez dute salbuesten zergapekoa zerga obligazioak betetzetik.

## 77. artikulua. Egoera zentsala zuzentzeko prozedura.

**1.** Bi modutara hasi daiteke egoera zentsala zuzentzeko prozedura: Zerga Administrazioak zergapekoari errekerimendu bat bidaliz, aurkitutako desadostasunak edo haren egoera zentsalari buruzko datuak argitu edo zuritu ditzan, edo, bestela, ebazpen proposamena jakinaraziz, betiere Zerga Administrazioak proposamen hori emateko datu nahikoak baditu.

Erregelamendu honetako 76. artikuluaren 4. apartatuan aipatutako zirkunstantziak tributuak aplikatzeko prozedura batetik kanpo egindako jarduketetan gertatzen direnean, hilabeteko epean hasi beharko da egoera zentsala zuzentzeko prozedura, betiere batasun barruko operadoreen erregistroan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan eta fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroan behin-behineko baja emateko erabakia hartzen denetik aurrera. Hilabeteko epea bete dela jotzeko, nahikoa izango da frogatzea epe horretan behin saiatu dela egiten prozeduraren hasierari buruzko jakinarazpena. Prozedura ez bada epe horretan hasten, behin-behineko neurria kendu egingo da.

**2.** Prozedura tramitatzean, 76. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan araututako jarduketak egin ditzake Zerga Administrazioak.

Zergapekoak adierazten badu ez dagoela ados Administrazioak bere esku dituen datuekin, aplikagarria izango da Zergen Foru Arau Orokorrak 104. artikuluaren 4. apartatuan xedatutakoa.

**3.** Behin ebazpen proposamena jakinarazita, zergapekoari 10 eguneko epea emango zaio, proposamen hori jakinarazi eta biharamunetik aurrera kontatuta, zuzenbidean dagokiona alega dezan.

**4.** Arrazoi hauetako batengatik amaituko da egoera zentsala zuzentzeko prozedura:

a) Zergapekoaren datu zentsalak zuzentzen dituen ebazpena emateagatik. Ebazpena arrazoituta izango da beti, eta hura emateko kontuan hartu diren gertakariak eta zuzenbidezko oinarriak laburtu beharko ditu.

b) Errekerimendua egitera behartu duten datuak edo desadostasunak zergapekoak zuzendu, argitu edo zuritzeagatik, berariazko ebazpenik ematea beharrezkoa izan gabe. Zirkunstantzia hori eginbide batean jasoko da espresuki.

c) Prozedura iraungitzeagatik, betiere Zergen Foru Arau Orokorrak 100. artikuluan jasotako epea igaro ondoren, prozedurari amaiera ematen dion ebazpena jakinarazi gabe.

d) Egiaztapen mugatuko prozedura bat edo ikuskapen prozedura bat abian jartzeagatik. Egoera zentsala zuzentzeko prozeduraren xedea hartu behar du barne.

### 78. artikulua. Egoera zentsala ofizioz zuzentzea.

**1.** Jarraian aipatzen diren kasuetan Zerga Administrazioak ofizioz zuzendu dezake zergapekoaren egoera zentsala, aurreko 77. artikuluan araututako prozedura zertan bideratu gabe:

a) Baldin eta tributuak aplikatze aldera zergapekoa bera parte izatea eta kontrol zentsalak egitea ekarri duten jarduketa edo prozeduretatik hala ondorioztatzen bada, zuzenketa horretan ez denean kontuan hartzen bestelako gertakari, alegazio edo frogarik prozedura horietan jasotakoak baino.

b) Baldin eta behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia jaso duten pertsona edo entitateek ez badute epe barruan aurkezten behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia lortzeko beharrezkoa den dokumentazioa –epe hori izan daiteke erregelamendu honetako 31. artikuluaren 3. apartatuan ezarritakoa edo, bestela, artikulu horretan aipatutako errekerimenduan ematen dena–, non eta epe horietan ez duten frogatzen ezinezkoa izan zaiela dokumentazioa aurkeztea. Kasu horretan, gainera, Zerga Administrazioak baja eman ahal izango die batasun barruko operadoreen erregistroan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan eta fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroan.

c)[50] Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 120. artikuluko 1. apartatuan arautako kasuak gertatzen direnean. Horrelakoetan, gainera, zerga Administrazioak baja eman ahal izango dio zergapekoari batasun barruko operadoreen erregistroan, balio erantsiaren gaineko zergaren hileko itzulketen erregistroan eta fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroan.

d) Baldin eta urtebete baino denbora luzeagoan, eta gutxienez hiru aldiz saiatu ondoren, ezinezkoa izan bada jakinarazpenak zergapekoaren zerga helbidean egitea, edo, bestela, hiru zergaldi edo likidazio alditan zorrei baja eman bazaie zergapekoa kaudimengabea izateagatik, Administrazioak zilegi izango du zergapekoari baja ematea batasun barruko operadoreen erregistroan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan eta fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroan.

e) Baldin eta, erregelamendu honetako 28. artikuluaren 2. apartatuan jasotakoren arabera, zuzenketa zentsala egitea bidezkoa bada.

**2.** Zergapekoari beti jakinaraziko zaio aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera egindako aldaketa. Hori ez da egingo, ordea, jakinarazpenak aitortutako zerga helbidean egitea ezinezkoa izan denean urtebete baino denbora luzeagoan.

### 79. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetzea.

**1.** Zerga Administrazioak ahalmena du emandako identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetzeko, baldin eta, erregelamendu honetako 76. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoaren arabera egindako egiaztapen jarduketetan, edo zergak aplikatzeko gainerako jarduketa eta prozeduretan, egiaztatzen badu honako zirkunstantzia hauetako bat gertatzen dela:

a) Erregelamendu honetako 78. artikuluaren 1. apartatuko b), c) edo d) letretan aipatutako zirkunstantziak.

---

[50] Letra hau artikulu bakarraren hemezortzi apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

b) Erregelamendu honetako 15. eta 16. artikuluetan aipatutako aitorpenen bitartez jarduera ekonomiko faltsuak, inongo tokitan ez daudenak edo benetan egiten direnekiko desberdinak jakinaraztea Zerga Administrazioari.

c) Sozietatea sortzaile batek edo gehiagok eratzea, eta identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu ondorengo hiru hilabeteetan hasi gabe egotea bai jarduera ekonomikoa eta bai jarduera horretan benetan aritzeko beharrezkoak diren prestaketa arruntak, non eta behar besteko eran ez den egiaztatzen prestaketa horiek ezin direla epe horretan egin.

Erregelamendu honetako 10. artikuluaren 2. apartatuko l) letran araututako kasuan, gorago adierazitako epea zenbatzen hasiko da aldaketa aitorpen zentsala erregelamendu honetako 18. artikuluaren 2. apartatuko hirugarren paragrafoan ezarritako eran aurkezten denetik aurrera.

d) Kapital berbera hainbat sozietate eratzeko erabili dela ikustea, eta horiek guztiak batera hartzeagatik ondorioztatzea ez dela egin araudi aplikagarriak exijitzen duen gutxieneko diru ordainketarik.

e) Jarduera ekonomikoak, kudeaketa administratiboa edo negozioen zuzendaritza itxurazko edo gezurrezko helbide batean daudela jakinaraztea, eta jarduera edo jarduketa horiek beste helbide batean egiteko arrazoiak ez zuritzea.

f)[51] Identifikazio fiskaleko zenbakia eman zaion pertsona fisiko edo entitate ez-egoiliarrak ez komunikatzea Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 10. artikuluan aipatutako ordezkaria aldatu duenik edo, ordezkariaren izendapena beharrezkoa ez duten egintzak edo tramiteak egiteko zenbakia lortu badu, ordezkaririk izendatu izanaren berri ez ematea izendapen hori beharrezkoa duten egintzak edo tramiteak gero egiten dituenean.

**2.** Identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetzeko erabakiak berekin dakar aurretik zergapekoari entzutea, eta horretarako, 10 eguneko epea emango zaio, epea zabaldu dela jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori ez da beharrezkoa izango erabaki hori erregelamendu honetako 77. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako ebazpen proposamenean sartzen bada.

**3.** Identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetzeko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, eta zergapekoari jakinarazi.

**4.** Identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetzeko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeak Zergen Foru Arau Orokorrak laugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan jasotako ondorioak izango ditu.

---

[51] Letra hau artikulu bakarraren hemeretzi apartatuan aldatua du 2017ko abenduaren 27ko 32/2017 FORU DEKRETUAk, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duenak. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-28).

**5.** Identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetzeak berekin dakar zerga obligazioak betetzeari buruzko ziurtagiririk ez ematea.

**6.** Zilegi izango da identifikazio fiskaleko zenbakia ez ematea, hura eman aurretik zenbakia baliogabetzeko moduko zirkunstantzietako bat gertatzen denean.

**7.** identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetzeak berekin ekarriko du baja ematea batasun barruko operadoreen erregistroan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan eta fabrikazio zerga berezien lurralde erregistroan.

**8.** Zerga Administrazioak berriro eman dezake identifikazio fiskaleko zenbakia, baina, horretarako, bidezko erabakia hartu beharko du, artikulu honen 3. apartatuan zenbakia baliogabetzeko ezarritako baldintza berdinetan ere argitaratuko dena.

## II. KAPITULUA. Zerga helbidea egiaztatzeko jarduketak

### 80. artikulua. Zerga helbidea egiaztatzea.

**1.** Zerga helbidea egiaztatzeko prozedura ofizioz hasiko da.

**2.** Zerga helbidea egiaztatzeko, honako informazio hau erabiliko da: zergapekoak berak komunikatu edo aitortutako datuak, Administrazioak dituen datuak eta zergapekoari edo hirugarrengoei errekeritzen zaizkien datuak, bai eta zergapekoarenak diren edo berak aukeratzen dituen gertaera edo zirkunstantzien, bulego, lokal eta establezimenduen azterketa fisiko eta dokumentala ere.

**3.** Behin prozedura hasita, hori bideratzeko beharrezkoak diren egintzak gauzatuko dira. Prozeduraren barruan aplikaziozkoak izango dira Zergen Foru Arau Orokorrak 95. artikuluan aipatutako jarduketa eta prozeduren garapenari buruzko arau bereziak. Prozedura horretan kontuan hartu daitezke tributuak aplikatzeko prozeduretako batean dauden edo lortu diren datu, froga edo zirkunstantzia.

Zerga helbidea egiaztatzeko prozeduraren tramiterako eskumena duen organoak txostena eskatu diezaioke herri administrazio bereko edo beste administrazio bateko beste organo batzuei.

**4.**[52] Behin espedientea bideratuta, eta Ekonomia Itunak 43. artikuluaren bederatzigarren apartatuan jasotakoa eragotzi gabe, zergapekoari ebazpen proposamena helaraziko zaio, eta 10 egun naturaleko epea emango zaio, proposamena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, zuzenbidean dagokiona alega dezan.

---

[52] 4. apartatu hau urriaren 14ko 33/2014 FORU DEKRETUAK aldatu du, amaierako lehen xedapenaren 12. apartatuaren bidez. Aipatutako fou dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen du. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Azkenik, ebazpena emango da eta zergapekoari jakinaraziko zaio. Ebazpen horretan baieztatu edo zuzenduko da zergapekoak aitortutako zerga helbidea, eta adieraziko da zer gertaera edo zirkunstantzia hartu diren kontuan ebazpen hori emateko.

**5.** Artikulu honetan araututako zerga helbidea egiaztatzeko prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu daiteke, hala badagokio berraztertzeko hautazko errekurtsoa jarri ondoren.

## III. KAPITULUA. Beste zerga betebehar formal batzuk kontrolatzeko jarduketak

### 81. artikulua. Beste zerga betebehar formal batzuen kontrola.

**1.** Aurreko kapituluetan araututako zerga obligazio formalak egiaztatzeko prozedura ofizioz hasiko da.

Zerga Administrazioak Zergen Foru Arau Orokorrak 130. artikuluaren 2. apartatuko b), c) eta d) letretan jasotako jarduketak egin ahal izango ditu.

**2.** Behin egiaztapen jarduketak amaituta, zergapekoari entzute emango zaio 10 egunez, epe hori ireki dela jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

**3.** Entzute tramitea amaituta, egiaztapen jarduketen emaitza eginbide batean dokumentatuko da, eta gutxienez eduki hau izango du eginbide horrek:

a) Egiaztatutako zerga betebeharra edo horren elementuak, eta egiaztapenaren denbora tartea.

b) Egin diren jarduketa konkretuen zehaztapena.

c) Eginbidea eragin duten gertakarien zerrenda.

**4.** Hala badagokio, eginbidea prozeduraren ondorioz hasten den zehapen espedientean sartuko da, zergak aplikatzeko beste prozedura bat hasteko beharrezkoa denean egin behar den bidalketa eragotzi gabe.

**5.** Beste zerga betebehar batzuk egiaztatzeko prozedura modu hauetako batean amaituko da:

a) Eginbide bitartez.

b) Prozedura iraungitzeagatik, behin Zergen Foru Arau Orokorrak 100. artikuluan jasotako epea amaitu ondoren, prozedurari amaiera ematen dion eginbidea formalizatu gabe.

c) Prozeduraren xedea jasotzen duen egiaztapen mugatuko edo ikuskapeneko prozedura bat hasteagatik.

**6.** Behin beste betebehar formal batzuk egiaztatzeko prozedura eginbidez amaituta, Zerga Administrazioak ezin izango du egin beste erregularizazio bat artikulu honen 3.a) apartatuan aipatutako xede egiaztatuari dagokionez, salbu eta ondorengo egiaztapen mugatuko edo ikuskapeneko prozedura batean eginbide horretan egin eta zehaztutakoez besteko jarduketetatik eratortzen diren gertakari edo zirkunstantziak azaleratzen badira.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### LEHENA. Enpresari edo profesionalaren definizioa.

Erregelamendu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, enpresari edo profesionaltzat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren xedapenen arabera horrelakotzat hartzen direnak, baita jarduera zerga honen aplikazio lurraldetik kanpo egiten dutenean ere.

### BIGARRENA. Kanarietan, Ceutan eta Melillan hirugarrengoekin egindako eragiketen urteko aitorpena.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Dekretuak 68., 69. eta 70. artikuluetan xedatutakoaren arabera Kanariar Uharteetan, Ceutan eta Melillan egindakotzat jotzen diren eragiketak erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera agertaraziko dira eragiketen urteko aitorpenean. Eragiketa horiei ez zaie aplikatuko erregelamendu honek 42. artikuluaren 2. apaartatuko c) letran xedatutakoa. Horretarako, hauxe izango da kontraprestazioaren guztizko zenbatekoa: Kanariar Uharteetako Zeharkako Zerga Orokorraren oinarri ezargarria edo Ceuta eta Melillako Ekoizpen, Zerbitzu eta Inportazioaren gaineko Zergaren oinarri ezargarria, kasuan kasukoa, zehazteko indarrean dauden arauak aplikatzearen emaitza.

Erregelamendu honetako VI. tituluaren II. kapituluko 1. sekzioan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruz egindako aipamen guztiak Kanariar Uharteetako Zeharkako Zerga Orokorrari edo Ceuta eta Melillako Ekoizpen, Zerbitzu eta Inportazioaren gaineko Zergari doazkiela pentsatu behar da, Kanarietan edo Ceuta eta Melillan, hurrenez hurren, egindakotzat jotzen diren eragiketetarako.

Eragiketen urteko aitorpena aurkezteko betebeharra salbuesteko, Kanarietan, Ceutan eta Melillan egindako eragiketei ez zaie aplikatuko erregelamendu honetako 40. artikuluaren b) letran jasotako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezietako batean sartuta egotearen baldintza.

### HIRUGARRENA. Ziurtagiria egitea.

Kontseiluak 2003ko ekainaren 3ko 2003/48/EE Direktibako 13.1.b) artikuluan jasotako atxikipenaren salbuespena aplikatzeko, interesen ordainsari moduko aurrezpenaren etekinen fiskalitatearen arloan, Zerga Administrazioak ondorengo datuei buruzko ziurtagiri bat luzatuko die Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei, baldin eta direktiba horretako 11. artikuluan jasotako

konturako atxikipena aplikatzen duen estatu kide batetik errentak jasotzen badituzte:

a) Errentak jasotzen dituenaren izen-deiturak, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Errentak ordaintzen dituen pertsona edo entitatearen izen-deiturak eta helbidea.

c) Errentak jasotzen dituenaren kontu zenbakia edo, halakorik ez badago, kredituaren identifikazioa.

Ziurtagiriak hiru urterako balio izango du, eta gehienez 10 egunetan luzatuko da eskaera datatik aurrera.

**LAUGARRENA. Europar Batasuneko egoiliarren identitatea eta egoitza frogatzeko prozeduraren aplikazioa.**

Erregelamendu honetako 61. artikuluan identitatea eta egoitza frogatzeko jasotako prozedurak aplikatuko dira. Nolanahi ere, Europar Batasuneko egoiliarrentzat kapital propioak hirugarrengoei lagatzeagatik lortutako interesen eta gainerako etekinen salbuespena aplikatzeko jarritako akreditazio arauei buruzko xedapenetan jasotakoa ere aplikatu ahal izango da.

**BOSGARRENA. Atzerrian dauden ondasun eta eskubideei buruz eta Gipuzkoara helbidea aldatu izanari buruz informatzeko betebeharrak.**

Helbidea Gipuzkoara aldatzen duten zergapekoak behartuta daude Gipuzkoako Zerga Administrazioaren aurrean erregelamendu honetako 53., 54., 69. eta 70. artikuluetan jasotako informazio obligazioak betetzera, nahiz eta helbidea aldatu aurretik informazioa beste zerga administrazio batean aurkeztuta izan.

**XEDAPEN IRAGANKORRA. 2018ko urtarrilari eta otsaileko lehen hamabostaldiari buruzko informazioa ematea.[53]**

Erregelamendu honen 36. artikuluan xedatutakoa hala izanik ere, zergapekoak sistema informatikoak modu egokian ezartzen joan daitezen, informazioa bidaltzeari begira 2018ko urtarrilean eta urte horretako otsailaren lehen hamabostaldian amaitzen diren epeak 2018ko otsailaren 20ra arte luzatutzat joko dira.

[53] Xedapen hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 1. artikuluko zortzi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

## *Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren ERANSKINA*

Zerga betebehar jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak 56. artikuluaren 3., 4. eta 5. apartatuetan aipatutako aitorpen eredua.

(Izena) ……………… jaunak/andreak, identifikazio fiskaleko zenbakia (1) (....) duenak, (entitate aitortzailea) …………ren izenean eta ordezkaritzan (IFZ (1): ………), eta (………… )n helbideratuak, honako hau den aldetik (markatu egoki dena):

(a) Idazpenen Zor Publikoko Merkatuaren Entitate Kudeatzailea.

(b) Baloreen konpentsazio eta likidazio sistema kudeatzen duen atzerriko entitatea.

(c) Baloreak konpentsatu eta likidatzen dituzten Espainiako entitateetan hirugarrengoen konturako baloreak mantentzen dituzten bestelako entitateak.

(d) Jaulkitzaileak izendatutako ordainketa-agentea.

Aitorpen hau egiten du, bere erregistroetan jasotakoari jarraituz:

1. 56. artikuluaren 3. eta 4. apartatuei dagokienez:

1.1. Baloreen identifikazioa.

1.2. Etekinen ordainketa data (edo itzulketa data, deskontuz edo bereizita jaulkitako baloreak izanez gero): ……………………..

1.3. Etekinen zenbateko osoa (edo itzuli beharreko zenbateko osoa, deskontura jaulkitako edo gerora bereizitako baloreak izanez gero): ………………….

1.4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagozkien etekinen zenbatekoa, salbu eta kupoi bereiziak eta printzipal bereiziak direnean eta haien itzulketan entitate kudeatzaile batek esku hartzen duenean: …………………..

1.5. 56. artikuluaren 2. apartatuaren arabera zenbateko osoan ordaindu behar diren etekinen zenbatekoa (itzuli beharreko zenbateko osoa, deskontuz edo bereizita jaulkitako baloreak izanez gero). …………………..

2. 56. artikuluaren 5. apartatuari dagokionez:

2.1. Baloreen identifikazioa. ……………………..

2.2. Etekinen ordainketa data (edo itzulketa data, deskontuz edo bereizita jaulkitako baloreak izanez gero): ……………………..

2.3. Etekinen zenbateko osoa (edo itzuli beharreko zenbateko osoa, deskontura jaulkitako edo gerora bereizitako baloreak izanez gero) ………………….

2.4. Atzerrian helbideratuta dagoen konpentsazio eta likidazio sistema kudeatzen duen entitateari dagokion zenbatekoa. A

2.5. Atzerrian helbideratuta dagoen konpentsazio eta likidazio sistema kudeatzen duen entitateari dagokion zenbatekoa. B

2.6. Atzerrian helbideratuta dagoen eta konpentsazio eta likidazio sistema kudeatzen duen entitateari dagokion zenbatekoa. C

Halaxe aitortzen dut ..................(e)n, 20…. (e)ko ....................aren .........(e)an.

(1) Establezimendu iraunkorrik gabeko pertsona fisiko edo juridiko ez-egoiliarren kasuan, egoitzako herrialdearen arabera dagokion identifikazio zenbakia edo kodea jarri beharko da.

# ALDAKETAK

Honako zerrendan Erreglamentuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- ***33/2014 FORU DEKRETUA, urriaren 14koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duena (GAO 2014/10/17).***
  - Bere amaierako lehen xedapenak, prezeptu hauek aldatzen ditu:
    - 11.b) artikuluaren 3. zenbakia.
    - 15.3. artikuluaren c) eta m) letrak.
    - 16.2. artikuluaren h) eta l) letrak.
    - 40. artikuluaren b) letra.
    - 45 bis artikulu berri bat gehitzen da.
    - 51. artikuluaren 1. apartatuko a) letraren lehenengo paragrafoa eta artikulu horren 4. apartatua.
    - 58.1 artikuluaren a) letra.
    - 59.1 artikuluaren e) eta f) letrak.
    - 59. artikuluaren 2. apartatua.
    - 66. artikuluaren h) letra.
    - 67. artikulua.
    - 80. artikuluaren 4. apartatua.

- ***13/2015 FORU DEKRETUA, maiatzaren 19koa, zerga betebehar formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen dituena (2015/05/29ko GAO).***
  - Prezeptu hauek aldatzen dira:
    - 15. artikuluaren 3. apartatuko f) letra.

- Beste bi letra gehitzen zaizkio 15. artikuluko 3. apartatuari, eta horren ondorioz, o) eta p) letrak q) eta r) letrak bihurtzen dira, eta eduki berria o) eta p) letretan sartzen da.
- 16. artikuluaren 2. apartatuko d) eta h) letrak.

- *13/2016 FORU DEKRETUA, ekainaren 28koa, hainbat erregelamendu aldatzen dituena zerga baterakuntzaren araubide berrira egokitzeko (2016/07/08ko GAO).*
  - Bere 2. artikuluak prezeptu hauek aldatzen ditu:
    - 11. artikuluko b) letraren 1. zenbakia.
    - 34. artikuluko 2. apartatuaren b) letra.
    - 51. artikuluko 1. apartatuaren b) letra.

- *2016ko azaroaren 29ko 25/2016 FORU DEKRETUA, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko eta elkarren arteko laguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duena (2016/12/09ko GAO).*
  - Bere amaierako lehenengo xedapenak VI. tituluaren II. kapituluko 5. sekzioa ezabatzen du, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

- *15/2017 Foru Dekretua, ekainaren 27koa, zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzekoa (2017/06/29ko GAO).*
  - Prezeptu hauek aldatzen ditu:
    - s) eta t) letrak gehitzen zaizkio 15. artikuluaren 3. apartatuari.
    - 6. artikuluko 2. apartatuan h) letra aldatzen da, eta o) eta p) letra berriak gehitzen dira, orain arte o) letra izan dena q) letra bihurtuz.
    - 5. apartatu bat gehitzen zaio 36. artikuluari.
    - 36. bis eta 36. ter artikulu berriak gehitzen ditu.
    - 40. artikuluaren e) letra aldatzen du.

- 44. artikulua edukirik gabe uzten du.
- Xedapen iragankor bat gehitzen da.

- *32/2017 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua aldatzen duena.*

  - Artikulu bakarrak prezeptu hauek aldatzen ditu:

    - 3. artikuluko azken paragrafoa.
    - 5. artikuluaren 2. apartatuko a) letra.
    - 9. artikuluko 1. apartatua.
    - 11. artikuluko c) letra.
    - 14. artikuluko 2. eta 4. apartatuak.
    - 15. artikuluaren 3. apartatuko n) letra.
    - 16. artikuluaren 2. apartatuko a) letra.
    - 25.c artikuluaren a’) letra.
    - 48. artikuluaren 2. apartatuko hirugarren paragrafoa.
    - 53. artikuluaren 4. apartatuko a) letra.
    - 54. artikuluaren 5. apartatuko a) letra.
    - 55. artikuluko 1. apartatua.
    - 56. artikuluaren 1. apartatuko b) letra.
    - 69. artikuluaren 6. apartatuko a) letra.
    - 70. artikuluaren 5. apartatuko a) letra.
    - 71. artikuluaren 1. apartatuko a) letraren bigarren paragrafoa.
    - 72 bis artikulu berria gehitzen da.
    - 78. artikuluaren 1. apartatuko c) letra.
    - 79. artikuluaren 1. apartatuko f) letra.